

irakaskuntza ertainetako

# URRUZUNO

literatur lehiaketa 2004

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

### **Urruzuno Literatur Lehiaketa (19.a. 2004)**

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 2004 : lan sari-tuen bilduma. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

or. ; cm. – (Sagastiberri)

ISBN 84-457-2160-7

1. Euskal literatura - XX. mendea - Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua  
891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1.a, 2004ko abuztua
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Prestatzaileak:	Iñaki Iturain, Miren Jule Azurza, Santos Izagirre, Iñaki Artola eta Joxe Miel Odriozola.
Azala:	Jesus Ituriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa eta inprimategia:	Gráficas Varona, S.A. Polígono El Montalvo, parcela 49 - 37008 Salamanca
ISBN:	84-457-2160-7
Lege-gordailua	S. 1.082-2004

## AURKIBIDEA

**Hitzaurrea** ..... 7

**Erdizka idatzitako koadernoak** .... *Miren Agur Meabe* ..... 11

### **Prosa: A maila**

Spaghetti bihurriak tomatetan .... *Jon Fernandez San Martin* ..... 19

Herdoildutako izkinek ez dute

sentipenik ..... *Juan Atxutegi Sarrionandia* ..... 37

Puritanical Euphoric Misanthropia . *Manex Berzosa Irastorza* ..... 47

Saminaren gatibu ..... *Olatz Urkia Azurmendi* ..... 57

Antipodetako bikia ..... *Izarne Oiarzabal Santiso* ..... 67

Ulertu ezinean ..... *Leire Telletxea Martiarena* ..... 81

### **Prosa: B maila**

Isiltasunaren bakardadean ..... *Jon Iraola Goiburu* ..... 89

Miranderen itzalpean ..... *Miren Estibaliz Vivanco Ramirez* . 101

Gaur, berandu sartu zait beltza

hartzeko gogoa ..... *Alots Arregi Izagirre* ..... 113

Zurekin eta zu gabe ..... *Oihane Zelaia Markuerkiaga* ... 127

Negar malkotan bihotza ..... *Olatz Mitxelena Larreta* ..... 141

Malko gaziak .....	<i>Garazi Ugalde Pikabea .....</i>	149
Soriako botijoa .....	<i>Raquel Moreiro Cantalapiedra ..</i>	157

### **Poesia: A maila**

Bihotz urdinak kale grisetan .....	<i>Josu Martinez Martinez .....</i>	171
Heriotzari ongietorria .....	<i>Jon Fernandez San Martin .....</i>	179
Barrutik itxitako ateak .....	<i>Josu Martinez Martinez .....</i>	185
Bakarriketa .....	<i>Xabier Perez de Mendiola .....</i>	191
Zorionaren patua .....	<i>Amaia Gezala Ortiz .....</i>	197
Hutsa .....	<i>Olatz Ibarluzea Santisteban .....</i>	203
Huts, min, urrun... ..	<i>Julene Sagarna Mezo .....</i>	209

### **Poesia: B maila**

Munduaren koadroa .....	<i>Olatz Mitxelena Larreta .....</i>	217
Gasolindegirik baldin bada .....	<i>Alots Arregi Izagirre .....</i>	223
Itsas eraso gaiztoa .....	<i>Ainhoa Mendibil Artetxe .....</i>	229
Zurekin, baina zu gabe .....	<i>Garazi Etxeberria Barandiaran ..</i>	237

<b>Urruzunotarrak 1986-2004 .....</b>		241
---------------------------------------	--	-----

## HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hemeretzi urte bete ditu oraingoan. Liburu honen azken orrietan dituzu, irakurle, urte hauetan guztietan Urruzunotar izan direnen zerrendak. Laurehundik gora dira dagoeneko horrelako “titulua” lortu dutenak. Zerrendako batzuek dagoeneko bikoiztu dute irabazle izan zireneko adina. Ez da, bada, txantxetako lehiaketak urte hauetan egin duen ibilbidea. Han eta hemen azaltzen zaizkigu garai bateko kimu berri haiek gaurko kazetaritzan, gaurko literatur izenetan. Kimu lora-tuak haiek, kimu berriak liburuan barrena dastatuko dituzunak, irakurle.

Urtero bezala, goraipatu nahi dugu idazle gazte hauetako bakoitzaren atzean dagoen irakasle-trebatzailea. Hauen lan isila dago gaztetxo hauetako bakoitzaren atzean. Berezko iaiotasuna ez da gehienetan nahikoa izaten idazle izateko. Landu, trebatu eta aberastu behar izaten da berezko hori esku artean dugun mailara iritsiko bada.

Eta zuk, Urruzunoko parte hartzaile ez irabazlea, ez etsi! Agian epaimahai honek ez du asmatu ikusten zure barnean daramazuna. Edo agian ez duzu oraingoan asmatu zure hori kanporatzen. Edo agian trebetasun apur baten

kontua da. Guztiok dugu zer esana; guztion zer esanak du garrantzia; guztiok gara gai esan nahi duguna esateko; guztiok gara gai, gainera, hori era duin, zuzen eta, zergatik ez, literarioan egiteko, zergatik ez? Topikoa litzateke orain esatea “saiatu berriro”, eta topiko erdiarekin nahikoa da “saiatu” besterik ez.

Baina goazen aurtengo datuetara. Epaimahaia aipatu nahi dugu lehenik. Aurtengo epaimahaian literaturaz jantziak diren pertsona hauen kolaborazioa izan dugu:

Tere Irastortza  
Manu Lopez Gaseni  
M<sup>a</sup> Jose Olaziregi  
Miren Agur Meabe  
Josu Lartategi

Gogoeta moduan aipatu nahi dugu lehen aldiz epaimahi honen osieran emakumezkoak gehiago direla gizonezkoak baino. Horrek, dudarik gabe, zer esan nabaria du. Parte hartzaileen artean ere neskak nabarmen dira mutilen aldean (352 neskak eta 173 mutilak). Euskal letretan eta oro har euskal gizartean emakumeak azken urte hauetan egiten ari diren ibilbidearen seinale garbiak, dudarik gabe.

Parte-hartzeari dagokionez, 2004. urte honetan 525 lan jaso dira: A mailan 172 prosan eta 57 poesian; B mailan, berriz, 233 hitz lauz eta 63 olerkian.

Dakizuen bezala, lehiaketak dituen 20 sariak lau ataletan banatzen dira, parte-hartze kopuruak azaltzerakoan aipatu diren bi arlo eta bi mailetan: bosna sari atal bakoitzean. Aurtengoan sariaz gain hainbat aipamen ere egin ditu epaimahaiak. Lanak epaimahaiak emandako lehentasun-ordenan argitaratu dira.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaiia (Irlandara)
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 250 €.
- Oroigarria. Iraileko sari-banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sailean argitaratzea.  
Liburua eskola guztietara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Horrez gain, urtero bi ikastetxeri egiten zaie aipamen berezia: aurtten Ondarroako Ondarroa-Lekeitio institutuari eta Oiartzungo Hautzaro ikastolari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaiian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 2004ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto-ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Azkenik, zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu sari irabazleoi. Eskerrik zintzoenak parte hartzaile guztiei, eta epaimahaian kide izan ditugunoi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa idatzi duen Miren Agur Meaberi.

Liburuko idazleak poztuko dira irakurle zaren horrek, lan hauek maitekiro eta arretaz irakurtzen badituzu. Irakasle, erabil ezazu liburu hau irakur eta idatz-zaletasuna zure ikasleen artean ugaltzeko. Irakurle, edonor zarela ere irakur ezazu liburu hau gazte batzuen ilusio eta sormenaren ispilu moduan. Euskaltzale oro, irakur ezazu itxaropenez euskararen fruitu apal eta duin hau.

IRAKUR NAZAZU, ERABIL NAZAZU, deiadarka datorkizu liburu hau.

**Euskara Zerbitzua**





**ERDIZKA IDATZITAKO  
KOADERNOAK**

**Miren Agur Meabe**



Koaderno asko izan ditut.

Nire lehen egunerokoa gogoratzen dut, granate kolorekoa, giltza txiki eta guztikoa. Bederatzi edo hamar urte nituela oparitu zidaten. Opariarekin harrিতuta, galdetu nuen ea zertarako balio zuen eta, batez ere, ea zergatik zeukan giltzatxoa. Opari-egileak erantzun zidan: “Zure zer garrantzitsuak idazteko, eta zuk zeuk ez beste inork irakurtzeko”. Erantzunak konturarazi zidan denok genituela kontatzeko moduko “zer garrantzitsuak” eta, areago, kontatzeko modu aske bat bazela: idatziz, norberaren egunerokoa. Idatziz kontatzea zerbaiten lekukotza uztea izan zitekeen. Ordura arte, idaztea ez zen, niri zegokidanez, eskolan ikasitako trebetasun bat praktikan jartzea baizik, baina ikasketei loturik beti ere. Ez nuen apenas ezer eskribitu koaderno hartan. Ertz urreztatuzko orri mehe haietan nire letra estanpatzeko errespetua (esaldiak ez okertzeko gida-lerrorik gabe, gainera) handiegia zen eta, bestalde, idatziz jasotzeko moduko gertaera kontagarriren bat noiz gertatuko nengoe-lako. Atzera eragiten zidan koaderno “garrantzirik gabeko zerekin” kutsa nezakeela pentsatzeak. Orduan, solteko paperetan (paperok eta hainbat fetitxe eguneroko granatearen barruan gordetzen nituen) edota koaderno arruntetan idazteari ekin nion. Idaztea bizitza neure erara esaten hasia izan zen. Liburuetatik aterako aipu xarmangarriak kopiatzen nituen, neure bizimodu laua aztoratzen zuten jazoerak transkribatzen, hausnarketa soilak mamitzen, fantasiatzko istorioak asmatzen, honetaz edo hartaz bat-batean bururatu-tako ideiak gorpuzten eta, bizitzari buruzko “zer garrantzitsuak” argi eginez, nire gogoan dir-dirka irauten zuten aurkikuntzak islatzen nituen. Idaztea bide magikoak ikertzea zen, eta noizean behin, egia txikiren bat aurkitzea. Koaderno gehiago etorri ziren gero: irudi txinatarrak zituen marroia,

marmolaren imitazioko azalak zituena, eskoziar koadroduna, gomaz ixteko blok txiki beltza, anil koloreko zetaz forraturiko beste hura... Eta horietako batean ere ez dut ia ezer idatzi. Inoiz erabiltzen ez ditudan koaderno dotore horiek metafora bat dira niretzat: sorkuntza-prozesuaren mugagabetasunaren metafora. Halaber, idaztea erantzukizuna dudala gogorarazten didaten oroigailu zelatariak ere badira: eskuetara koaderno berri bat datorkidan bakoitzean, haren barrualde hutsa irudimenaren bazka bihurtzen da, eta isiltasuna bilatzera bultzatzen gaiten dit. Isiltasuna delako “zer garrantzitsuak” esplikatzen diguna. Ipuin edo olerki izan litezkeen hotsak entzuten laguntzen digu. Isilean barrundatzen ditugu testu apalak marratzearen larrimina eta euforia: sortzeko gaitasuna baiesten dugu. Pessoa-k zorrotz adierazi zuen hori: “Poeta izatea bakarrik egoteko neure modua baino ez da”. Idaztea, azken batean, sortzeko gaitasunari zentzua ematea da, bizitza berregitea. Martín López-Vega asturiar poetaren hitzetan, “gure bizitza ez diren beste bizitza batzuk bizitzeko balio du literaturak, edo geure bizitza birritan edo gehiagotan bizitzeko; izan ere, ukendu bakana da, gauzak oroitzeko balio duena, alegia, gauzak geure bihotzetik berriz igaro daitezen balio duen ukendua”. Zuok ipuinak eta olerkiak idatzi dituzue bulkada bati ibilgua ematearren. Ez zarete saiatu gastuak ordaindutako bidaia lortzearen soilik. Idaztea bizitza behin eta berriz asmatzea dela ohartu zareten gazteak baldin bazarete, ulertuko zenuten, baita ere, idazlearen ametsa bizitzaren utopia dela, bizitzea eta idaztea bat datozela. Jean Michel Maulpoix poeta frantziarrak esplikatzen duenaren arabera: “Zer nahi dugu, ba, zuk eta biok! Esaldi berri bat izan, inoiz esan gabeko hitzez eratua”. Denok izan nahi genuke esaldi berri bat. Eta esaldi berriak idatzi nahi genituzke. Batzuetan, berbak beren kabuz legez jartzen dira toki egokian edertasuna-

ren eta mezuaren arteko orekan; eta, beste batzuetan, aldiz, zahar, usatuta, alokatuta edo aldi baterako mailegatuta jaiotzen dira. Urruzuno sariketak koaderno bat eskaini dizue, eta baliatu duzue: zuen eskuek idatzi dute jadanik besterentzat. Horregatik zaudete liburu honetan orain. Idazten jarraituz gero, egunen batean erabakia hartu beharko duzue, ea zer egin zuon paperekin: itsasontziak ala errautsak. Horregatik adi egon beharra, geuri buruz eta geure izan litezkeen era askotako beste “zer garrantzitsu” horiez agurrak, begiradak, gerrako albisteak, disekatutako tximeletak, herria, ekaitzak, alegia, bizitzaz, isiltasunak zer dioskun. Bizitza, literatura-ren lehengaia irudimenaren eta oroimenaren iragazkitik pasatuta Octavio Paz zenak esan legez, horixe jaso jasotzen dugu gure koadernoetan edo ordenagailuaren disko gogorrean. Eta gure koadernoek isilpekoak edo ez hain isilpekoak izan, badute giltzarik. Mundura irekitzen eta mundutik gordetzen dituen giltza, ur handietan egonik ere, bere-berea den itsasoa altzoan daraman kurkuilua bezalakoa: euskara.

Gure bizitzaren koaderno, gure irudimenaren koaderno, gure oroimenaren koaderno, erdizka idatzita daude, ordea. Idazle izatea ekinean aritzea da, inoiz erabat idatziko ez ditugun norberaren koadernoetan, falta diren beste erdi horiek zirriborratzea.

Miren Agur Meabe



# **PROSA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak





# **Spaghetti bihurriak tomatetan**

Jon Fernandez San Martin  
Ondarroa-Lekeitio institutua  
Ondarroa



Ospitalera sartu aurretik metroa gogoratzen dut: “Próxima stació: Vall d’Hebrón”. Eta ni hantxe geratu nintzen, niretzat azken parada. Bartzelonako metroa bitxia egin zitzaidan. Garraio berezia zen zazpi urteko begi birjinentzat. Lur azpian zebilen tren. Har bat zirudien, sagar barruan patxadan hara eta hona. Eta gu harraren sabelean sartzen ginen. Ia beti betetako aulkietan jarriz, harraren azal gardenetik haratago begiak jaurtiz, bere tripa barruko zaratak entzutean, ahotsak, batzuk irten eta beste batzuk sartuz. Niretzat, bada, Vall d’Hebrón izan zen azken geltokia, gurasoek aldiz egunero egiten zuten har-bidea, nire geltokian geratu eta berriz ere sagarraren beste aldeko hotelera bidean. Gurasoak harraren tripan jarrita, gurasoen tripan mila har barrua hustuz salto-saltoka.

Pijama urdin argi bat eman zidaten janzteko, hegalak urdin ilunez josiak. Zegokidan solairura eramán ninduten, infantil zeritzon hartara. Pasillo bi zeuden hegal banatan, leihoekin, baldosa hori hotz batzuk ere bai tarteka. Erdian, gerritik gora kristalez, ume gaixo ginenon gelak zeuden. Gela eta ziega lehengusu txikiak dira. Kristalezko gelen jarraipen hartan, niri, beste guztien kopia zen bat tokatu zitzaidan, halabeharrez segur aski. Nik behintzat ez nuen aukeratu. Nik han ez nuen hitzik. Begiak soilik. Eta gurasoak bizkartzain nituela sartu nintzen gela hartan lau ohe ikusi zituzten nire begiek. Nirea izango zena, hegalekoa, hutsa. Nire ondokoa ere, nirea izango ez zena, hutsa. Ama eta aita bizkartzain onak nituen, beno, barne harrak kontuan hartuta hartzainak esango nuke. Baina ez zuten nik baino aurpegi gozoagorik. Aurpegi hotzak zituzten, nire oheak bezala, ohe huts hotza zirudien, arrotza. Izara zuriz eta almoada taxuzkoz jantzitako hilkutxa aurrefabrikatua izan zitekeen. Baina nik nahiago nuen izara eta almoadaz

jantzitako pospolo kaxa xumea ikusi. Dena dela, hantxe sartuta egin behar nuen amets.

Aurrerago aipatu dudan pijama urdina janzten lagundu zidan amak lau oheen aurrean, erdian zegoen komunean. Ate marroia zen, komun barrua ere gastatu kolorekoa, baina garbia. Soineko berriz, zegokidan ohearen inguruan jarri ginen hartzainak eta ni, geure atmosfera sortu nahian, etxe-ko girora hurbildu nahirik. Nire gelan finkatze hark nire gelakideak ezagutzera bortxatu ninduen, batez ere gurasoak hurbildu ziren beste gelakideengana. Ohe bi haratago zegoena Alejandro zen. Neu baino urtebete gazteagoa. Aurpegi zurixka ile gorriz, La Pinedakoa zen, eta nire gurasoak euren gurasoen lagun egin ziren segituan. Hiru ohe haratago zegoen mutila galegoa zen, Oscar. Andre zahar bat egoten zen bere ohe ondoan, beltzez jantzia beti, ile urdindu. Zuhaitzei bezala aurpegiko zimurren zenbatekoarekin adina aterako balitzaio, Matusalenen lehengusina izateko gertu zegokeen. Beltzezko andre hark nire gurasoei kontatu zienez, Oscarren gurasoak hilak ziren biak, istripuz, eta bere gain zuen umearen ardura. Horrelako istorio beltzak entzun eta ikusita nire gurasoen harrak bikoiztu egiten ziren sabeletan, spaghetti bihurriak tomatetan baliran, eta gure egoera besteenen aldean eroso zela esaten zuten euren artean. Ospitalea benetako ipuinak entzuteko toki aproposa da, liburutegiek baino istorio gehiago gordetzen ditu bere baitan. Bizirik dauden ipuinak dira gainera, denak lehenengo pertsonan idatziak.

Ospitale bati dagokion ospitale-usain giro beltz hotzaren barnean, etxe-ko giro epelxeagoa sorrarazten zidaten gurasoek nire ohe inguruan jarrita. Baina bertan geratu beharra nuela esaten zidaten. Barruan nuen gaixoa osatu beharra neukala, nire onerako zela. Gaua bakarrik pasa

beharko nuela esaten zidaten. Beno, ez, bakarrik ez, nire gelakide, nire lagun ziren haiekin batera egongo nintzela, eta lasai egoteko. Ez zela ezer gertatuko, eta zerbait gertatuz gero erizainei esateko, emakume atseginak zirela-eta. Nik denari buruarekin baietz egin arren handik mila kilometrora egon nahi nuen, handik urruti. Neure etxean. Baina hantxe nengoen, eta ez zegoen irtenbiderik. Ez zegoen Vall d'Hebronetik metro zuzenik nire etxera. Ez zegoen har hain luzerik. Bada, gure etxekoa izan nahi zuen sortu berri genuen atmosfera hartan nengoela, beste atmosfera bat sartu zen gelan nire ohe ondoko atetik. Ama bat eta nire adin inguruko mutiko bat. Biak oso beltzaranak. Amak telebistan agertzen diren andaluz gerri zabal flamenko horietako bat ematen zuen, eta semeak, zer esan. Gitarra bat falta zitzaion bakarrik. Ile beltz-beltza zuen, patilla luzeekin. Aurpegia, eta gorputza oro har, puztuta zuen, geroago jakin nuenez gaixotasun baten ondorioz. Ez zen hara joaten ziren lehen aldia, izan ere eurekin zetorren erizain txiki eta emakume on itxurako hark etxeko bezala hitz egiten zien. Eta hala ziren egiatan. Erizain hark amona ona izateko itxura zuen, eta segituan ikasi nuen bere izena, Alfonsa, izan ere nire ondoko jada ohe betearen jabe izango zen mutil beltzaran puztuaren izena Alfonso zen, eta izen hori ez dago ahazterik.

Niri bezala, eta denei, denek baitzeramaten soinean, pijama urdina eman zion Alfonsak Alfonsori. Eta hau, amaren laguntzarik gabe, komunean sartu zen arropak erantzi eta pijama urdina janztera. Bitartean bere ama Alfonsarekin hasi zen berbetan bazar batean baleude bezala, bere bizitza kontatuz, semea zelako okerra zen begi bistaratuz, berriz ere ospitaleratu beharra azalduz, ..., guzti hau nire begi eta belarrien harridurarako. Ni, gelara sartu berri zen atmosfera

hark guztiz harrituta laga baininduen. Alfonsok eta bere amak ospitalean egoteko zuten hain era lasaia eta normalak harritu egin ninduen, nola zitekeen ospitale itxi batean etxean bezala egotea. Penagarria zen, baina ni behintzat lasaitu egin ninduen. Ez gehiegi, oraindik nire lehenengo arratsa baitzen. Eta gure atmosfera beste atmosfera hari so zegoela, komuneko atea dantzan hasi zen. Ostiko eta ukabilkadak hartzen zituen ateaak barrutik. “¡Párate, Alfonso!” esaten zieten bai amak eta bai Alfonsak “¡Sal de ahí!” “Abre la puerta”. Are gehiago harritu ninduen Alfonsoren portaerak, nola egin daiteke hori ospitale batean, jende ezezagunaren aurrean. Ez nuen ulertzen. Eta bere amak eta Alfonsak errieta egiten zioten egunero gauza bera gertatuko bailitzan. Iskanbilarekin beste erizain batzuk ere hurbildu ziren gelako atera. “¿Qué pasa?” galdetzen zuten. Eta Alfonsak, komuneko atean bere burua bermatuta “nada, Alfonso, que no quiere salir” esaten zuen, “ ah, ya ha vuelto” erantzuteko erizainek irisak lurrean.

Bisitaren denbora bukatzeaz, lehen gauaren atarian, ez dakit zer esanda baina Alfonsak denbora luze baten ondoren lortu zuen Alfonsok atea ireki eta kanpora irtetea. Afaria ekarri ziguten jarraian. Gurasoak ondoan nituela afaldu nuen. Zopa eta ez naiz gogoratzen zer gehiago. Uste dut amak ahora eman zidala zopa. Eta nire hartzainek, niri afaltzen lagundu bitartean, Alfonsoren, Alejandroren eta Oscarren bizkartzainekin hitz egiten zuten, eta aldi berean, Alfonsok Oscar, Alejandro eta nirekin egiten zuen berba. Bat-batean, Alfonsok zuen hitz erraztasunari esker lagun egin ginen, inongo egoerak bortxatu gabe. Hartzainak, afalostean, joan egin ziren, euren har eta guzti, baina joan egin ziren. Bakarrik utzi ninduten. Alfonso ondoko ohean nuela. Beste biak urrun geratzen zitzaizkidan, eta Alfonso segituan

hartu zuen loak. Erizain bilo hori zakar bat etorri zitzaigun gelara, gogo gabe eta beldurraraziz, argia itzali eta lo egitera kondenatuz. Iluntasunak gaixoon isiltasuna ekarri zuen. Gaixotasunak aldiz ez ziren isildu. Hainbat gaixoren inguruan tuboz konektatuta zeuden trastetzarrak ez ziren isildu. Hauen arteko elkarrizketa lotsatiak entzuten ziren. Nire barruan, gaixotasunen elkarrizketetatik at, erizain zakararren azken hitza zebilen, lotan uzten ez zidaten har bizien artean, “bona nit”.

Harrek amore eman eta loari leihoak zabaldu zizkieten, lotsa barik sartu zedin, eta hala egin zuen. Amets batzuk ere ekarri zituen berekin, eta ohe berrian, ametsak estreinatu nituen. Beste ospitale batera eramane ninduen ametsak, gela handixeagoak zituen batera. Gainera ametsak musika-banda zuen atzealdean, goxo-goxo entzuten zena, gaixoen aparatuen musika. Gelan, nireaz gain, beste lau ohe zeuden, hots, ni nintzen bosgarrena. Bat-batean erizain bilo hori zakarra sartu zen, gurea bezalako pijama arrosaz, eta “La cena está servida. Uno de vosotros está muerto, los demás venid, bajad a cenar” esan zuen. Biziki izutu nintzen. Lehenengo hirurak laster alde egin zuten afaltzera. Laugarren ohekoa, mutil beltzaran lodikote bat, eta ni geratzen ginen. Bion artean zegoen hildakoa. Neure burua larri ikusi nuen eta zera galdetu nion laugarren ohekoari, “¿Eres tú el muerto?”, eta “No sé, puede que sí” erantzun zidan hark. Erantzun hark apur bat lasaitu egin ninduen eta afaltzera jaitsi nintzen, gose.

Tantaka, urduri, esnatu nintzen goizean. Ez nintzen etxean esnatu, ospitalean nintzen. Eta ez zeuden nire gelakideak besterik. Erizain zakarra sartu zen gosariekin. “Terminadlo todo” esan zigun. Kakaoa eta gailetak jan nituen, baina alboan bokadilo bat ere bazegoen, gainera ogiak

tomatea zuen, eta niri ez zitzaidan gustatzen. Baina erizaina kristaletik pasilloan ikusi nuenean, bokadiloa irentsi nuen, beldurrez.

Gosariaren ondoren medikua pasa zen gure oheetatik, Doctor Martin zen nirea, eta bi erizainekin etorri zen, haiek dena apuntatzen zutelarik eskuan zeramaten karpeta banatan. Gizon atsegina iruditu zitzaidan Doctor Martin.

Gurasoak falta ziren oraindik, berriz ere bakarrik geunden laurok gelan. “Pronto vendrá Neus” agindu zidan Alfonsok. Eta egiaz *pronto* etorri zen Neus, pijama arrosadun andre zahar bat. Gure andereñoa zela esan zigun, eta denok bere atzetik joan ginen goiko solairura, scola-ra gindoazela zioen. “Hay un montón de juguetes” xuxurlatu zidan Alejandrok. Eta ikastola itxurako gela hartara sartu eta gainontzeko ume guztien nahasmenean egurrezko kaxa baten aurrera eraman ninduten gelakideek. Alfonsok zabaldu zuen, irriz. Olentzerok inoiz ekarria zidana baino jostailu gehiago zegoen. Huraxe zen jolasaren jauregia. Playmobilak, legoak, andrakiletak, denak batera, nahasian egurrezko kaxaren baitan, guk atera zain.

Ordu luzeak xahutu genituen kaxa haren barrenekoekin entretenituz. Eta nire gelakideak ez ziren beste hainbat lagun egin nituen. Batzuk arraroak ziren. Bat, ni baino hiru urte zaharragoa izan arren, nire anaia gaztea bezain txikia zen. Edurne Zuriren zazpigarren ipotxa zirudien. Eta Alfonsok berak, beti, poltsa-plastiko bat eramaten zuen gerri ingurutik zintzilik, hodi batekin hanka tartetik. Egunaren orduak gehitu ahala poltsa barruko txiza ere gehituz. Scola hartan bazegoen beste mutil arraro bat ere, ez aparaturen bat zuelako, ez eta txikiegia zelako. Alderantziz, handiegia zelako zen arraro. Alfonsok “ése tiene barba” esaten zigun,



“es más viejo que mi vieja”. Mutila, leihoaren ondoan ego-  
ten zen ia beti, bere kaiera esku batean eta hartzen zituen  
pastillen markako boligrafoa bestean. Baina bat-batean  
nigana hurbildu zen, kaxako jostailuekin ari nintzela. Eta  
nire harridurarako euskaraz berba egin zidan, euskalduna  
zela-eta. Nik pozik erantzun nion ni ere hala nintzela, eta  
euskaraz hasi ginen solasean. Berriz arnasa hartzea bezala  
izan zen. Hamabost urte zituela esan zidan, eta bere guraso-  
ak ezin zirela han egon, Euskal Herrian zeudela, derrigorre-  
an, ospitaleko arazoak ordaintzeko lanean. Hiru hilabete  
zeramatzala bertan esan zidan, eta idaztea gustatzen zi-  
tzaiola, eta bere gelara joateko, bisitan. “¿Cómo habla? ¿Qué  
dice?” etorri zitzaidan Alfonso, gure berbetaz harrituta,  
“nada, que habla como yo” esan nion.

Hurrengo goizean, hartzainen bisitaren aurretik, bere  
gelara joan nintzen bisitan. Nirea baino hiru haratago zego-  
en, eta ni baino zaharragoa baina txikiagoa bere alboko ohe-  
an zen. Ander zuen izena nire lagun berriak, baina denek  
Andreu deitzen zioten han. Nire lehenengo bisita hartan  
aurreko hiru hilabeteetako batean idatzi zuen gauzatxo bat  
oparitu zidan. Niretzat zela esanez. Gelara eramanez, nuen,  
irakurri, baina ez nuen tutik ulertu.

### *U-me-loiak*

Txinatar nekazariak nazkatu egin ziren meloi guztiak  
beti ezberdinak hazten ikusteaz. Berdintasun gosez, meloi  
guztiak, oraindik gazte, egurrezko kaxa hertsietan sartu  
zizuten. Orduetik aurrera meloi guztiak berdina dira, denak  
karratuak, eta orain bai, nekazari txinatarrak gustura daude.

Gaur goizean, jaioberrien solairura jaitsi naiz, jakin-  
minak gehiago eginda. Ume jaioberriak, oraindik gazte,  
kristalezko kaxa hertsietan sartuta zeuden.

Kristalaz beste aldetik guraso batzuen pozezko berbak entzun ditut. “Zein da gurea?” ... “Hauxe da, maitea, zeure antza du.”

Irakurri nuena ez nuenez ulertu, komunetik behera bota nuen, Alfonsok ezkutuan hustu zuen txiza-potoaren atzetik. “¿Por qué lo tiras?” galdetu zidan Alfonsok eta “No sé” erantzun nion, “¿Y tú?”, berak ez zidan erantzun.

Arratsalde hartan, amari zera galdetu nion, ea meloiak karratuak ziren. Amak, hotz, ezetz erantzun zidan, eta ez nintzen aitari galdetzen ausartu, hau Alfonsoren amarekin berbetan baitzegoen. Alfonsoren amak idazten erakusteko eskatu zion nire aitari, aita irakaslea baitzen eta berak ez baitzekien idazten. Baina nire aitak ulertzen ez zuena zera zen, Alfonsoren aita iturgina izanik Alfonsoren amak hartzen zituela senarrarentzako enkarguak telefonoz eta bera moldatzen zela orri gainean datuak apuntatzen, idazten jakin gabe.

Hurrengo goizean, nire aitaren idazte-klaseetatik ez hain urrun, berriz ere ospitalean esnatu nintzen. Eta bilo horiaren tomatezko bokata irentsi behar izan nuen, gero, Doctor Martinen bisita jasotzeko. “Bueno, hoy te vamos a hacer una pruebita” esan zidan Doctor Martinek. Eta bere atzetik joan ginen, prozesioan, erizainak, bere bi medikuak eta ni, solairuetan behera, beste guztiak bezalako gela batera. Bel-durrez nintzen, zer egingo zidaten. Ohe batean etzan ninduten erizainek eta gerritik beherako arropak kendu. “Te va a doler un poquito en el pitilín, pero tu aguanta, ¡campeón!” esan zidan Doctor Martinek esku batekin nire pitilina hartu eta beste eskuarekin hodi fin-fina nire pitilin puntako are zulo finagoan sartu zuenean. Banderileroak zezenari bezala. Negarretan busti nintzen hasieran, baina behin hodia

barruan gizon portatu nintzen. Hodia berriz ere atera zidanean “eskalibur” askatzean harriak sentitu zuena sentitu nuen. Erizainek eginahalak egiten zituzten ni kontsolatzeko, berriz negarrez bainintzen. Erizain arrosa haietako batek “Toma, ésto para tí” liburuxka bat oparitu zidan, “El Rey Midas”. Egun hartantxe irakurri nuen liburua, goitik behera. Hura ulertu nuen, eta ez nuen Alfonsoren txizarekin batera harrika bota.

Arratsaldean hartzainei kontaktu nizkien goizeko *pruebitaren* nondik norakoak, eta amak, irakurria nuen “El Rey Midas” irakurri zidan. Adi entzun nion, puntu eta koma guztiak noiz ziren banekien arren.

Iluntzean, afaldu aurretik, Scolara eraman gintuen berriro Neusek, eta han, jolasen jauregitik urrun, leihotik gertuago, mahai batean jarrita ikusi nuen Andreu. Eta pozik hurbildu nintzaion, berak ere pozik hartzeko. Aurrekoan eman zidan ipuin laburra ea irakurri nuen galdetu zidan, eta baietz erantzun nion, ea gustatu zitzaidan galdetzean ere, edukazioz, baietz esan nion, egiatan letra pila hura zer zenik gabe Alfonsoren hondakinekin nahastu banuen ere. Baina nik ere banekiela ipuin bat esan nion, eta ea kontatzerik nahi zuen galdetzean baietz esan zidan. Midas erregearen istorioa kontaktu nion, gazteleraz, halaxe ikasi bainuen. Uste dut ez zitzaiola asko gustatu, agian aurretik entzuna izango zuelako. Eta aurpegi desatsegin samarra jarri zidan. “Erregeen istorioak gustatzen zaizkizu beraz” esan zidan begiak leihotik behera jausten zitzazkiola, neuk ere begiak leihoan iltzatuz buruarekin baieztatzeko. Hori horrela, hurrengo goizean bere gelara joateko esan zidan, bazuela-eta berak idatziriko ipuin labur bat, errege baten istorioa kontatzen zuena. Gustatuko zitzaidala agindu zidan.

Ospitaleko beste gau bat pasa ondoren, goizean tomatez bustitako bokadiloa irentsita, Alfonsok pasilloan barrena eramán ninduen. “Mira, en este papel pone quien se va y quien se queda.” Eta nire muturraren aurrean, baldosa horietan itsatsita, izen zerrenda bat ikusi nuen, izen bakoitzaren ondoan *alta* edo *baja* jartzen zuelarik. Alfonsok azaldu zidanez, *alta* jartzen ziona ospitaletik joaten zen, eta *baja* jartzen ziona bertan geratu behar zen. Alfonsok pijamako poltsiko urdin argitik arkatx bat atera zuen, eta bere izenaren ondoan *baja* ezabatu eta *ARTA* idatzi zuen. “Ya verás. Mañana me voy de aquí”.

Alfonsorekin nintzela, Andreuren gelara joan behar nintzela gogoratu nintzen. Eta Alfonsori hara nindoala esan, eta joan egin nintzen. Gelan, Edurne Zuriren zazpigarren ipotxaren antza zuen mutila aurkitu nuen bakarrik, bere ohean etzanda. “¿Dónde está Andreu?” galdetu nion, eta pitufo ahotsez erantzun zidan “... no sé, hace unas tres horas que se lo han llevado los médicos. Pero como esperaba que vinieras me ha dicho que te diera ésto.” eta tolestutako orri bat eman zidan. Nik, eskutik hartu nion orria eta eskerrak emanez, alde egin nuen gela hartatik. Zergatik eramán ote zuten Andreu medikuek. Agian *alta* emango zioten. Baldosa horien gaineko zerrendara joan nintzen egiaztatzerara, baina ez, Ander izenaren ondoan *baja* jartzen zuen. Alfonsoren *ARTA* ere ezabatuta zegoen, alboan letra dotorez *baja* jartzen zuelarik, berriro.

Pasillotik, Andreuri zer gertatu ote zitzaion pentsatzen, nire ohera joan nintzen, gustatu behar zitzaidan errege-istorioa irakurtzera.

## *Erre (G) mina*

Erregea lurralde lau eta mortu baten erdialdean zegoen jesarrita, bere tronuan. Lautadaren muturrean, hau hautsiz, murru amaigabe bat zegoen, puntu batean burua justu-justu sartzeko moduko zulo bat zuena. Zulo gainean G handi bat zegoen gorri erogarritz idatzia.

Jakin-minak gehiago eginda tronutik jaitsi eta lautada gurutzatu zuen murruko zulora iritsi arte. G gorriari begiratu zion. Zer esan nahi ote zuen? Zuloari begiratu zion. Zer ote beste aldean? Koroa, zulotik ez baitzen kabitzen, burutik kendu eta burua zulotik sartu zuen. Beste aldean gizon beltz bat zegoen eskuan metal zati gori-gori bat zuela. Erregeari lepotik heldu eta mingaina erre zion. Bai ondo erre ere! Erregeari mihinaren minez koroa jausi zitzaion eskue-tatik eta segituan atera zuen burua zulotik. Murruaren mugagabetasunetik mutil gazte bat etorri zen korrika eta erregearen koroa hartu zuen lurretik berak buruan jantziz. Erregea minez zen, mihinaren minez, erreminez, erregeminez, zulo hura Galbidea baino ez zen. Hainbeste urte lautada mortuko tronuan, ahaztu egin zitzaion berak ere erregetza nola lortu zuen.

Midas erregea gehiago gustatu zitzaidan. Beste errege honek pena apur bat eman zidan, eta ez zuen komunetik behera bukatzea merezi. “El Rey Midas” liburuaren barruan sartu nuen ipuina, ea Midasek hau ere urrezko bihurtzen zuen.

Arratsaldeko hartzainen bisitan, Doctor Martin etorri zen eurekin hitz egitera. Nire gaixotasuna osatzeko aukerak azaldu zizkien bere bi medikuen laguntzaz. Ebakuntzaren bat egitea komenigarria izango zela entzun nuen. Ni ohean bainintzen dena entzuten. Hartzainak nire inguruan zutik.

Hesteetako zati bat kendu eta puxikan jarriko zidatela azaldu zuenean, nire aitaren sabeleko spaghettiak jauzika hasi ziren, irakindako tomatetan. Aurpegia zuri-zuri egin zitzaion, gero hori, eta berde. Doctor Martinek ohean jartzeko esan zion, eta aita nire ondoan jarri zen. Spaghettien marmarra entzuten nion. Nire aitaren larritasuna arintzekoedo, Doctor Martinek ebakuntza hura aukera bat zela azpimarratu zuen, ez zela derrigorra, eta sakonago aztertuko zutela kasua, beste osabide bat aurkitzeko.

Iluntzean, amak esku dardaratiz ahora ematen zidan pure berdea ikustean, aita komunera joan zen, oka. Tomatezko spaghetti bihurri haiek Andreuren ipuinarekin bat egingo zuten segur aski komunetik beherako bide aldrebean.

Hurrengo egunean, scolara joan ginenean, Andreu aurkitu nahian ibili nintzen, erregearen ipuina gustatu zitzaidala esateko, batez ere bera pozteko. Egia esan, aurreko ipuina baino gehiago gustatu zitzaidan. Baina leiho ondoko bere lekua hutsik zegoen, eta nire bilaketek ez zuten aurkitzerik lortu. Bere gelakideari galdetu nion ea Andreu non zen, eta honek, gelan geratu zela esan zidan, laster ebakuntza egin behar ziotela eta gelan egon beharra zuela.

Egun hartan ezin izan nintzen Andreuren gelara joan, hartzainekin egon behar bainintzen, bisita-orduan. Baina bere gelakideari goraintziak emateko eskatu nion, ipuina gustatu zitzaidala esateko eta hurrengo egunean joango nintzela bisitan. Arratsaldeko bisitara, niretzako opari batekin etorri zitzaizkidan hartzainak. Pelutxezko hartz zuri bat ekarri zidaten, poz handiz, begi distiratsuz. “¿Y para mi qué? ¿no hay nada?” esan zien nire hartzainei Alfonsok. “¡Ay! ¡Cállate, Arfonso!” esan zion berari amak.

Egun berria, ohiko tomate gustuz hasi nuen, beldurrez irentsia. Andreuren gelara joan nintzen, baina aurretik, Doctor Martin etorri zitzaigun gelara, bisitan. Ez nuen beste *pruebitarik* egin nahi. Eta nahiko larri hartu nuen bere etorrera. “Buenos días” esan zidan, eta nik buruarekin baietz. “Ayer hicimos una sesión clínica, y decidimos que, en principio, no es necesario que te operemos. Pero tendrás que seguir unos controles...” Hitz jario hartatik ez nion erdirik ulertu, hori bai, ebakuntzarik ez zidatela egingo argi entzun nion. Eta, bat-batean, irribarre txiki bat egin zidan, begiarekin keinu eginez. “Bueno, amigo, mañana te vas a tu casa, pero hoy no les digas nada a tus padres ¿vale?, será nuestro secreto”, eta begiarekin beste keinu bat eginez joan egin zen.

Poztu egin ninduen berriak, bihartik aurrera, berriz ere etxean. Ez nintzen ospitalean esnatuko gehiago, tomatez bustitako bokatarik ez. Eta horretan ari nintzela Andreuren gelara joatea gogoratu zitzaidan.

Ohean aurkitu nuen. Ez oso pozik. Aurreko egunean ea non ibili zen galdetu nion eta egin behar zioten ebakuntzarako probak egin zizkiotela-eta ezin izan zidala ipuina esku-  
ra eman esan zidan. Astean bertan egin behar ziotela ebakuntza esan zidan, eta ebakuntzarekin izen berezi bat esaten zuen, “transplantea”, giltzurrun-transplantea, esaten zidan. Nik ordea, ez nuen hitz horren esanahia ulertzen, eta ez nion galdetu ere egin. Erregearen ipuina gustatu zitzaidala esan nion, eta irribarre egin zidan ohetik. Irribarre hark balio zuen gezur txiki hura. Nik ere, irribarre egin nion jarraian, pozik. Sekretu bat kontatuko niola esan nion, eta inori ez esateko, baina inori ere ez. Hurrengo egunean etxera nindo-  
ala xuxurlatu nion baxu-baxu. Eta beste irribarre bat atera nion ohe zuri hartatik. Zorionak eman zizkidan, etxeratze

hura nire garaipena bailitzan, eta momentu batez, Errege sentitu nintzen. Baina ez nuen dena urre bihurtzeko ahalmenik, ezin nuen Andreu etxera bidali, hilabeteetan ikusi ez zituen gurasoengana. Baina pozik nengoen, ni bederen banindoan. Eta banekien Andreu ere, laster irtengo zela handik, izen arraroko ebakuntzatxo hura egin bezain laster.

“Joan aurretik, hartu ezazu azken ipuin bat” eta bere mesanotxeko tiraderatik hartzeko esan zidan. Hartu nuen, eta oso motza zen, lerro bi baino zerbait gehiago, ez zirudien ipuina ere. “Honetan ez da erregerik ageri, ezta txinatar meloirik ere. Agian orain ez zaizu gustatuko, eta mesedez ez ezazu oraindik irakurri.” Buruarekin baietz esan nion, eta berak berriz ere mesedez ez irakurtzeko esan zidan. “Nagusia zarenean, ispiluaren aurrean egoteak lotsatu eta beldurtzen zaituenean, orduantxe, orduantxe atera orri hau eta irakurri, edozelako ispilu baten aurrean.” Buruarekin baietz egin nion, baita bihotzarekin ere. Zergatia uleretzen ez banuen ere, bere nahia bete egingo nuela agindu nion. Eta elkarri agur-adeu batzuk gurutziltzatuz, gelatik alde egin nuen, orri tolestua poltsikoan ondo gordez.

Arratsaldean hartzainak etorri zitzaizkidan bisitan. Alfonsori aurreko egunean niri ekarritako moduko pelutxeko hartz zuria ekarri zioten, eta honek gustura hartu zuen oparia, amaren marmarren artean.

Ez nuen Doctor Martinekin nuen sekretua apurtu, gurasoei ez nien txintik esan biharamuneko berriaz.

Ez nintzen gehiago ospitalean esnatu. Ez nuen tomate gehiagorik gosaldtu.

Hogei urte geroago, eta beste bost, eta beste zazpi, hainbat urte geroago, aspaldiko partez, egun hartan, malkoak



dutxa azpian ito nituen, haur nintzela bakarrik sentitzen nintzenean egiten nuen bezala. Gero, dutxatik atera, eta biluzbustirik, ispiluari (h)aurrez-(h)aurre jarri nintzaion. Bera ere negarrez zegoen, ispilua. Haren negar lanbroak ongi irudikatzen ez baninduen ere lortu nuen neu ere negarrez nengoela egiaztatzea. Ispiluak beti egia esaten du. Horrexegatik dago hainbeste ispilu puskatu munduan. Orri tolestua zabaldu nuen, eta hantxe bertan, ispilu biluziaren aurrean irakurri.

### *Anaia maitea*

Uribek bere buruaz beste egin zuen ispilu baten aurrean. Aste bi geroago bere anaia bikia atxilotu zuten, autopsiak Uribek ikusi zuen azken irudia bere anaiaren aurpegia izan zela frogatu baitzuen.



# **Herdoildutako izkinek ez dute sentipenik**

Juan Atxutegi Sarrionandia  
El Carmelo ikastetxea  
Amorebieta-Etxano



Bai, Diana, zure atzetik doa, zeuri jarraitzen. Badakizu begiradaz biluzten zaituela, pausu bakoitzean zure izterren forma imajinatuz. Beldur zara, eta pausua arintzen duzu, zure eskizofreniaren sintoma bat izango den galdetuz, baiezko erantzunaz amestuz. Baina zerbaitek ezetz diotsu, gizon horrek dendako atean erabilitako irribarrea ez da sanoa; zeu baino zoratuago dago. Eta pausua arintzen jarraitzen duzu, korrikan hasi nahi ez duzula, nahi baduzu ere. Hankek aurrera egin nahi dute, beldurrak ere bai. Aitzitik, zure itzalaren beldur zara, eta gizon horren arnasketa gero eta hurbilago sentitzen duzu, sakonago. Korrika hasi zara, baina berandu da jada.

Otsaileko erdialdea izango zen, eta beste edozein egunetan bezala, eguzkiak hodeiekin joko zoro bat zerabilen, euria zein beroa ekarri eta eramaten zituena. Une konkretu hartan, espaloiak bustita bazeuden ere, eguzkiaren izpiek gogor egiten zuten gizadiaren gain, garaiz kanpoko distira iraingarria sortaraziz.

Kale luzean hiriko fauna autoktonoaren erakusgarri zabala zegoen: ume parea marrazkiak egiten adreiluzko horma zikin batean; andre zaharrak gora eta behera, supermerkatuan lapurtutako karroak poltsez gainezka; saskibaloian ziharduten lauzpabost gazte; eta beste ehunka gizon-emakume, aipagarriak baina era berean aipaezinak.

Kanpotik ikusita, edozein pelikulatako iruditzat har zenezakeen hura. Azken batean, Harlem zen, New York hiri ezaguneko auzunerik famatuenetarikoa, Hollywood-eko filmetan milaka biderrez agertutakoa. Eta ghetto hutsa bazen ere, noizean behin turistarik agertzen zen handik, galduta, frantziar bikotea, agian espainiar inozo bat, “Hi bro’” esanda ziur zegoena uste zuena.

Baina gaur ez zen horrelako eguna, eta Lexington Avenue-n kolore bakarra zen nagusi: beltza. Azken garaian hiriko aberats berriek euren egoitzak han ezartzen ari baziren ere, beltzek zuten alde horretan botere guztia. Gehiengoa zirelako, eta adibidez, zuriak eurenganako beldur zentzugabea zutelako.

Dianarentzat auzune hura bere erreinua zen, izatez, han mundu guztiko txokoen esentzia zegoan: Afrika? East Harlem-eko hainbat tabernatan, Senegaleko soinuak entzunda; Asiara hurbiltzeko, metroa hartu eta Chinatown-era hurbiltzea baino ez zuen, Pekin zela imajinatu ahal izateko. Ozeania eta Hegoamerikako jendea ez zen falta beherago ere, Bronx, Chelsea, El Barrio-n eta abarretan. Eta Europa... WASP nazkanteek beti izan zuten europarren antza izateko handinahikeria, beraz antzekotasunik izan behar zuten.

154an zegoen, parkearen ertzean, Harlem-en ipar-mugan, konkretuki “WASPs are not welcomed here” esaten zuen kartel handiaren parean. Kartel berean Afrikako arropekin jantzitako gizon bat agertzen zen, jesarrita, lasai, bizitasuna kolore hori eta berdeak ematen ziotela. Eta haren parean, pantera handi bat, haginka egiteko prest, hortzak agerian. Handik igarotzerakoan, Dianak maiz galdetzen zion bere buruari ea nortzuk ziren erradikalagoak, zuriak ala bere familiakoak. Erantzunik gabeko galdera zenez, errepide-a gurutzatu eta zuhaitzen babes zurbilera jotzen zuen.

Azken bi minutuetan kezkatu egin zintuena, gertatu beharrekoa, gertatu egin zen. Jendea zegoen kaleetatik abiatuz jo zenuen etxerantz, Madison Avenue eta 124. bitartean kokatutakorantz, Mt. Morris parkearen aurrealdean. Baina salbamenetik hamar etxe sailalara zegoenean, Saint Philip's elizaren parean, kale nagusia utzi eta hegoal-

derantz jotzerakoan, bakarrik topatu zenuen zure burua. Hamabost milioi pertsona hiri zikinean, baina bat bera ere ez kale hartan. Zu bakarrik. Zeu, eta ordu laurdenez zuri jarraitzen ziharduen gizona.

Egunero bezala, eskolatik irten ostean, auzune osoa gurutzatu behar zuen, eta beti bide beretik joaten zen. Lehenik ibai ertzeraino edo gutxienez handik hurbil, eta gero beherantz, beti aurrera, autoen ibilerari jarraituz. Segurua zen; egia esan, auzune guztia nahiko trankil zegoen azken garaietan, eta amak oinez bueltatzeko baimena orain dela hainbat hilabete eman zion. Gauzak horrela, lasai egiten zuen ibilbidea, paisaia hiritarraz gozatuz, hiru edo lau solairuko etxeak behatuz, leihoen atzealdean zer ote zegoen sumatu nahian, jolasa bailitzan.

Dibertigarria zen, askotan Annie izeneko neska batekin joaten zen, eta ohituta zegoen jada. Ez zuen hiria poeta edo margolariak bezala ikusten agian, ñabardura literarioak ulertzeraz ez zen heldu, baina ohituraren ohituraz hiria maitatzera heldua zen, eta ez zen gauza makala New York-en bizi zen nerabe beltz batentzat.

Gertatu da. Airean ez da heltzen zure birikietara, soinurik ez da ateratzen zure ahotik, siku dagoen aho horretatik. Zure bizitzan behingoz, benetako beldurra sentitzen ari zara. Gizona hurbilegi zeneukan, gauaren pisua sentitzen hasia zinen, eta urduritasunak nahi ez zenuen gauza bat eragin du. Korrikan hasi zara. Eta atzetik, gizonak gauza bera egin du. Begiratu egin diozu, begietara, eta segundo batez baino izan ez bada ere, distira berezia ikusi duzu haietan. Eroen distira. Beldur zara, eta korrikan segitzen duzu, baina ez dakizu nora. Eta urrunean, Financial Town-en, bulegoetako argiak pizten hasi dira. Gauda heltzen ari da, eta korrika jarraitzen duzu.

Baina orain konturatu zara, orain, ez une egokian. Beranduegi. Etxea atzean utzi duzu; ez, ez daukazu irtenbiderik.

Gainera, denboraren kontua ere kontrolpean zeukaten. Eskolatik lauretan irtenik, bostak ingururako etxean zegoen, ilundu baino ordu pare bat arinago. Gauza latzagoa zen neguan, bostetarako ilun egoten zen eta. Horregatik saiatzen zen bere bidea ahalik eta arinen egiten, amak esaten zion bezala, jendea ez baitzen txarra, baina iluntasunaren anonimatuan, hainbatetan, ezustekoak gertatzen ziren. Zer ezuste, ama? –galdetzen zuen Dianak umetan, zazpi urterekin, zortzirekin. –Hobe ez azaltzea, Diana, –amaren erantzun zehatza, elkarrizketa amaitzen duen horietakoa.

Baina New York-en erraz ikasten dute umeeek nola jokatu, azken batean, arau zehatz eta erregularrak dituen joko bat baino ezta bizitza han. Eta Dianak bazekizkien arauak. Zoritxarrez, ez zen aski bakoitza bere bidetik joatearekin.

Eta otsaileko egun hartan, hainbat antzokiren sarreran gelditu zenez gero, bazekien etxera ez zela helduko gaua heldu baino arinago, baina ez zen kezkatzeko arrazoirik, azken batean, ostirala zen, zorroan ez zeraman liburu pare bat baino, zeregin leloak egitekoak. Uhalak askatu, eta neguko egunsenti lasaigarriaz gozatzeko prestatu zen.

Zorroa bota egin diozu, lurrera jausiko zen itxaropenaz, baina salto arin batez jarraitu du aurrera. Pisu gutxiago sentitzen duzu, baina nekatuegi zaude eta edozein momentutan gorputzak ezin izango du jarraitu, hona heldu naiz eta kito, esango du. Malkoak espaloia ukitzen hasi dira, masailetatik jausita, poliki, presarik gabe, plip, plip.

Jausi egin zara, eta bere besoen indarra sentitzen duzu sorbalda bietan. Ez zara garrasi egitera ausartzen. Ingurura begiratuta, dena ulertzen duzu. Izkina bakarti batean zaude,



auto eta metro sarreretatik at, zibilizazioaren erdian, baina mundu basatian galdurik. Eta negarrak amaitu egiten dira, ez duzu horretarako ere indarrik, badakizu zein den zure patua, nahitaez.

Harlem-en behera jarraitzen zuen, ibaitik urrunduz eta Edgecome Avenue-rantz joz. Beti ibilbide bera, denda berak izkina beretan, pertsona berak –edo, gutxienez, antzekoak–; askotan pentsatu zuen ea ote zen interesgarriago gertatuko Broadway-etik jaitea, edo kale-tartetik, monotonia bere bizitzatik ezabatuz.

Baina amak ezetz esaten zion, *arriskutsuegia, inoiz ez, benetan, laztana. Ondo zoaz zure bidetik, leku politik igarotzen dituzu, eta gainera, seguruak*. Eta amaren argudiatzeak erabat konbentzitzen bazuen ere, barne-barnean abentura berriak izateko gogoia, edo ezezagunean barneratzeko, batek daki zer, bide berrietan galtzeko eskatzen zion eskolako atea zeharkatzen zuen bakoitzean.

Bakarrik zaude... ezerezean galduta, Harlem-eko zubia-  
ren azpian, ibaiertzean, zure gainean trenbidea dago...  
Gizona zure belaunetan jesarri da, besoak esku batekin  
gogor mantenduz...

Herdoildutako airea, metal zarata egiten duena, karranka darabilena...

Lurra, zaborrez betea, udazkeneko hosto gutxi batzuk  
han galduta, zeharo ahaztuak...

Biluztu egin zaitu, kolpe bakar batez alkandora apurtuz,  
eskolako gona urrun bidaliz. Neguko haize hotza zure larrua  
kitzikatzen ari da, zure forma umekoietatik abiatuz, zora-  
biatuz, desagertuz. Begiak itxi dituzu, ezin dezakezu jasan  
gizon horren begirada eroa, bere irribarrea.

Eta orduan sentitu egin duzu. Halako batean, min ikaragarria, indarrez eragindako bultzada hotza, eta garrasi egin duzu azkenean, min hotsa bera bakarrik irten da. Zure barretik ihes eginez, laguntza eske joateko asmotan. Baina airean galdu da, trenaren zurrumuruarekin bat eginez.

Etiket hurbil dago, hamar edo hamabost minutuan bertan egongo da. Orain kale amesgarri bat igarotzen ari da, etxe guztiak kolore ezberdinetakoak dituena, pisu batekoak baino ez, hiriari erritmo ezberdina ematen diotenak, hitz gutxitan, leku zoragarri batean. Hemen geldi, eta begiak itxita, etxeraino gelditzen zaizkion hamabost etxe-sailak imajina ditzake, bakoitzaren leihoan egoten den pertsona, ate bakoitzeko katua, denda guztietako ateak. Bere erreinuan dago, bere etxean. Eta sentitzen du inoren lurraldean zoriontsu dela, gutxi behar duela bizitzaz aurrera jarraitzeko, leku mirezgarria baita Harlem, zelan ikusten den!

Kolpe gero eta gogorragoak, azkarragoak. Min handia sentitzen duzu hankartean, negarrez hasi zara berriro, eta eskumuturrak birrinduta dauzkazu, gizonaren pisua gainean baitaukazu, eta amagan pentsatzen duzu, eta eskolako lagunengan. Eta ezertan ere ez, une batez burua bertatik badoalako, agian sinetsi ezin dezakeena kanpotik ikusteko.

Hotzikara bat sentitzen duzu, zure barnean isuritako likido epela, eta badakizu zer den, zer ekar dezakeen horrek. Pentsatu nahiko zenuke, baina ezin duzu. Gizona gelditu egin da, gogor jo zaitu aurpegian, ez duzu ezer ikusten. Zarata bat entzuten duzu, urrunduz, eta gero itzal bat, erai-kin artean galtzen dena.

Etiket hamar etxe-sailetara dago, hotza sentitzen hasi da, gaua hurbiltzen den heinean. Bat-batean, gauza arraroa sumatzen du. Gizon bat bere atzetik doa hainbat minututan,

eta beste bide bat hartzen du, 127an ezkerrera eginez, etxetik aldentuz, baina jende tartean galtzeko asmoz. Etxetik oso hurbil dago, parkeko zuhaitzak ikus ditzake. Baina urduri jarri da, aldentuz... kale tartean galduz... Ez dago jenderik... eta Dianaren atzetik doa...

Negarrez zaude, kaia ertzean, inon ere ez, mundutik at.



# **Puritanical Euphoric Misanthropy**

Manex Berzosa Irastorza  
Jakintza ikastola  
Ordizia



Espaloian eserita zegoen. Bizkarra, beti bezala, paretaren kontra zuen...

Herriko azokara etortzen zen guztietan egiten zuen lez, gazta eta ogi mutur bat jaten ari zen pitxer erdi bat ardo beltzez lagundurik. Ogia eta gazta magalean utzi eta eskuineko eskuaz buztinezko ontzia hartu zuen.

Bat-batean, pitxerraren oreka galdu zuen eta galtzen gainera isuri zuen ardo guztia. Gosez amorratzen zegoen eta, baldarkeria hura zela-eta, bere burua madarikatu ondoren, ogia eta gazta zatia irrikaz eta ahal zuen azkarren jan zituen; bere alkandora zuriaren azpian zeraman larru beltzezko zahato txikia gogoratu zuen, baina ateratzeko prest zegoenean, etxera itzultzeko bide luzeaz oroitu zen eta ardo gutiziatua zetorkion une horretarako gordetzea erabaki zuen.

Bizitza guztia soroak ereiten egindako lanak zutitzeko arazoak sortu zizkion betiko eta eskua jauntxoaren etxearen arrimuan jarri zuen, oinazea lausotu nahian edo.

Zutik jartzea lortu zuenean, bere ingurura begiratu zuen, astero ikusten zuen paisaia hura ez zuela inoiz berriro ikusiko jakingo balu bezala. Bat-batean beltzez jantzi-tako emakume lirain baten atzean bi soldadu ikusi zituen. Garaiak ziren bi gazte haiek, itsasoa ekaitzerako prestatzen ari denean duen kolorea zuten biek begietan eta urre koloreko txima luze distiratsuek fantasiatzko ipuin bateko pertsonaien itxura zutela pentsarazi zioten nekazari giza-joari. Bere larritasunerako, pauso luze eta indartsuz bera-rengana hurbiltzen ikusi zituen bi gizonak eta, beso banatatik hartu eta, hitz bat bera ere esan gabe, jauntxoaren etxera sartzera behartu zuten, irribarre maltzur bat aurpe-gian zutelarik.

Atea zeharkatu orduko, gela izugarri batera sartu zen eta pareta sendo eta lodi haiek guztiak jauntxoak ehizaturiko animalien buruez josita zeudela ikusi zuen. Gelaren erdian, haritzezko mahai baten alde banatan, nekazariak ezagutzen ez zituen bi gizon zeuden: bat bere nagusi zen jauntxoa eta bestea, berriz..., erregea. Jauntxoaren soldaduak eta gupida bako zapalkuntza jasaten zuten nekazariak gaztelauen aurkako gudara gonbidatzera etorria zen isilpean erregea.

Mahaian eserita zeuden bi gizonei jaramonik egin gabe, soldaduek nekazaria kartzelariaren, gazte txima luze baten, esku utzi zuten. Azken honek, nekazaria ilara desordenatu batean une batez itxaroten eduki ondoren, eskailera estu batzuetan behera lagundu zuen; ziegen eta askatasunaren arteko muga bazen ere, nekazariak kartzelariaren indarke-riaren beharrik gabe jaitsi zituen eskailerak. Presozainak ziegetako baten atea ireki zion eta bera bezalako beste nekazari askoren artean galdu zen borroeroak itxi berri zuen gela barruan.

Bitartean, jauntxoa eta erregea, espero zitekeen bezala, akordio batera iritsiak ziren eta batak besteari beren soldaduez lagunduta gerrara abiatuko zirela hitz eman zioten. Hurrengo egunean, jauntxoak bere etxeko atea zeharkatu zuen, guda hartatik sekula ez zela itzuliko sumatu gabe; ate hura, bere etxekoa, izango zen jauntxoak, heroi bezala borrokatu ondoren, hil baino lehen zehar- katuko zuen azken atea.

Kartzelari gaztea ere borrokara joana zen eta hura ere, jauntxoa bezala, ez zen gehiago itzuliko. Era berean, herrixkako nekazari guztiek ere alde egin zuten etorriko zen liskar eta gosearen beldur eta, jana eskuratzeko ahalmenik



ez zuten, infernuko zulo hartan bizirik lurperatutako nekazari presoak bertan hilko zirela konturatu ziren.

Bigarren egunaren egunsentian, herioa noiz etorriko zen zain, ardoz beteriko zahatoa oraindik alkandora azpian zuela gogoratu zuen nekazari txiroak eta bertatik atera zuen bere zoritxarreko gelakideen konpainian bere bizitzako azkeneko tragoa edateko, baina ireki zuenean emakume baldar batek ukondoan jo eta ardo guztia alkandoraren gainera bota zion. Biraoka hasiera zihoan, baina une hartan nekazariak bere ardoa xahutu arazi zion emakumeari erreparatu zion. Ordura arte soto hartan zeramatzen bi egunetan behin bakarrik ikusi zuen nekazariak emakume hura, ziega hartan kartzelariak sartu zuen azken pertsona baitzen, hain zuzen ere. Ez zen oso garaia, nekazariaren ondoran behintzat, eta ikatzaren koloreko ile beltz luzea zeraman. Neskaren aurpegia oso atsegina iruditu zitzaion nekazariari, begi ilun eta handi haiek, sudur txiki eta biribildu hura... Alkandora zuri bat zeraman soinean eta lurrerainoko soineko beltz zaharkitu bat. Une batez nekazariak bere burua ezagutzen ez zuen neska harekin ezkontzen ikusi zuen..., baina bat-batean herriko errementariaren aurpegi zimurra begiztatu zuen presondegiko atearen beste aldean eta, bere mailukaden erritmoak askatasunera itzultzeko itxaropena pizten zion bitartean, honek guztiak garrantzia galdu zuen.

Errementariaren laguntzaz, barruko belztasunak, infernuan baliran, kanpoko argiarekin egin zuen topo, gela ilunari itxura beldurgarria emanaz, baina une hartan dena ahaztu zuen eta alkandoraren bustiak sortzen zion sentsazio tamalgarria ere bere ideien artetik desagertua zen jada...



Espaloian eserita zegoen. Bizkarra, beti bezala, paretaren kontra zuen...

Larunbatero egin ohi zuen lez, garagardo aspergarri horietako bat dastatzen ari zen. Askotan galdetu zion bere buruari noizkoa ote zen orain eroso eserita egoteko eta geroxeago pixa egiteko erabiliko zuen pareta sendo eta zabal hura. Azkeneko aldian, balkoiaren gainean zegoen armariarengatik edo balkoi eta leihoen itxurarengatik agian, printze eta zaldunen garaikoa izan beharko zuela ondorioztatu zuen.

Bere beirazko botilari etiketa kentzen hasi zen; gustuko zuen hori egitea, era honetan garagardoa egiten zuten enpresako langileak lan egoera txarrarengatik greban zeudela ahazten baitzuen eta enpresaburu anker eta gaizto batzuk bere kontura aberasten zirela ez zuen gogoratzen edo, ziu-rrenik, garagardoa bukatzeko zenbat falta zitzaion errazago ikus zezakeelako.

Gutziz botilatik bereizteko bortizki tira egin zion hain ondo itsatsita zeukan paper txikiari eta bat-batean botilak oreka galdu zuen eta gelditzen zitzaion garagardoaren erdia galtza beltzen gainera isuri zuen; beste erdia, berriz, botilaren oreka berreskuratzeko ahalegin batean, Dimmu Borgir izeneko musika taldearen kamisetan eta gerrian zeraman kalitate txarreko “riñonera” Indonesian eginikoaren artean nola desagertzen zen ikusi zuen. Madarikazio batzuk bota

zituen, baina segituan isildu zen, bere ondorioen arabera etxearen jabe zen jauntxoak kartzela bailitzan erabili izan zuen solairuan kokatuta zeuden bozgorailuetatik ateratzen zen soinua entzun bezain laster.



Astean zehar egiten zituen zama-lanak zutitzeko arazoak sortu zizkion betiko eta eskua jauntxoaren etxearen arrimuan jarri zuen, oinazea lausotu nahian edo; bere ondorioen arabera, jauntxoak, heroi bezala borrokatu ondoren, hil baino lehen, zeharkatu zuen azken atea atzean utzi zuen berak ere. Bitartean bateria-joleak, bere makilez charlstona eta bere eskuineko hankaz bonboa izugarritzko indarraz kolpatuz, kontzertuaren hasiera iragartzen zuen.

Gudan hilko zen jauntxoak erregearekin hitz egiteko erabili zuen gelan zegoen orain, eta hau jendez gainezka zegoen; bateria-jolea oker zegoen; han, errege ankerrak eta jauntxo gudariak hainbeste aldiz euritik babestu zituen gela hartan, berak bazekien han zegoen norbanako guztiek 21 euro ordaindu eta jauntxoak ziega bezala erabiltzen zuen solairura jaitsi arte ez zela benetan kontzertua hasiko, orduantxe lehenengo aldiz entzun zitekeen baxuaren burrunbari, bateriaren mailukadei eta gitarraren akorde indartsuei abeslariaren ahots zakar eta sakona ez zitzaizela batuko.

Ondorioz, ilara luze eta desordenatu hartako beste bat izan nahi ez zuenez, garagardotegiko greban zeuden langileen eskaerak ahaztu eta enpresaburu ankerren alde jokatu zuen berriro eta beste garagardo bat eskatu zuen. Hori bai, oraingo honetan, bere kamiseta eta galtzen egoera okerrera joan ez zedin erabaki bat hartu zuen botilan itsatsitako etiketari buruz: bertan geratuko zela, alajaina.

Atezainek kobratzeko zuten abileziari esker, burua jiratu zuenerako ilaran zeudenen erdiak jauntxoaren kartzelan zeuden, jada, eta, azkena iristea gustuko ez zuenez, garagardoa bi tragotan hustu eta, ilara desordenaturik zegoela baliatuz, berak edaria eskatu bitartean itxaroten egon zirenei aurre hartu zien ziegetarako bidean.

Beltzez jantzitako emakume lirain bat zuen aurrean eta, berehala, iritsi zen bi atezainen ondora. Garaiak ziren bi gazte haiek, itsasoa ekaitzerako prestatzen ari denean duen kolorea zuten biek begietan eta urre koloreko txima luze distiratsuek fantasiako ipuin bateko pertsonaien itxura zutela pentsarazi zioten.

Jauntxoak arrazoirik gabe atxiloturiko nekazariak kartzelariaren laguntzaz jaisten zituzten eskailerak jaitsi zituen eta, bateriak iragarritakoaren kontra eta bere ustea baieztatuz, ez zen oraindik abeslariaren arrastorik ageri.

Kontzertua hasi bitartean, beste garagardo hotz bat edatea erabaki zuen. Jende artean, eskuineko besoaz lekua eginenez, bere usteen arabera jauntxoak nekazariak giltzapean eduki ohi zituen gelan zegoen barrara inguratu zen. Bertan lanean ari zen zerbitzariari, gazte txima luze bati, eskatu zion edaria, oraingoan ere, etiketak bertan uzteko erabakia aurrez hartua zuelarik. Gitarren akordeek eta bateriaren eta baxu-jolearen beroketa doinu deskoordinatuek izugarritzko plazer-sentsazioa sortzen zioten bitartean, garagardoa edaten ari zen, baina bat-batean eskaileretan behera zetorren emakume baldar batek ukondoan jo zuen eta botilak barnean zuen likido preziatua kamiseta gainera erori zitzaion. Biraoka hastera zihoan unean, emakumeari erreparatu zion. Ez zen oso garaia eta ikatzaren koloreko txima beltz luzeak zeramatzan. Neskaren aurpegia oso atsegina iruditu zi-

tzaion, begi ilun eta handi haiek, sudur txiki eta biribildu hura... Alkandora zuri bat zeraman soinean eta lurrerainoko soineko beltza. Une horretantxe berak hain gustuko zuen taldearen izenaren gainean garagardoa irauliarazi zion emakumea kontzertu hartara sartuko zen azkeneko nekazari-ari ma zela konturatu zen eta, zirrara bizi-az, eszenatokiko argiak pizten ari zirela sumatu zuen.

Argi gorriek, infernua baliran, argi zuriekin egiten zuten topo, gela ilunari itxura beldurgarria emanez. Bat-batean, dena itzaldu zen eta argi-joko hau gertatzen zen bitartean isilik egon ziren, baxuen burrunbari, bateriaren mailukadei eta gitarra riff indartsuenei abeslariaren ahots beldurgarria batu baitzitzaien. Oraingoan bai!

Une hartan dena ahaztu zuen, kamisetaren bustiak sortzen zion sentazio tamalgarria ere bere ideien artetik desagertua zen jada, Dimmu Borgir-ren bateria-jolearen bonbo bikoitzaren erritmoak, berak zergatia ez bazekien ere, askatasuna berreskuratu zuelako sentazioa sortzen zion; jada ez zion axola etxea noizkoa ote zen jakitea; Jaun Beltzaren erresuman musikak bakarrik axola zuen...

### *Fak Iuesei*



### **OHARRAK:**

- **Dimmu Borgir:** Black Metal egiten duen talde norvegiarra da. 2003ko urriaren 10ean izugarritzko kontzertu aparta eman zuten Bergaran.

- **Puritanical Euphoric Misanthropy:** 2001ean editatu zuten diskoaren izena da eta bertan agertzen den abesti batek ere izen hori hartzen du.

# **Saminaren gatibu**

Olatz Urkia Azurmendi  
Axular Lizeoa  
Donostia





Otsaileko gau hits horietako bat zen. Salto batez ohetik altxa nintzen, ezin nituen inola ere begiak batu, gauero bezala. Leihoa irekia zegoen, gauero bezala eta nire azala zauriz beterik zegoen, gauero bezala.

– Sinisten al duzu jainkoarengan, Sil?

– Esadazu nor den eta erantzungo dizut.

Ilargiari begira egon nintzen, ilargi betea zen, isiltasuna nagusi, airearen soinu ezta entzuten zen bakarrik. Pinu-baso elurtu baten aitzinean zegoen gure etxea, etxe zahar hura. Amona eta biok betetzen genituen gaztelu handi hartako gelak. Isiltasun lasaigarria nagusi zen beti, misterio usaina zerion zirrikitu bakoitzari. Amona ez zegoenean belaz betetzen nituen gazteluko korridoreak, leiho guztiak zabal-zabalik uzten nituen. Kandela haien guztien su-garrek haizearen erritmorat dantzatzeko zuten, egongelako horma garaietan itzalak marraztuz. Ni, argi-dirdiren erdian, ilargiaren azpian etzaten nintzen. Marmolezko mahai beltzean labanarekin marra txuriak marrazten nituen, edo nire kaxa marroi ilun kuttuna ireki eta trippi bat sartzen nintzen, trippi erdi bat, trippi bi..., paranoia ilargi bete munduan sartu eta horrela... zoriontsu nintzen.

Amona etxean sartzen zen bezain laster, misterio-usaina ustel-usain bihurtzen zen, zahar usain. Ile koipetsua bere buru ustelduan zanpaturik, bere jantzi zaharkituak... Bere heriotza-kirats hori, oka egiten nuen ikusten nuen bakoitzean, ahal nuen urrunen egoten nintzen, gorroto nuen bere presentzia. Eta bera... hurbildu egiten zitzaidan! Nik, gau eta egun, zorigaitzoren batek gorputz usteldu hura eramanean zezan eskatzen nion nire erregina ilargiari.

– Sil, gaur zer egun da?

– Igandea.

– Eta zeinen eguna da igandea?

Betiko hitz berberak nazkaturik nindukaten. Gauero bere gelan otoitz egiten, eta nik bere hitz gogaikarriak entzuten nituen. Hamar minutu, ordu erdi, ordu bete! Gauero.

– Isilduko al zara behingoz!

– Zeure gurasoak nire gidari eta zaindari den jaungoiko ahaltsua ez sinisteagatik eraman zituen malariak.

– Egun hauetako batean zeu ere hilko zaitu zerbaitek-gorroto nuen nire gurasoak aipatzea. Erre egin zuten ama, sorgina zela zioten, eta aitak bere buruaz beste egin zuen. Zainak moztu eta gazteluko paretak bere odolaz marraztu zituen. Jendeak dioenez, gaztelua madarikatua zegoen. Aitak bere burua hil baino lehen ni elizan utzi ninduen, sehaskatxo txiki batean. Andre zahar batek aurkitu ninduen, orain amona deitu behar diot. Gurasoek oinordekotzan niretzat utzi zuten gaztelura joan ginen bizitzera. Bakardadea izan da betidanik eta betiko nire konpainia bakarra. Andre honek inoiz ez zidan maitasun-izpirik ere eman. Berak zioen bezala, nire salbatzailea izan zen, arima garbia berea, Kristoren zerbitzari; izan ere, patua erratua zuen neskatxa bati bizitza bat edukitzeko aukera eman zion. Eta behin eta berriz hitz hauek errepikatzen zituen, berberak, egunero. Eta ozenki esaten zituen, jainkoak entzun zitzan. Bai, jainkoak ikus zezan nola hartu ninduen berekin sei hilabete besterik ez neuzkan egunean. Jainkoak bere arima on horietako bat zelakoan berarekin zerura eraman zezan. Zerura! Puta-kume gaixoa.

– Sil, zer egun da gaur?

– Igandea.

– Eta noren eguna da igandea?

– Bai, amona, bai, gaur joango naiz elizara, baina isil zaitez behingoz.

Elizara sartu nintzen, baina berandu, ez meza-orduan, zortziak inguru ziren, eta jada ilargia nagusi zen zeru ilunean. Atzo odol-malkoz negar egin nuen, gaur hilik nago eta bihar berriz esnatuko naiz. Harrizko pareta handiak begiratzeko aritu nintzen. Harriaren gainetik aingeru hegodun otsoak zeuden, eta koadroetan aingeruak su-garren artean kiskaltzen. Beren garrasiak entzun nituen, neure gurasoenak, belarriak babestu nituen. Alde batera begiratu, eta amona zahar bat ikusi nuen erretratzen. Hurbildu egin nintzen, bere hitzak entzun ahal izan nituen.

– Jaungoiko maitea, zeruetan zarena, maita itzazu arima garbiak, bidal iezaiozu laguntza...–segundo batean isildu egin zen, begiratu egin zidan, erre egin ninduen bere begirada hark. Berriz lurrera begiratu zuen eta hitz egiten jarraitu zuen.

– Eta eraman itzazu su garretara bakea eta maitasuna gorrotoz zikintzen dituzten arima ilunak...–berriz begiratu zidan –maita dezagun jaungoiko gorena– xuxurlatu zidan. Gehiago hurbildu nintzaion eta ttu egin nion aurpegian.

Gaztelura itzultzean, amonak esan zidan nire arropa eta gainerakoa biltzeko, bagindoazela gaztelutik. Hirian pisu txiki bat lortu zuela eta hara gindoazela. Ni zeharo harriturik geratu nintzen, hasieran ezin nuen ulertu, ezin nuen imajinatu gazteluan ez bizitzea. Maitatzen nuen bakarra zen, misterio eta esanahiez beteriko paretak, inguruko pinu baso elurtua, bakardadea... ilargiaren azpian. Maitatzen nuen bakarra zen, nire gurasoen arimen bizilekua.

– Zergatik?!

– Gaztelu hau madarikaturik dago. Mugi, azkar, orain azkenean leku garratz hau betiko ahazteko aukera daukagu, goazen.

– Ni ez naiz hemendik joango.

Amonak ez zidan jaramonik egin eta presaka bere arropa zahar eta kirasdunak poltsa batean sartzen jarraitu zuen. Berari seriooki begiratzeko geratu nintzen, puta zahar hark nire gurasoen arimengandik urrundu nahi ninduen. Halako batean, bere jarduera gelditu eta begiratu egin zidan.

– Ea, Silvia, zertan ari zara? Oraintxe joango gara, hirirako autobusa laster pasako da hemendik.

– Ni ez naiz hemendik joango.

– Zer diozu, ez esan txorakeriarik, mugi, egin ezazu maleta– berriz berean jarraitu zuen, niri jaramonik egin barik. Ni, lasai, bere parean zegoen sofa beltzean eroso eseri nintzen. Bazirudien ez ninduela ikusi ere egiten, gardena banintz legez, noski, ni berarentzat ez bainintzen ez pertsona ez arima, soilik Kristoren maitasuna lortzen lagunduko zion objektu hutsala. Puta-kumea! Bere gauzak prestatzen bukatu zuenean, berriz hitz egin zidan.

– Silvia! Mugi zaitez!

– Esan dizut, ez naizela gaztelutik joango– lasai esaten nituen hitzak, serio, monotonoki, beti bezala. Oraingoan, serio hartu ninduela zirudien.

– Gaztelu hau madarikaturik dago.

– Gaztelu hau nire gurasoen arimaz gelditzen den bakarra da– irribarre hil bat luzatu zidan, nazkagarria, zeharo faltsua.

– Sil... zure gurasoak hilik daude. Zin dagizut hemendik aurrera gauero beraien alde errezatuko dugula. Maita dezagun jaungoikoa. Ziur bere zintzotasunak barkatu ahalko diela arima ilunei ere– irribarre egin nuen. Ez nuen amorru handirik sentitzen. Guztia nahiko simple ikusten nuen momentu hartan. Aizkora batekin buru erdian golpe bat, nahikoa izan zen hezur ustel pilo hura betiko ahaztu ahal izateko. Hotza izan zen dena, ez nuen amorrurik sentitu, ez gorroto, ez urduritasun, ez tristurarik. Ezertxo ere ez. Gorpua etxetik ahalik eta urrunen eraman nuen eta bertan utzi nuen, galdurik. Ez zidan axola norbaitek aurkitzea. Nahi nuen bakarra, neure gaztelua andre zahar haren odolak ez zikintzea zen. Gaztelura itzultzean, lasaitasun handia sentitu nuen, hemeretzi urte haietan ez nintzen hain ongi sentitu inoiz. Gau hartan bai, nahi nuen guztia neukan.

Hurrengo gauean gaztelutik atera nintzen, basotik buelta bat eman nahi nuen, pinu handi elurtuen artean arnastendean aire berezi hori arnastu nahi nuen. Azala elurrak lantzantzen zidanean sentitzen nuen hotz atsegingarri hura sentitu nahi nuen berriz. Etzanda nengoen gorantz begira, ilargi beteak ikus nezakeen. Alabaina gau hartan ilargia..., ilargiak tristura islatzen zuen. Harriturik begiratu nion. Halako batean, bi puntu gorrik ilargia goitik behera zeharkatu zuten, bere soineko zurian bi marra misteriotsu gorri ageri ziren. Izaturik, ulertu nuen. Bi malko gorri ziren, tristura eta heriotza. Neure barruko zerbaitek gaztelura berehalakoan joan behar nuela esaten zidan. Salto batez altxa eta korrika hasi nintzen, tertziopelo txuriz jantzitako zuhaitzen artean.

Isiltasuna gau hartan ere nagusi zen, soilik airearen kantua entzuten zen, eta nire pauso azkarrek indarrez zapaltzen zuten adaska elurtuen soinua. Inoiz ez bezala lasterka aritu

nintzen gau hartan, nire ile luze beltzek airea mozten zuten bitartean. Pinuen adarrek aurpegi zuria zauritzen zidaten. Nire begi urdinetatik irristatzen ziren malkoak, odol tante-kin nahasten ziren. Gaztelua hurbil zegoen jada. Ikusi nuen, segundo batez gelditu egin nintzen. Arnasestuka, gaztelua irensten ari ziren su gar handiak begiztatu nituen. Berandu zen, berandu jainkoari barkamena eskatzeko. Gau hartan harrapatu egin ninduen eta zigortu. Garrasika gaztelura hurbildu nintzen. Jainkoak neure gurasoen arimak berriz erre zituen, ez ninduen ni erre nahi. Gaztelura sartu nahi nuen baina ezin nuen, haize indartsu batek neure bizitzako ateak irekitzea galarazten zidan. Eta bitartean su garrek dantzan zirauten, nire uluen erritmora, nik maita nezakeen bakarra hilez. Ateak ireki eta sartzen saiatu nintzen, nik ere heriotza ezagutu nahi nuen, bil ahal nitzakeen indar guztiekin, errenditu arte. Lurrera jausi nintzen, nire etxearen ate nagusian egon nintzen, gurasoen arimen garra-siak entzuten, belarriak eskuez estali nituen, baina hala ere, mina eta agonia entzuten jarraitzen nuen, neure buru barruan, behin eta berriz.

Hurrengo goizean, gaztelua, harri zahar piloa besterik ez zen, eta ni bizirik nengoen. Suak ez zidan ezertxo ere egin, eraikuntzaren harriek ez ninduten txikitu, bizirik nengoen. Orain neure etxea basoa da. Baina orain ez dut elurraren hotz atsegina sentitzen, etengabeko hotz mingarri hau baizik. Pinu-adarrek etengabe zauritzen naute eta ilargia ezin dezaket ikusi, zuhaitzek zerua estaltzen dute. Orain neure laguna ez da bakardadea, azken hatsa baizik. Neure buruaz beste egiten dut gauero, baina badakit hurrengo goizean berpiztuko naizela atzera.

Horixe izan da nire zigorra, desio dudan bakarra heriotza da eta betiko bizitzera kondenaturik nago.

– Sinisten al duzu jaungoikorengan, Sil?

– Bai.

Hau da zuek miresten duzuen, hau da zuek maitatzen duzuen.

Zergatik zigortu nauzu hemen heriotza inoiz ez eza-gutzera, zergatik ez didazu uzten aingeru-hegoak dituen otsoa izaten. Zergatik ez didazu uzten gau ilunetan elurra-ren gainean eta ilargiaren azpian bakarrik ibiltzen. Ilbehe-ran haize leunarekin lokartzen. Ezerk ez du hau aldatuko, ezerk ez dit lasaitasuna ekarriko, jainkoa baita erregea, zigorraren erregea.





# **Antipodetako bikia**

Izarne Oiarzabal Santiso  
Ondarroa-Lekeitio institutua  
Ondarroa



Oi Lur, oi Lur,  
Nor da zure maitalea?  
Nork birarazten zaitu?  
Norentzat janzten lorez udaberrian?

Badakit Eguzkia dela nor hori,  
berak birarazten zaituela,  
berarentzat janzten zarela lorez udaberrian.

Baina zer egingo duzu orain,  
badakizunean  
ez zarela bere bihotzaren jabe bakarra?

2053. urtean Lurrean sekulako ezustekoa jazo zen.

Apirilaren 3a zen larunbat hartan. Nakari lo seko zegoen, sofan etzanda, ahotik listua zeriola. Eskuin hanka eta besoa zintzilik zituen, ez baitziren sofan kabitzen bere loditasunagatik. Eskuin eskuak gogor eusten zion oraindik kristal-likidozko telebistaren mandoari, konturatu gabe botoi bati sakatu eta albiste-saioen kanala agertu zen pantailan. Sekulako berria gertatu zen, bistakoa zen dei eta mezuak borborrean ari zirela heltzen, aurkezleei egiten zizkieten mozketak asko baitziren, baina inork ez zuen, antza, bertsio zehatza. Bidalitako hainbat korrespontsalekin konektatzen zuten, baina inork ez zekien zein zen gertatzen ari zenaren egia zehatza. Kanpoan bizitzen ari ziren egoera deskribatu besterik ezin zuten egin eta, egia esan, kontatzen ari zirena guztiz sinesgaitza zen.

Nakariren sat uhinezko mugikorra deika hasi zen, bera bat-batean esnaraziz. Sekulako sustoa eman baliote bezala, erreflexuz alboetara begiratu zuen nahiz eta jakin etxean bera eta bere itzala bakarrik bizi zirela. Non zegoenik ere jakin gabe mekanikoki ordulariari begiratzeko keinua egin

zuen baina ordua ikusi baino lehen mugikorraren bila joan zen, beretzat denborak zuen balio pobrea erakutsiz.

Abeduh zen, unibertsitateko bere adiskidea, beste aldean zegoena. Albisteak ikusteko eskatu zion Nakariri eta berehala bera kazetari bat balitz bezala gertatzen ari zena kontatzen hasi zitzaion, oso azkar eta irrika biziz. Nakarik ez zuen hura entzuteko umorerik, gainera eskubiko hanka txingurritu egin zitzaion zintzilik eduki izanaren ondorioz. Horrek sortu zion haserreaz mugikorra bere lagunaren hitzak zurrumurru suabe bat ziren tokian laga zuen. Utzi gabe zuen mandoarekin kanala aldatu zuen dirua irabazteko programa inozo horietako bat ikusteko asmoz, baina hor ere albistegia zegoen. Berrito beste botoi batekin saiatu zen baina alferrik, guztietan albistea ageri zen. Larrialdi baten aurrean balego bezala botoi guztiak ziztu bizian sakatzeari ekin zion baina ezinezkoa zitzaion berriei ihes egitea. Azkenean arreta pixka bat jarri zuen eta gertatutakoaz jabetzean, eskua ahora eramane zuen mandoa lurrera erori araziz. Zur eta lur geratu zen, gatzitutako bakailoaren antzera.

Telebista milaka irudi eta hitz jaurtitzen, laguna mugikorretik gelditu gabe berbetan, Nakari egongelaren erdian geratu zen mandoak lurrean jarraitzen zuelarik.

---

Soyo doktorearen egunerokotik:

*2052ko azaroaren 21a.*

“... Mila kontu bururatzen zaizkit eta lanean hasteko beharra izaten dut, burua borborrean dudala, eduki guztia plateretan ganoraz zerbitzatzea gustatzen zait. Bestela, zopa guztia irauliko zaidan sentsazioa izaten dut eta behin iraulitakoa burmuineko mila hoditxoetatik sakabanatu ondoren ezinezkoa da gero osorik biltzea...”

Mundua hankaz gora geratu baino zazpi urte lehenago, hau da, 2046. urtean, Soyo, fisika unibertsalean dokortua zen zientzialaria, bere laborategian zebilen, lanak zurrupatuta, denboraren erreferentzia zeharo galdua, goizeko 02:00etan.

“Ea, Lurra Eguzkiaren inguruan ibilbide eliptiko bat trazatuz higitzen da, Eguzkiak egiten dion erakarpen-indarraren eraginez. Berdin gertatzen da Ilargiaren eta Lurraren kasuan ere. Erakarpen-indarra elementuaren masaren arabera denez, masa handiagoa izanda, erakarpen-indar handiagoa sortzen du, horrela, bera baino masa txikiagoko elementuak beregana bultzatuz. Ongi, grabitazio unibertsalaren legea honako hau izanik:  $F = -G \cdot \frac{m^1 \cdot m^2}{d^2}$ , noski! Gizakiak sortzen duen erakarpen-indarra erabil dezaket leku batetik bestera mugitzeko!”

Idea hura bururatu zitzaionean ordea ezin zuen imajinatu horrek ekarriko ziona eta zuena. Gertaeraren ondorengo 2053. urtera bueltatuz...

Munduko herrialde guztien ordezkariak Australian bildu ziren, ziur aski historiako biltzarrik larrienean.

Berbaldiak luzeegiak ziren, guztiek zuten zeresana eta ez zegoen gordetzerik haien aurpegiez jabetu zen kezka sakona. Hitzaldien eta kezkaren neurriak ia infinituak ziren berehalako erantzun bat behar zuen arazoaren aurrean.

Arazoaren atzean beste zulo bat zegoen, urteetan zehar galduz joan zen entzuteko gaitasuna, ez zeuden besteek esaten zutenari adi, ezin ziren komunikatu eta honek egoera larritu baino ez zuen egiten. Bakoitza bere interesak defendatzen saiatzen zen, nahiz eta benetako arazoa herrialdeen gaineratik egon eta arazoa komuna eta denentzat berdina izan.

Egia, ordea, itzaletan gorderik, hitzez eta hitzaldiz erakitako antzoki eta aldi berean armarrria zenaren bestaldean zegoen eta oso ximplea zen, ez zekiten zer egin, ez zuten ideiarik ere zeren aurrean aurkitzen ziren, oihanean galdutakoitsuak ziren.

Ez zekiten zein jokaera hartu. Besoak zabaldu ala distantzia mantendu? Beraien barruko botere grina ezagututa, ez al zuten besteek ere zerbait zikina pentsatuko? Zenbaterainoko konfiantza komeni zen ematea?

Gizakia gizakiaren aurrean, “berarekiko” zein jarrera mantendu ezin jakinda. “Geu” gara, nola “geure” buruari ziria sartu, nola geure etorkizuna “geu” garen eta ezagutzen ez dugun izaki horren esku utzi inolako garantiarik gabe, zer gertatuko zaigun jakin gabe.

- “Badaezpada hobe izango da geuk ematea lehendabiziko urratsa, geu ustekabeen harrapatu eta beranduegi izan baino lehen.”

---

Soyo doktorearen egunerokotik:

*2054ko urtarrilaren 8a.*

“...Ukitu gabeko lurraldeak miatzea gustuko nuen, hain zuzen ere ikusezina den zientzien munduko baso eta itsaso misteriotsuak. Orain arte bakarkako esploratzailea izan ohi naiz, baina egun nire erruz munduko izadi osoa ezusteko xake-partida bat jokatzen jarri dut.”

Globalia Entziklopedian argitaratutako informazio gehigarria:

**Energia Akustikoa:** Entz.: 2047. urtean Soyo fisikariak aurkitu zuen energia-iturri berria da. Hotsek eragiten duten uhinaren indarra, menbrana edo mintz bat bibrazten duten

sentsore batzuen bidez jasotzean datza. Mintz horrek motorea kolpatzean, hau martxan jartzen du eta honek aldi berean iman bat inguratzen dagoen bobina higiarazten du. Energia-iturri hau guztiz zabaldu da, XX. Mende bukaeran aurkitutako energia agortezinen gainetik kokatu delarik bere sinpletasunagatik eta batez ere bere ezinbesteko faktorea, hau da, zarata, edonon aurkitzen delako. Duda barik energia honek jarraian etorri zen iraultzari bide eman zion. Izan ere Soyo doktoreak, energia akustikoa mundu guztian hedatu baino lehen, gizakien arteko erakarpen-indarren bidezko garraioa gauzatzeko behar zuen argi-indar kantitatea lortzeko erabili zuen. Ordura arte ez zegoen Lurrean horretarako behar haina energia, eta ideia hura burutzeko bere burua bestelako iturri bat aurkitzera behartuta ikusi zuen. Ikus. Erakarpen-indarren garraioa.

---

Nazioarteko biltzar hartan ez zutenez ezer garbirik aterra, eta giroak, tentsioaren tentsioaz, erupzioan hasteko zorian dagoen sumendia zirudienez, Soyo doktorea Auzitegi Gorenera eraman eta galdeketa bat egin zioten, aitorpen judizial bat egiteko. Errudun bat seinalatuz, presioa bere gain utzi eta aldi berean beraien kontzientzia arintzeko asmoz-edo.

- Egia baino ez duzula esango zin dagizu?
- Bai, zin dagit.

”Hara, buruan nuen fantasia hark guztiz bereganatu ninduen eta ekinean hasi nintzen. Hori lortzeko ez nuen, ez, etsai makala aurkitu, Lurra bera, bere osotasunean, bere  $5'98 \cdot 10^{24}$  kg-ko masaz. Guztiok sortzen dugu erakarpen-indar bat, bai, baina ez dugu inolako eraginik ikusten, gure azpian gu guztiok baino askoz

masa handiagoa duen gorputza baitago, Lurra. Masa honek grabitatea deritzogun erakarpen-indarrak sortua den pisua ematen digu. Horregatik, Lurra berdintzeko, izugarritzeko energia kantitatea behar nuen. Beraz, hori nondik atera zen kezka. Munduan aurkitzeko zailena zer zen pentsatzen jarri nin-tzen eta hara! Isiltasuna zen zera hori. Orduan konturatu nintzen dena zaratak inbadituta dagoela eta hotsen inperioan sartu nintzen nire ametsaren atea zabalduko zuen giltza aurkitzeko.

- Begira, Soyo doktorea, ez zaigu axola zer bideratu zuen hau eta gutxiago nola gertatu den, ez baikara zu ez zure koadrilako zientzialari ero horietako bat. Goizeko laurak dira eta labirinto honen irteera aurkitu nahi dugu.
- Baina argia aurkitzeko, iluntasuna ezagutu behar da. Non gauden jakin behar dugu, testuingurua ik...
- Joder! Nahikoa da! Ez hasi orain kontu filosofikoe-kin. Zure erruagatik begira nola gauden! Zure kezka izan beharko litzateke, zientzialari madarikatu hori!
- Aski da, fiskal jauna! Guztiok gaude berdin baina haserretuz eta madarikazioak botaz ez da ezer konpontzen. Utzizu Soyo doktoreari beharrezkoak ikusten dituen azalpenak ematen.
- Eskerrik asko. Ba, nioenari jarraituz, behin energia nahikoa izandakoan, buruan nuen proiektuan buru belarri murgildu nintzen. Ia egun osoa laborategian ematen nuen eta ez nuen beste ezertan pentsatzen. Konturatu gabe burmuinean laborategi birtual bat eraiki nuen irudimenarekin. Ezin nion “off” eman



neure buruari, balaztagailurik gabeko auto baten antzera nengoen.

“Hainbatetan probatu nuen ingrabitazio-gela batean esperimentua. Azken batean asmakuntza nahiko ximplea zen. Elkarri konektaturik eta ingrabitazioz berera zeuden burbuila bi ziren. Batean, briefier baten bidez burbuila barruko masa kalkulatu eta horren proportzionala zen energia bidaltzen zen bigarren burbuila hemen-go masak betetzen zuen espaziora gehituz. Horrela, A esfera, B-k eragiten zion indarragatik hurbildu egiten zen. Ez zen oso praktikoa baina pausu bat zen.

Hala eta guztiz ere gehiago behar nuen, eremu grabitatorio batean gertatzen zena ikusi behar nuen. Azken urteetako lorpen guztiak pokerreko partida bakar batean arriskatu behar nituen. Guztia prest neukan eta transformatzailea martxan jarri nuenean energia gehiegi hasi zen isurtzen, ezin nuen geldiarazi. Orduan ezin bururaturikoa gertatu zen, ezinezkoa zena: NASA-ko sateliteek Lurraren antzeko tamainako ASTRO bat honantz HURBILTZEN detektatu zuten. Zorionez, akumuladoreetako energia PLANETA BIEN TALKA gertatu baino lehenago agortu zen. Jarraian inteligentzia sekretuko agenteek hartu eta hona ekarri ninduten.”

---

Soyo doktorearen egunerokotik:

*2053ko otsailaren 14a.*

“Burutik jota al nago? Zerbait badut bestela ez nintzen paper puska bati hizketan egongo. Egia esan, beste lagun bati entzutea energia gehiegi gastatzea iruditzen zaion per-

tsona batekin egotea baino hobe da. Norberarekin elkarrizketa bat izatea moduan da, irudi simetriko baten antzera, ispiluaren aurrean banengo bezala nire mugimenduak guztiz ongi interpretatzen dituen lagun batekin.”

---

Aurkikuntza harrigarri haren ondoren milaka ikuspuntu eta jarrera kaleratu ziren. Zientzialariak txundituta, politikariak larrituta, berriz ere munduaren bukaera iragartzen zuten batzuek, sekta eta erlijio berriak sortu zituzten besteek...

Gerora egin ziren ikerketek aho ezjakin asko isildu zituzten. KAHARE eta LURRA, planeta biak, orbita berean zeuden; masa eta bolumen berdina zuteneguz, Eguzkiak eragin berdina egiten zuelako. Baina polaritatea ere berbera zuteneguz, elkarrengandik aldentzeko joera zuten bata bestearen ANTIPODAK balira bezala, ahalik eta urrur-nen mantenduz.

Ondorioz, faktore fisiko berdinen pean zeuden eta horrek planeta bietan antzeko habitatak sortu zituen, aldi berean, antzeko izakiak agerraraziz.

Unibertsoan, lurretik aparte ere, bizia zegoela jakin genuen, modu bitxian, eta bizidun horiek auzokoak genituela.

Lehendabizi, satelite espioiak bidali ziren Kaharera. Beraien planetaren inguruan zabor espazialik ez ikustean, Lurra baino atzeratuago zegoen planeta zela pentsatu zen, gainera oraindik ez genekien biztanlerik bazegoen eta hau honela izanik, zer nolako itxura eta izaera izango zuten ere misterioa genuen.

Hilabete batzuen buruan, ezustean, Lurraren atmosfera objektu arraro batek gurutzatu zuen. Kaharetarren bideo-mezu bat zekarren barnean, bertan gure tankerako gizakiak azaltzen ziren.

Honen aurrean teoria berri bat sortu zen:

**Bakteriozionismoa:** Entz.: Teoria honen ustez gizaki eta animalia guztiak tamaina handiko bakteriak besterik ez dira. Hasiera batean bakteriei izaki mikroskopiko deitzen zitzairen. Hauek ura eta elikagaiak zeuden tokietan sortzen edo agertzen dira eta ugaritzen joaten dira. Honen adibide dugu *lizuna*. Bakteriozionismoak dio guk ere bakterien jokaera berdina dugula eta, ondorioz, bakteria garela; eboluzioaren bidez handitu eta eskala handiago batean egiten dugulako bakterio mikroskopikoen eragina. Ezin daiteke azaldu bestela, nola litekeen antipodak diren eta beraz inoiz kontaktuan egon ez diren planeta bitan izaki berdinak egotea. Ezaguna da oso, teoria honen defendatzaile nagusia izan zen Halbrey doktorearen esaldia: “Espazioan galdutako bakterio inozo batzuk baino ez gara.”

---

Lurraren antipoda aurkitu zela ikustean, Nakariri kostatu egin zitzaion bizitzen ari zen historia ez zela fikziozkoa sinestea. Are irrealago gertatu zitzaion aurkikuntzaren eragilea Soyo zela entzutea. Bere irakaslea!

Artean soinean zeraman pijama erantzi gabe, kalera irteteko berokia hartu eta laster batean abiatu zen unibertsitaterantz.

---

“Erakarpen-indarren bidezko garraioa” proiektuaren memoria:

- Proiektua eta bere helburua aurkeztu zaie unibertsitateko ikerketa taldeko ikasleei.
- Helburua: erakarpen-indar artifiziala sortzea, pertsonak garraiatzeko.
- Garraio honek egungo gailuak ordezkatzeko lituzke.

- Unibertsitateko ikerketa taldekoek utopikotzat jo dute, baina aurrera egiteko prest agertu dira.
- Inbestigazio eta esperimentazio faseen txanda da.

Nakari kanpusera heldu zenean, bere ikaskide zirenekin elkartu zen; batzuk, bera bezala, pijama eta guzti. Abeduh ere han zegoen.

Guztiak helburu berarekin joanak ziren: Soyo aurkitzea.

Denek zekiten deskubrimendu hark zerikusia zuela eurek bost urte lehenago hasitako proiektuarekin (erakarpen-indarren bidezko garraioarekin), eta azalpena entzun nahi zuten irakaslearen ahotik.

Soyo ez zen ageri. Gerora jakin zuten Auzitegi Gorenean zegoela gertatu berri zenari buruz argibideak ematen.

Irakasle faltan, ikasleak jarri ziren zientzialarien lekuan eta teoria, eztabaida, arrazoi... propio ugari eman zituzten argitara. Egun batez, sentitu zuten zerbait benetan garrantzitsua egin zutela eta egiten ari zirela. Ahaztezina zen zerbait. Espazioan egongo balira bezala, ez zuten pisurik ez gorputzean ezta buruan ere. Hainbeste ideia eta esperimentu berri elkarren gainean pilatzen ziren sortu berri zuten galaxian.

---

“Erakarpen-indarren bidezko garraioa” proiektuaren memoria:

- Ingrabitazio-gelan masa txikiko objektuen garraioa lortu da.
- Gela normalean ez da posible erreakzio hori lortzea Lurraren eragina ekidin ezina delako eta hau berdintzeko behar beste energiarik ez dago planeta guztian.

- Arazo honi irtenbidea aurkitzea ia ezinezkoa da. Energia akustikoa?
- Proiektua bertan behera uztea planteatu da.

Kahare eta Lurra, nahigabe elkar aurkeztu zirenetik Soyoren proiektuak indar eta entzute zabal askoa lortu zuen, jende gehiago interesatu zen eta dirulaguntza ugari jaso zituen. Honek proiektuaren abiadura bizkortu zuen eta aurrerakuntza nabariak lortu zituzten.

“Erakarpen-indarren bidezko garraioa” proiektuaren memoria:

- Energia akustikoa baliagarria da eta lanek aurrera dihardute.
- 3 tonako masa bat 1 kilometro mugitzea lortu da.
- Ondoren 3 tonei, 50 bidaiari gehitu zaizkio eta distantzia berdina egiteko 800 Gw gehiagoko potentzia behar izan da, pertsonako batez besteko energia kantitatea neurtu ahal izan dugularik.
- Proiektuaren martxa ezin hobea da.

Soyo doktorearen egunerokotik:

*2062ko apirilaren 3a.*

“Batzuetan uste dut hobe dela egia ikusi gabe gezur batean bizitzea. Gainera gezurrek ez dute zertan txarrak izan, ipuinak dira azken batean eta sarritan pozago bizi gara geure erdi erreal, erdi fikziozkoa den munduan, errazago eta pozago egiten zaigu. Ez dakit, zorionez edo zoritxarrez, baina beti dago norbait ilargiaren aurpegi ezkutuari begirada bat emateko prest. Nik behintzat atzera bueltatzeko aukera izango banu argi daukat berriro ere gauza bera egingo nukeela.”



## **Ulertu ezinean**

Leire Telletxea Martiarena  
Talaia institutua  
Hondarribia





Goizero jaiki eta erruki-etxeko leiho ilunetik behatzen du egunsenti mugagabea. Haize hotzak bere aurpegi leuna laztantzen duen bitartean, gogoetek urrutira eramaten dute bere arima. Galderak sortzen zaizkio bata bertzearen atzetik eta erantzunak, ordea, ezin ditu aurkitu bere indar osoz bilaka aritu arren. Bere inguruan kolore beltza ikusten du, mendiak beltzak, errekek beltzak, leihoa beltza... eta bere bizitza ere beltz ikusten du. Begiak itxi eta ohera itzuli nahi du, bera gorrotatzen duen mundu horretatik ihesi. Baina ezinezkoa da, hori baita errealitatea, eta gogoz kontra bada ere, leihoaren bertze aldetik agurtzen ari zaion egunsentiari egunonak ematea bertze erremediorik ez zaio gelditzen.

\* \* \*

Euriak indartsu mehatxatzen zituen inguruko errekek, hori da egun mikatz horretaz gehien gogoratzen dudana. Automobila garajetik atera eta bertan sartu ginen attatto, amatto eta hirurok. Nora gindoazen galdetu nuen, ezin nuen eta ulertu zer egin genezakeen eguraldi txar horrekin gaueko ordu horietan.

– Etxe batera goaz Sara, lagun batzuengana.

Erantzunak ez ninduen gehiegi bete, baina tira, beraiek jakingo zuten. Orduan bospasei urte izango nituen eta, normala den bezala, ez nintzen neure buruaren jabe. Zentzuzko hitzak doi-doi ateratzen ziren nire ahotik, izan ere, ttikiegia nintzen behar bezala pentsatu eta solastatzeko. Hala ere, ulermen arazo handiegirik ez nuen izaten eta horrexengatik utzi ninduen nahiko ahozabalik erantzun hark.

Bidea luze xamarra izan zen, nire liburuko bederatzi hartz margotzeko astia izan nuen eta. Ez genuen kotxe

aunitz gurutzatu, bazirudien eguraldi harekin errepidean ibiltzeko gai ginen bakarrak geu ginela. Ingurua ez zitzaidan ezaguna egiten eta deseroso sentitzen nintzela aitortu beharra daukat. Attatok eta amattok ez zuten gehiegi solastatzen etxe txuri handi baten parera iritsi ginen arte. Orduan bai, orduan elkarri hitz isilak zuzendu zizkioten eta nik ezin izan nuen ezertxo ere aditu. Bidaia luze hark nahiko nekatu ninduen eta autoan lo seko gelditu nintzen hamargarren hartzaren eskuineko belarria margotzen ari nintzen bitartean.

Argitasun handi batek atera ninduen nire ametsetik. Ametsa zoragarria zen: baso berde batean nengoen bederatziz hartzekin jolasean. Basoan ortzadarrak zeuden, baita ur-jauzi gardenak eta iturriak ere, eta denekin batera paradisuari sentitzen nintzen. Paradisutik infernurako pausoa eman nuen begiak irekitzerakoan, nire aitzinean nuena ez baitzitzaidan batere gustatu. Pareta guztiak txuriak ziren, erietxe batean bezala, eta haurren negar hotsa aditu nuen. Amatto besarkatu behar nuela sentitu nuen, nire besoetan artean estutu, bere masailak musukatu, baina hor ez zegoen nire amatto. Ezta nire attatto ere. Nire ingurura begiratu eta ni bezalako haur mordo bat ikusi nuen, baina ez ziren nire herriko parkean jostetan ibiltzen ziren haur zoriontsu horiek bezalakoak. Hauek begirada urrunean galdua zuten, infinituan, eta beraien ahoak ez ziren irribarre ttikiena ere egiteko gai.

Amatto! Attatto!

Isiltasuna izan zen nire galderaren erantzun bakarra. Haur guztiek begiratzen zidaten, sentimendurik gabeko begirada hotzak jaurtiz. Segundo batzuez pentsatu nuen oraindik ametsetan nengoela eta ametsa amesgaizto bilaka-

tu zela. Eta hartzak haur bilakatu zirela. Baina ez, ez nengoen lo eta nire adimen ttikia ez zen egoera tamalgarri hari erantzun bat bilatzeko gai. Halako batean, norbaitek atea ireki zuen eta itzal handi bat ikusi nuen paretan islaturik. Emakume handi bat sartu zen jarraian, goitik beheraino beltzez jantzita, eta nire inguruko haurrengan izu-aurpegiak sentitu nituen. Jarraian niregana hurbildu eta oraindik ulertzen ez ditudan hitz batzuk erran zizkidan:

– Zure amatto eta attatto joan egin behar izan dira eta gure artean geldituko zara. Gela honetan jostatuko zara zure adineko neska-mutilekin eta otorduak ezkerreko aldean dagoen gela horretan egingo ditugu. Zatoz, zure logela erakutsiko dizut eta.

Bere ahotsa hezurretaraino sartu zitzaidan, sarkorra eta beldurgarria baitzen.

Beldurrez jarraitu nion gela ttiki bateraino iritsi arte eta bertara iristean nire gauzak ohe gainean utzi zituen. Nire arropak, nire jostailuak, nire liburuak... denak zeuden maletatxo batean sartuta, baina zer egiten zuten hor? Nire etxean egon beharko lukete, baina orduan ez zeuden han. Logelak leiho handi bat zeukan eta bertatik ilargia ikusten nuen, handi-handia eta argitsua. Emakume handiak pijama jarri zidan, presaka, lan gehiegi zeukala marmarka erranez. Hau egin ondoren “gabon pasa” lehor batekin agurtu ninduen eta danbateko batez atea itxi zuen. Nik maleta eskue-tan hartu eta usaindu egin nuen, eta attatto eta amattoren usaina usaindu nuen eta behar nituela sentitu nuen eta hori ez zela nire etxea eta... eta negarrez hasi nintzen, garrasika negarrez. Malkoen ondorioz lausotuta ikusten nuen ilargi-ari galdetu nion ea benetan zer gertatzen ari zitzaidan, ea attattok eta amattok zergatik utzi ninduten han.

Paper bat erori zen maletaren sakela ttikitik lurrera eta nire esku bustiekin hartu nuen. Zerbait zegoen beltzez idatzita eta mesanotxearen kaxoian gorde nuen. Ilargiari begira lokartu nintzen eta ez zidan inork muxurik eman ohean sartzerakoan. Dena iluntasunak eginiko broma txar bat zela pentsatu nuen eta eguzki gorriak dena pasatu zela errango zidala. Baina goiza iritsi zen eta harekin batera eguzkia agertu zen, eta inork ez zidan erran dena pasatu zela. Leioa ireki eta paisaia mugagabea behatu nuen, beltza, liburueta-ko hartzen sudurra margotzeko erabiltzen nuen margo beltza baino beltzagoa. Bi hodeiek amatto eta attatoren aurpegi-irudiak sortu zituzten, eta haize bolada batek mendien gibe-ko aldean gorde zituen.

\* \* \*

Dagoeneko Sarak bederatzi urte bete ditu eta lehenengo goizean ikusitako hodeien irudiak aurkitzen saiatzen da. Baina ez dira berriro agertu. Haizeak mendien gibe-ko aldean betiko gorde zituela pentsatzen du eta bera lurralde horietara ezingo dela inoiz heldu. Ezingo dela paradisura inoiz heldu. Bere bizitza ilunean aurkitzen duen argitasun bakarra mesanotxeko kaxoiko paper zimurtuak biltzen du, baina ezingo du inoiz bertan jartzen duena ulertu.

## **PROSA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



# **Isiltasunaren bakardadean**

Jon Iraola Goiburu  
San Tomas Lizeoa  
Donostia





Txuku-txuku-traka-traka... burdin kirrinka, tren balaztatzen hasi da trenbidea zarramazkatuz. Ireki dira atepak. Takoi hotsa, denak presaka, galtza luze italiarrak, Lacoste, Laiberto, gizon elegante baten zapata marroi ilunak, lehenengo klasea, agian? Denak erdi lasterka, atzetik akuilua ziztaka edukiko balute bezala, erne! Tupust egin eta ia lurre-ra erori da andere apaindu bat, mugikor baten oihua, baina inork zirkinik ere ez.

Batzuek soslai begiratzen diote, zein ote da gizajo hau?, drogak usteldutako yonkia zirudik, puaj, urrundu hadi, bestela... Beste askok bere kantei entzungor egin eta aurrean geratu eta zentimorik eman gabe, bere bidea jarraitzen dute. Gutxi dira alboan geratzen zaizkionak, hatzekin onespen keinu bat egiten diotenak, errukiorrak, pena ematen die.

Hutsik dago estazioa. Joan dira, bai gizaki eta bai tren guztiak ere, lotara... Izara beltza hiriaren buru gainean zabaldu orduko amaitu dira eguneroko estropezuak, malkoak, zapi zurien astinduak, zineko aktore bihurtutako mutiak, neskalgunarekin bukaeraraino egon nahian nasa osoa trenaren erritmo berean, azeleratuz, igarotzen dutenak, *esaiozu agur, agur arbola, agur tren-geltoki, begira amona, esan agur amonari, agur, agur...*

Hippyaren bi akorde nahiko izan dira alboko harriak aztora daitezen, la-do-mi-la, baita zuhaitzek ileak harrotu eta, txistu eginez edo besoekin erritmoa markatuz, kantaren amaiera asmatzen saia daitezen ere.

*Klak.* Argindar eta lanparek ez dute kanta honen lekuko izan nahi, bestela zer esango ote diete bihar goizean, lehen orduan, ailegatzen diren bidaiariek. *Klak.* Nola azaldu espektro bilakatutako kantari baten notak hunkigarriak zirela, nola adierazi bidaiariek entzuten jakin ez zutena

mirestekoa gai zirela. *Klak*. Eternalki gizakien menpeko izan nahi dutelako desagerrarazten dira. *Klak*, azkeneko kriseiluaren adioa.

Estazioa ospela, iluna, hitsa da. Bere ttipitasunean ezkutatzen saiatzen den lau horma eta metal fineko xafla kurbatua, hori besterik ez. Beso zabalik hartzen du, ordea, ile luzedunaren kanta beroa. *Three little birds* dio, *oh, brother, I got them, got* horri zer nolako enfasia jarri dion, gitarrarekin duen borroka moduko horretan galtzailearen garrasi urratua adierazi nahi du, garrasi oldarkorra, got!. *My heart...*, haizeak lapurtutako kexa, *anytime, anywhere*, erritmo aldaketa segituan sumatu dute entzule mutuek, *my heart will believe in, durunda bihurtu da azkeneko bertsoa, believe in, elieve in, lieven, even, ven...*

Isilpearekin batera esnatu dira atzoko egunkarien azken aztarnen, plastikoaren, krispeta poltsen dantzak. Berandu iritsi direla baldin badakite ere, abeslaria tentatu nahi dute, *emaiok motel*, eta bere horretan dabilta, ilargiaren inguruan, jira eta buelta, *queremos marcha, marcha*, eleak eginenez, *tócala otra vez, Sam*. Beranduegi, pentsatzen du, pentsatzen duk gitarra eskuartean duala altxatzen haizen bitartean. Hankako zauria gero eta sakonagoa dela sentitzen duk, arima harramazkatzen ariko balitzaik bezala, femurre-ra iritsi nahian. Atzo gertatu huen, plaza nagusia gurutzatzen duen kalearen txoko ilunenean, kaskamotzak zituan denak, txupa beltza, piercing probokagarriak eta kate luzeak, zakurren moduko koilare zorrotzak, *una, grande y libre!*, garagardo hatsa, ostikadak, ahal huen moduan aire!, baina eginak zeudek ebaki eta orbanak. Orbanak. Belaun bakoitzean pare bat bai gutxienez, eta beste bat betondoan, eta hiru bat buru atzean. Hauen oinazea arindu eta bakanka agertzen zaijan odol sena asetzeko asmo zuzenarekin gitarra

muturretik heldu eta plastikozko poltsak inarosten hasi haiz, *hanka hemendik!*, alde batera eta bestera, zabuka, *emanaldia bukatu da!*, zakarrak uxatzeko intentzioarekin. Hauek, berriz, gitarraren gorputzera itsasten dira, *hanka hemendik!*, tximak ezker eskuin, rock and roll kontzertu batean balego bezala mugitzen dituk, gitarra kolpeen erritmo bizian. *Nahikoa da!*, ezin dituk aldendu, *Nahikoa da!*, hire gauzaeza, ezintasuna agerian geratu duk, akitua hago eta lehendanik inoiz sentitu gabeko nahigabea nabaritu duk saihetsean, atzoko jipoiaren seinale, barnea ito eta ikusmena lausotzen dian atsekabea, eta pott erori haiz, gitarra, poltsa, motots, koilare eta guzti, lurrera, lur latzera, harri txintzarrez betetako lurrera, non harri ororen ezten gartsua, banaka, hire bizkarrean nola zartatzen den sentitu duan.

Gaueko kilker hots eta haize bortitzaren estalkiak lozorro sakon batean tapatu aurretik, arnasa sakon hartu eta, hiretzat garaiezin diren poltsen desioen aurrean belaunikatuz, inoiz amestu ez duan egundoko kantarik xarmanteari ematen diok hasiera, mendeen poderioak nekez makurtuko duen frantses eresiari...

Les bateaux reposent encore  
dans les eaux profonds du port,  
épuisés par leurs longs voyages.  
Moi, j'en appelle au vent du large  
qui me fera quitter le bord.

La nuit que déchire l'aurore  
n'est plus que l'envers du décor  
de tous mes rêves périssables.  
J'en appelle au désert de sable  
qui me fera trouver de l'or.

\* \* \*

- Sí, lo de siempre. Bueno, déjame un poquito por arriba (barre algarak).

Autoen burrunba gogaikarria, goizeroko periodiko usain nazkagarria, langileen korrikaldiak, zein baino zein azkarrago. Gorbatadunen pauso irmo eta seguruak eta hain dotore ez doazen ibilera zalantzatia biltzen dituen izerdiz perfumaturiko ibaia geldiezia da.

...de viajar el próximo sábado al Camp Nou. Ocho menos cuarto, siete menos cuarto en Canarias, la hora de la ronda del tiempo. Comenzamos en Galicia [...] País Vasco, Ramón Sánchez. Con tiempo revuelto, cielos cubiertos y algunas lloviznas en el sur. Nubes y claros con temperaturas suaves en el interior. Temperaturas agradables en las principales ciudades y amplios bancos de niebla que tardarán en despejar en... ”.

Xirimiria. Jertsearen kremailera goraino igo dun *hemen earki gatxeudek* eta zorioneko sentitzen haiz, kanpokoen presa eta sufrimendua ikustean. Haize boladen zartada gutxi balitz, lehen tanten kilimekin nahigabetuta, marmarka hasi dira, gajoak, zerura begira. Eskutik helduta saltoka eskola bidean dabiltzan mutikoen kantuak ere, “*que llueva, que llueva...*” oinezkoen atsekabea handiagotu du eta burua bufanda edo gabardinen lepoen babesean kuzkurtuz, pausua nabarmen azkartu dute.

40. MUNDO. SOLDADOS ISRAELÍES MATAN A TRES PALESTINOS EN LA FRANJA DE GAZA La incursión tenía como fin...

*Nubes y claros, nubes y claros! Siempre lo mismo!* Ondoko aitonak irakurtzeari utzi eta, eskuartearen duen egunkaria erditik tolestu ondoren, San Ferminetan baldin bageunde bezala biribildu du. Xelebrea dun: ezin hobeki

hago agure burusoil hauen artean, alaitu egiten haute pensionista antzu horien barre lizunek, beren Extremadurako hitz jario itxi eta biziak, *En efectivo o con tarjeta?*, anaiari astoak alde egin zionekoa Manuelek zer nolako gatz eta piperrarekin kontaktzen duen ikaragarria dun, *En efectivo, mi señorita* hori bai dela artista izatea, publikoari barre eraginaraztea, demasié, badoa Manuel, egunkari eta guzti besazpian, bertako egunkaria gainera, espabilatua gizona. Ahaztu egin zain, momentu batez bada ere, amona bertara etortzekoa dela, eta gaur bere urtebetetzea dela.

*Irás a ver a la amona, supongo. Dale un tirón de orejas de mi parte.* Ezker aldean kurbatuta eta zimelduta daukanan Martin, gaztetan amonaren bikotea izan omen zuan; edo neska-laguntzan ibilitakoa; beno, ez dakin gauza segururik, baina garai horretako dantzaldietan gehien arrimatzen zitzaiena izango zela susmatu dun, Hollywood-eko aktore erretiratu baten planta zeukak-eta. Gabonetako afari ugari horietako batean ere, alkoholaren deabrutxoak erraietan lurperatutako isil-gordeak argitara ateratzen dituenean, zerbait entzuna huen, Don Joanen fama zeukala, neska askorekin ibili bide zela. Hipotesi gisa ontzat emango huke, are gehiago mutilzahar berritsuaren ahotsak duen nostalgia kutsu magikoa antzeman dunanean. *Vendrá aquí. La podrás felicitar personalmente.* Zortziak! Amona etortzear... Hara! Hor dago, kanpoan, egonean, deika ari zain. Instant batean altxa haiz, altxa da, *agur Krispin, deja ya de leer el Marca, sigue así Manolo, estás rejuvenecido, ya hablaremos Martin, baina aibala! Karmelo! Aspaldikozemuzmomentutxarrianharrapaunazuandriaondoezta?poztenaizbenojunbiharradakatamonarenurtebetetzia databaiezkezkatuikusikogea aio!*, berokia ez beza ahaztu, kontuz ate aurreko koskarekin –ieup!- iasta, kalera atera da neskatxa.

Karrika-bazterrak garbitzen ari den kamioi txikitxo, txirringulak lasterketa bateko “cami3n escoba” (nola esaten da euskaraz?) bailitzan, azken langile atzeratuak pilatzen ditu bata bestearen gainean. Nola hala, langileen pelotoia saihestu eta maldan gora abiatzen da gaztea, amona ondo helduta duela, “*Peluquería-Manolo. Único establecimiento abierto desde las 7:30. Horario tarde: 6:00-8:00*” jartzen duen kartela atzean utziz, Luckien’s tabernarantz eta auskalo non entzundako kanta amonarekin batera ezpain artean xuxurlatuz: *Les bateaux reposent encore / Dans les eaux profonds du port...*

\* \* \*

Kaixo, arratsaldeon [...]. Berria al zara hemen? Gutxitan ikusi zaitut, baina... bai, zure aurpegia ezaguna egiten zait, ez al dituzu HIESari buruzko hitzaldiak ematen? A, barkatu, badakizu, gauza horietarako oso txarra naiz, imajina ezazu, Nelson Mandela eta beste politiko hori, bai, ez dakit nongo lehendakaria dena, erakunde garrantzitsu horietako batekoa uste dut, bai, motel, azkenaldi honetan teleberri guztietan ateratzen den beltz altu hori. Bai, horixe! Xelebrea irudituko zaizu, baina elkarrekin nahasten ditut! Eta hori ez da okerrena, pufff, mila adibide eman diezazkizuket... Horrelako bizar kiribildua ikusi dizudanean, hitzaldiak ematen dituen intelektualarekin erlazionatu zaitut, ez daukat erremediorik! Sakatu ezazu botoia, motel, bestela hemen egon beharko gara betiko eta, a, okupatuta dago, barkatu, igogailu zahar hauek!, nik ere edificzio hau aukeratu behar, hirian beste mila edukita!

Ez zarela berria? Zenbatgarren pisuan bizi zara, ba? A! Bai, beharbada... Bai, horregatik izango da. Campusera joateko goiz samar ateratzen naiz eta etxera bueltatzerako... Ez,

ez da oso gogorra, baina aurten bezalako uzta txarra tokatzen bazaizu... malo, malo. *Psicología social* delakoaren irakasle naiz eta, ez pentsa, azterketak direla, zuzenketak, klase orduen prestaketa... Jakina, ohitura kontua da. Pentsa ezazu, goizeko zortzietarako kalean naiz, eta bueltatzeko bederatzia inguru. Egun guztia kanpoan: klaseak, bazkaria, liburuen irakurketa...

Beno, zer pasatzen zaio igogailu honi? Matxuraren bat, ziur nago. Edo hirugarreneko andere kuxkuxero mari jakintsu hori izango da, ile gogor eta lisodun fox-terrier horietako bat duena, joder, zakur potro handi hori, zenbat gau izorratu ote dizkit, txiki eta babesgabea dirudi kabroiak, baina bere zaunkek... astakeriarik ez dezagun esan, ez dezagun esan. Ez didazu ukatuko...? A, esaten nuen, ba. Noski, nazkagarri hutsa da. Bere izena ere... Ximon. Ximon deitzen ziotek zakurrari. *Ximon, Ximon, etorri hadi, hori da Ximon, oso txintxoia haiz, har ezak gaileta hau. Ximon, zimur, zimel, simaur, zimarro galant hori!* Esaten ari nintzaizun bezala, hor egongo dira bi amona, bata hirugarrenekoa eta bestea seigarreneko atsoa, elkarriketan, igogailuaren atea erdi irekita, ez atzera eta ez aurrera, biak bertan, txutxu-mutxuka, *a que no sabes que la Luisa...*, *oye, no me digas, pues no me he enterado, ¿y qué más, y qué más?, pero qué fuerte, y eso no es nada comparado con..., sí chica, tenías razón...* Lepoa jokatu nike!

A! Eta esamesekin hasi garenez, zer egin behar dugu 5A-koekin? Ez, nik ezin dut horrela jarraitu, posible ote da? Alua, urde nazkagarria! Zer nolako iskanbilak, hori mendi puntakoa da, Urtain, Urtainen antza hartzen diot, eta horrela bukatuko du, egun guztia Mikeltxorenean sartuta, basoerdiz basoerdi, nola edaten duen!, ikusgarria da, behin bertan izan nintzen eta, bai, gelditu gabe. Andre zorigaiztokoa!,

hurrengoan deitu egingo dut, 112 eta kito. Eta okerrena zera da: Josu, ume gaixoa. Askotan bakarrik ikusi izan dut, ezkaratzean, izkina ilun horretan, negarrez.

Aizu, gaur bertan hippy horrekin gertatutakoa ere gehiegizkoa da. Sara ikusi nahi zuela. Sara, Sara eta Sara. Bera gabe ez zela joango. Oraingo honetan ere poliziaritza deituzkotan egon naiz, baina ez, ez da bidezkoa, nire ikasle ohia baita gitarra jolea, bizimodu alternatibo baten atzetik joan zen horietakoa, bai, badakizu. Atsegina zen, baina odolaren bor-borrari ezin izan zion eutsi. Eta Sara hemen ez dela bizi esan diot, aspaldi joan zela beste auzoren batera, eta ea zer moduz zegoen, eta ea eguna nire etxean igarotzea nahi duen galdetu diot. Momentu horretan, Moustakiren kanta bat isurtzen hasi da bere ezpainetatik. Zer ongi abesten duen!, poliki, eta emeki, bere maitalea urrun balego bezala, non-baiten galduta... eta bere maitasunaren mezulari bihurtu nau... Sara aurkitu beharrean nago...

\* \* \*

*“Ai, amona, oso geldoak dira ene bakardadeko gauak. Amets gaiztoen mamuak sortutako garrasi pare bat, haize bolada indartsuak, gorbelen kris-kras geldiezina, negar-intziri jarraituak. Chopinen Nokturno baten moduan, hasperen pausatuek zuzentzen dituzte gela iluneko gorabehera bakanak.”*

Arnasa sakon hartu zuen Sarak eta, bere barne huste hartan, berriro ere amonari zuzendu zitzaion, bizimodu alternatibo baten atzetik joan zen Pablok eragindako min eta bakardadea kanporatu nahian.

*“Eta, isiltasuna... Ilargi beteko gauak miresten, nahigabearen melodiaren misterioa estimatzen irakatsi didan*



*lagun fidela, betiere alboan. Ai, amona, haizeak hodeiak desagerrarazten ditu eta, gauero bezala, piano jole ezagun baten pieza etorri zait gogora. Momentu honetan ez dut oroitzen artistaren izena; hala ere, presente dut honen doinu nahasi eta iradokitzailea, musikariaren sentiberatasuna, agerikoa dut ilargiaren ispilu den itsaso bihurrian murgiltzen naizen sentsazioa. Olatuak marrazten dituzten notak azkartzen doaz, haizearen baitan moldeatuak, eta beren puntu gorenera iristean ez dute onartu nahi, ez, makurtzea beste zereginik ez dutela. Orain mantsotzen, itsasertzean, dagoeneko ihartu eta nekatuak, beren azken hasperen urratua entzuteke, hildako itzalak baliran...”*

Gortina ia opakoa zen ke-laino zerratuaren atzean zerrauts bihurtutako bohemiaok ikus zitzakeen Sarak, tabernako argi lotsatien pean zein baino zein ezberdinago: bixar akrobatikoak, eskuartean zuten mariak atondutako txapel mistikoak zeramatzenak, haien inspirazioak kiribildutako bufanda antiestetikoak, XIX. mendeko probokatzeko asmo horrekin, demodé hauek ere.

Bat-batean, Sara bere penak lasaitzeko amonaren urtebetetze eguna aukeratu izanaz honi barkamena eskatzera zihoan une berean, orain dela bi urte Psicología social eman zion unibertsitateko irakaslea azaldu zen bere aurrean, eskuan papertxo bat zuelarik:

*Itzuli naiz. Eta benetan maite zaitut. Eta benetan maite zaitut.  
Biziki.*

***Pablo***



# **Miranderen itzalpean**

Miren Estibaliz Vivanco Ramirez  
Lauro ikastola  
Loiu



Beharbada kasualitatea izango zen, baina jakin nuenean frantses-ikastaro hura duela 64 urte Jon Mirande idazle euskaldunak bere batxilergoko ikasketak egin zituen Parisko delako *Lycée Aragon* ikastetxean izango zela, bere itzalaren menpean nengoela susmatu nuen berriz. Ahaztu baino lehen, nire izena Helena dela aipatu beharra dago. Bai, ondo irakurri duzu, hatxez idatzita! Institutu osoko izenik zahar eta arraroenetarikoa. Eta horren zergatia zen, nik uste, aita Jon Mirande Aipharsororen istorio beldurgarrien irakurle amorratua zela. Berak zioen –itxura egin nahian– nire izena Greziako emakumerik ederrena izandako Troiako Helenan zuela jatorria, eta –haren esanetan– mundu osoko neskarik politena izateagatik, niri zegokidala. Hala ere, “Eresi Kantari” izeneko Miranderen ipuinaren neska-antagonistaren izena zelako aukeratu zuelako susmo txarra nuen. Baina ez diot aitari errua botako Miranderen ipuinenganako zaletasun horregatik, ezen nik ere “ipuin gotikoak” izugarri gogoko baintuen. Horregatik, Hendaiako geltokian *T.G.V.* izeneko abiadura handiko trenean ezartzearekin batera, Edgar Allan Poeren ipuinak irakurtzeari ekin nion irrikaz.

Parisko tuneletara sartzeaz nengoela, liburutik begirada altzatzea lortu nuen eta nire egoitzaren helbidea bilatu nuen poltsikoan. Kalearen izenaz buruz gogoratzen nintzen: *Boulevard Davout*, ezen aitak gozamenaz argitu baitzidan horixe bertan bere Mirande maitea bizi izan zela apartamentutxo batean. Helbidearekin batera ostalariaren emakumezko izena zegoen. Emakumearen abizena arraroa egin zitzaidan, baina ostatu-familia euskalduna izatea ikastetxeak jarritako ezinbesteko baldintza izango zela pentsatu nuen.

*Montparnasse*-ko geltokira ailegatzerakoan, nire kezka bakarra zen emakume hura nola ezagutu. Baina andenaren gainean oina luzatu bezain pronto, moda-zaharreko eskuko

zakua bularraren kontra estututa zuen andre zaharra hurbildu zitzaidan.

– Zu Helena zara, ezta? –bota zidan bat-batean– Nik imajinatu bezain aurpegi polit eta oraindiarra zuen.

– Orduan, oker ez banago, zuk *madame* Gabrielle Lohitegi izan behar duzu.

– Bai horixe! Irigaraiko alarguna nauzu –eta hori esatean, aitaren egin zuen keinu arin batez–. Joan gaitezen taxia hartzera. Hain bidaia luzea egin ostean, neka-neka eginda egongo zara eta.

Taxiak eraikin ilun bateko atetzarrean abandonatu gintuen, parke eder eta handi baten aldamenetik pasatu ondoren. Emakumeak bere zakutik ateratako giltza herdoildua sarrailan sartu zuenean, kirrinka beldurgarriak oilo ipurdia jarri zidan. Solairuak igotzen ari ginela, zurezko eskaileretatik karranka-hots meheak ateratzen ziren eta gure pausok ozen-ozen entzuten ziren zoruan. Azkenik, andre zaharra hauts-geruza mordo batez estaliriko atearen aurrean gelditu zen. Irekitzean, itxi usainak sudur-zuloak mindu zizkidan. Hala ere, emakumeari jarraitu nion korridore estu batean zehar. Han zegoen nire logela, eskuineko lehenengo atean.

– Logela hau zure gustukoa izatea espero dut –esan zuen bonbilla horixka bat piztuz–. Nire bilobarena izan zen. Armairuan zure gauzak atontzen dituzun bitartean, afaria prestatuko dizut, maitea.

Ez nago ziur erdi hildako argi horregatik edo heze usain gogorrenegatik ote zen, baina egonleku hark Drakularen gazteluko gonbidatuen gelaren itxura hartzen zuen. Hormak paperez apaindurik zeuden, gune batzuetan hezetasunak altxaturik. Bazter batean ispiluzko atedun armairuak nire iru-

di desitxuratua bueltatzen zidan. Gelaren erdian eztei-ohea altxatzen zen, dosel eta guzti. Han lo egitea oso zaila egingo zitzaidala pentsatu nuen, baina gau osoan ez nituela begiak itxiko konturatu nintzen, zuri-beltzeko argazki hura horma batetik zintzilikatuta ikusi nuenean. Aurpegi ezaguna egiten zitzaidan. Oso arropa arraroaz jantzitako gizona zen, tunika zuria eta burua mitra batetik irtendako zapi zurixkak estalirik zeukana.

Den-dena txukun utzi ondoren, gelatik atera eta jangelara abiatu nintzen. Txokolatzeko *crêpe*-ak irensten nituen bitartean, galdetu nion emakumeari, interes apur bat erakutsi nahian:

– Nongoa zara? –murduskatu nuen ahoa bete-beterik nuelarik– Parisen euskaldun bat aurkitzea oso bitxia iruditzen zait eta.

– Zuberotarra naizenez gero, *Lycée Aragon* ikastetxearekin kontaktuan jarri nintzen, gelaren bat euskaldun ikasleren bati alokatzeko. Alargun geratu nintzenetik, etxebizitza hau oso handia da niretzat. Honela, behintzat, bakardadea asetzen dut, laguntza ekonomiko txiki bat jasoz.

– Familiarik ba al daukazu? –galdetu nion elkarrizketa jarraitzeko asmoz, baina oraingo honetan andrearen aurpegi ilundu zela kargutu nintzen.

– Biloba bat baino ez daukat. Lehen esan dizudan bezala, duela gutxi hemen bizi izan zen... Baina, orain, gustatuko litzaidakeen baino askoz gutxiago ikusten dut. Gure arteko harremanak hoztu egin dira azkenaldi honetan. Gaztea da, eta badakizu gazteak nolakoak zareten. Bere hutsunea sentitzen dut sarri askotan, zure logelako armairuan bere liburuak ikusten ditudan bakoitzean, batez ere.

Zer nolako liburuak ote ziren galdetu nion nire buruari behin eta berriz afaria ahalik eta arinen irensten saiatzen nintzen bitartean, logelako armairura korrika abiatzeko irrikaz. Ez dakit nire ezinegona asko nabaritu ote zen, baina arrapaladan emakumea agurtu eta ziztu bizian logelako armairuaren parean topatu nuen neure burua. Urduritasun nabariaz kaxoi ugari irekitzeari ekin nion zalapartaka. Azkenik aurkitu nituen. Han zeuden denak, txukun-txukun pilaturik. Nire esku dardartsuek banan-banan arakatu zituzten. Harrigarria zen irakurtzen nuena: “Haur besoetakoa”, “Gutunak (1948-1972)”, “Poemak (1950-1966)”, “Ene jainko-eidol zaharra, lur!”, “Ilhun argiak”..., nik etxean hainbat eta hainbat aldiz ikusitako liburuak. Orduan dena agertzen zen argiago nire baitan, eta *jesus amen* esan orduko asmatu nuen nor zen horman zintzilik zegoen argazkiaz gizona: Jon Mirande Aipharsoro euskal idazle madarikatua, druidaz jantzita.

Susmo bat burura etorri zitzaidan: nire ostalaria eta “Gauaz parke batean” ipuineko andre hiltzailearen deskribapena bat zetozen. Gainera, Gabrielle Lohitegi izen hura ezaguna egiten zitzaidan... non demontre irakurri ote nuen halako deitura? Bat-batean argia piztu zitzaidan, banekien: aitaren ipuin gogokoenean, txikitatik hainbeste aldiz entzun nuena, “Eresi kantari” izenekoa. Baina, zoritxarrez, “Gauaz parke batean: ipuin izugarriak” delako liburua ez nuen ikusi gainontzeko liburuen artean. Non ote zegoen? Leher edo zaparta, aurkitu behar nuen. Armairuko kaxoi guztiak arakatu nituen irrikaz. Azken kaxoia aztertzeraz nindoala, giltzapetuta zegoela konturatu nintzen, amorruez. Gelako bazter guztietan bilatu nuen giltza, baina alper-alperrik. Azkenik, ikastetxeko kutxatilaren giltzarekin probatzea erabaki nuen: sarrailan sartu eta... ilargia labe gainean izan



nuen: kaxoia ireki egin zen!!! Baina ez nuen espero nuena aurkitu, baizik eta egunkari-orri horixkak sits hilen artean pilatuta. Kaxoia ixtear nengoenean, guztiz etsita, egunkari zati baten argazki batean iltzaturik geratu zitzaizkidan begiak, kontxo!, etxe ondoko parkearena zen! Hobeto ikus-teko, papera hurbiltzean, haren azpian beste bat zegoela konturatu nintzen, antzekoa. Dardara menderatu ezinik, irakurtzeari ekin nion. Egunkari-artikulu guztiak gertakizun berei zegozkien: lau urtetan zehar aldameneko parkean izandako lau erailketei buruz; alegia, harrigarriena zena, laurak zigorrik gabe geratu izan zirela!, ezen polizia ezin baitzuen hiltzailea harrapatu. Urduritasunak kilika egiten zidan gorputzean, eta, izuak eraginda, atearen kisketari eman nion. Argi zegoen misterioaren mamia Miranderen ipuinetan zetzala; horregatik, hurrengo egunean idazlan horiek lortu beharko nituen, kosta ahala kosta. Horrelako gogoetan ari nintzela, ahoa ireki zitzaidan eta hasperen egin nuen, lo egiteko ordua ailegatu zela ulertuz. Ohera sartu nintzen, eta, nahiz eta nire burua Miranderen begiradaren menpean sentitu, nekearen poderioz lo seko gelditu nintzen.

Biharamunean, gosaltzen ari nintzen bitartean, andre zaharrak ezkerreko begiaz begiratzen zidala iruditu zitzaidan. Hala ere, harira joan nintzen:

–*Madame* Gabrielle, atzo gauean, lo egin ezinik, zure bilobaren liburuak irakurtzen egon nintzen –komentatu nion arian ezarian–.

–Ah, bai, gure erkide Miranderenak dira. Lan bikainak!, ezta? –erantzun zidan kafesnea mahai gainean isurtzen zuen bitartean nire begietatik alden du nahian.

–Bai horixe! Baina, hain gogoko nuen Miranderen liburuak ez zegoela konturatu nintzen –intentzio osoz atera nuen.

–Zein da, ba?

–Ba..., “Ipuin izugarriak” –erantzun nion izenburua oso-rik aipatzen ausartu barik.

–Ez, ez daude –moztu zidan lazki andereak, bere aurpe-  
gia zurbiltzen zihoala nabaritzen nuelarik.

Orduan emakumeak, elkarrizketa amaitutzat eman nahian edo, emeki ohartu ninduen:

– Beno, pitxin, ikastetxera joateko ordua heldu zaizu, ezta?

Hori dela eta, *Lycée Arangon*-erantz abiatu nintzen. Ikastaroko lehen eguneko zirrarak ia lortu zuen Miranderen “Ipuin Izugarriak” ahaztaraztea. Baina bazkal osteko atse-  
denaldian, *internet*-en sartzeko baimena eskatu nion maisu bati. Ipuinen izenburuen letrak bilatzailean idazterakoan, atzamarrak dardarka hasi zitzaizkidan. Helbide elektronikoko frankok Miranderen obra aipatzen zuten, baina ipuinak eurak ez ziren inondik ere agertzen. Eusko Jaurilaritzaren atarira abiatzea bururatu zitzaidan, eta eskola hasteko txirri-  
nak jo zuenean, bertan lortu nituen. Arineketan, inprimagai-  
lutik ateratako orri preziatuak karpetan gorde nituen eta segituan gelara sartu nintzen. Frantses-ikastaroa amaitu zenerako, arratsaldea maldan behera zihoan. Lasaitasun apur baten bila-  
edo, ikastetxearen ondoko parkera abiatu nintzen, Miranderen ipuinak patxadaz irakurtzeko asmoz. Une hartan, umez gainezka zegoen eta eserleku guztiak okupatuta zeuden, bat izan ezik: ilunpean aurkitutako eser-  
leku bakartia, eta hara jo behar izan nuen. Lehenengo eta behin, “Eresi Kantari” delakoa irakurtzeari ekin nion. Gogoratzen nuen bezala, Gabriela Lohitegi “Egun bereko alarguna” izeneko euskal eresi-kanta zaharraren protagonis-  
ta zen, haren senarra izan zen Irigaraiko Jauna eztei-egune-

an galdu zuena; baina harrigarria iruditu zitzaidana izan zen Mirandek protagonistaren ahotik –Helenaren senargaia zen Gaston, hain zuzen ere– Gabrielari leporatzen ziola senarraren heriotza. Kasualitatez, *madame* Gabrielle-k izen berbera zuen, eta kasualitatez, Irigaraiko alarguna zen, bera ere parkeko hiltzailea ote zen kasualitatez? Gainera, nire ostalaria eta “Gauaz parke batean” ipuineko andre sadikoaren arteko antzekotasuna nabaria zen. Mirandereren bi emakume hiltzaileak *madame* Gabrielle-ren pertsonan era misteriosuan nahasten zirela ulertu nuenerako iluntzeaz zegoen, eta parkeko farola guztiak piztu ziren nire aldamenekoa izan ezik. Irakurtzen jarraitu ezinik, aldegitiko zorian nengoela, hara non konturatu nintzen nigandik gertu zegoen aulki batean *madame* Gabrielle eserita zegoela, ipuinean bezala: “*eskuko zakua amultsuki gerriari estutuz*”. Aho zabalik geratu nintzen emakumearen aldamenean Mirandereren pertsonaiak bizkor ibiltzen ikustean: “*langileak, parkeko bidea labur-kausaz hartzen zutenak, eskola-haur eta ikasleak, ...amorosen bikoak, emeki eta besotik heldurik zebiltzanak*”. “Heriotzarako unerik aproposena” pentsatu nuen nik. Falta zen bakarra emakume anker haren biktima zen. Amesgaiztoetan nenbilela iruditu zitzaidan, ezen, segundo pare bat barru, hara baitzeturren gizon gazte bat plastikozko poltsa bat besapean zekarrela, eta zuzen-zuzenean *madame* Gabrielle-ren ondoan eseri zen. Mutilak zigarro bat piztu zuen eta berehala elkarrizketan hasi ziren. Nire ezkutalekutik ezin nuen ezer ulertu, baina txakur-katutan zeudela iruditu zitzaidan. Gazteak bere poltsatik zerbait ateratzen zuen bitartean, andreak haren eskuko zaku preziatua estutzen zuen gerriaren kontra. Izerdi patsetan nengoen, batez ere emakumeak zakua irekitzen zuela ikustean. Mutila itozteko sokatxo bat aterako zuelakoan, zoro moduan oihuka hasi nintzen. Aldi berean, Gabrielle-k eta mutilak nire gainean

iltzatu zituzten begiak, eta nik, burua galdua, norabide ezean hanka egin nuen trostan. Itzuli-mitzulika ibili nintzen alde batetik bestera, bideak jo ninduen arte. Orduan, etxera telefonoz deitzea erabaki nuen.

Eskuko telefonoaren beste aldean aitaren ahots sendoa entzuterakoan askoz lasaiago sentitu nintzen. Zurru eta purru kontatzen hasi nintzaizkion gertakari bitxi haiek, eta aita harri eta belarri geratu zen:

– Helena, zer demontre ibili zara irakurtzen egun hauetan? –galdetu zidan aitak azkenean.

– Poeren ipuinak, aita, baina horrek ez dauka zerikusirik emakume sadikoarekin! –erantzun nion atsekabez.

– Maitea –jarraitu zuen aitak samurki–, zu irudimen handiko neska zara, eta, dakizunez, gaitasun horrek kristoren ahalmena du; hori dela eta, kontrolpean izan behar duzu zeure burua, bestela...

– Den-dena asmatu dudala esaten ari zara?, ba, ez!!! –lehertu nintzen–, ziur nago emakume hori hiltzailea dela, eta bere beldur naiz.

– Ba, arratsalde honetan, zu ikastetxean zeunden bitartean, berarekin egin dut berba telefonoz, eta zurekin oso pozik dagoela esan dit. Gainera, afalorduan, sorpresatxo bat omen du zuretzat...

Aitaren hitzek lasaitu egin ninduten erabat, eta emakumearen etxera abiatzen nintzen bitartean, arratsaldeko gertakizunak buru hotzez aztertu nituen. Azken batean, esaten nuen, nire kolkorako, ez nuen ezer arrarorik ikusi: emakume bat gazte batekin berba egiten, besterik ez. Nire irudimenak adar jotze galanta egin zidalakoan sartu nintzen *madame* Gabrielle-ren etxebizitzan. Aitak esan bezala, sor-

presa bat zeukan niretzat. Afaria prest zuen mahaiaren ondoan, eta parkeko gaztea nire zain zegoen plastikozko poltsa eta guzti.

– Helena, hau nire biloba da –esan zuen emakumeak sasi-irribarre misteriotsu batez–. Atzo bilatzen aritu zinen liburua ekarri dizu: Miranderen “Ipuin izugarriak”.

– *Enchanté, mademoiselle!*, Gaston du Pont du Rand nauzu –agurtu ninduen gazteak esku hotza luzatuz, mamuek egiten duten bezala.

Izen hori entzutean, sekulako hotzikarak gurutzatu zuen nire bizkarrezurra goitik behera. Une horretan ulertu nuen gertatutako guztia ez zela kasualitate hutsa izan, baizik eta Miranderen itzal madarikatuaren menpean nengoela.



**Gaur, berandu sartu zait beltza  
hartzeko gogoa**

Alots Arregi Izagirre  
Ikasberri ikastola  
Azpeitia





Begi gardenekin begiratzen naute, tabernako gortina bako leihotik bizi abstraktuek. Barruan, ez dago inor asko. Bada bikote bat, inoiz ikusi gabea, inoiz ez. Beti dago lehendabiziko aldi bat ordea, hau kasu. Maitasuna, gauza inkoherente gehiegiren jabe da. Taberna horretan ezkutatzea, izan, inkoherentea baita. Inor ez ikustea eta inork ez ikustea, ez baitatoz beti bat. Maitale sekretu asko ikusi ditut, hauena adiskidetasun soil bat baino gehiago dela esan ahal izateko. Zirrargarria da, asasinatuen aurretik hartzen den kafe beltzaren usaina imajinatzea. Laket zait beltzaren sunda. Kafe beltza, beltza, iluna. Galdu aurretik aurkitzen saiatzen dira, inoiz galduko balute, berriro aurkitu ahal izateko. Kafe iluna, iluna, birjina. Kontzientziaz hasten dira, galduko balute ere, galduta egongo dela eta galdua, errari bat gehiago dela munduan. Kafe birjina, birjina, bakarra. Burua galtzen hasten dira, buru gabe, ez baitira beraiek ibai bazterretan aurkitzen diren kalibreen jabe. Kafe bakarra, bakarra, traidorea. Enborretatik irteten diren adar-milizkez, zigarroak beirazko hautsontzietan zimurtu eta birjinak plazerez akabatzen joaten dira; ihesi, presaka, akabatzen. Kafeari ere atsegin zaizkio ilargiak argitzen ez dituen, baina bertatik gaueko andrea ikus daitezkeen ibai bazterrak.

Kafe traidorea, traidorea, bere katilu-bizia amaitu aurretik, birjinak desagertzeko pasioa sortarazten digun “serial killer” bat gehiago munduan.

Nik sarri amesten dut birjina naizela. Duda zipitzik gabe, astiro, gozatuz jan daitezkeen sagar gorri horietako bat naizela. “Egin hozka beldur barik ” dioen sagarra. Ahoan lagatzen dizun segundo luzeetako zaporeaz maitemindu daitezkeen sagar gordina, birjina. Bekatuaren fruitua. Izan ere, birjina tentazio hutsa da edonoren buruetan. “Dangerous minds.” Funtsean gauza bera dira, birjina eta bekataria.

Traizioak aspaldi jo zuen nire etxeko atea. Oraindik gogoan dut narruzko eskularru beltzen soinua, atearen azala limurtuz. Kafe beltzaren biktima bat gehiago izanik ere, semaforoak berdean igarotzen ditut.

Pausu batzuk aurreratu naiz, espaloi batetik bestera; pausu batzuk, salatzen ninduten autoen argiei nolabaiteko beldurrez. Zigarro bat atera dut galtzen ezker patrikatik, aspaldi hasia zegoen euriaz kezkatu gabe. Zigarro bustiek badute euren xarma. Jakan neukan pizgailuaz bizitu dut ezpainetan katigatua daukadan “camel”-a. Denbora zigarroekin kontaktzen duen hatz horitu baten gisan aurrera jarraitu dut. Euriari jaramonik egin gabe, norabide ezezaguna jarraitzeak leku askotara eramaten du. Gora, behera, bidetik kanpo, magia bereziz apainduriko kafetegi ezkutuetaraino. Ni kafetegiarekin parez pare dagoen tabernara zuzendu naiz ordea. Zigarroa, sakon arnastu eta taberna huts bateko bezero bakarraren paperean kokatu naiz. Bezero bakarra. Zigarroa bezala; bustia. Barrara geratzen zaizkidan bost pausuak, ezker oinaz hasi ditut eta ezker eskuko hatz erakusleaz adieraziko diot, momentu hauetan, nire eztarritik bidaiatzea nahi dudan trago kopurua. Garagardo bat. Kaferik ez.

Whiski hondarrak dituen beirazko edalontzi bat dago barraren gainean pausatua eta txakurra katuarengana legez, bertara urreratu naiz; ia hozka egiteraino. Badirudi barmanari ere atsegin zaizkiola katuak. Nigana dator. Beste pausu bat eta hiru izango gara. Txakurra, katua eta nik ezker eskuko hatz erakusleaz garagardoa eskatuko diodan barmana. “Garagardo bat” diot neuk, eta gure hirugarren adiskidea, bira eman eta, han doa, bere urdintzen hasitako ile beltzarekin, iluna, kafea bezala. Baina honek ez du kafe usainik; whisky usaina baino. Burua makurturik, eta agian buruma-

kur nagoenean, sumatu dut. Badator whisky usaina, egin dituen bost metroetan buruan nola irudikatu ez zekien beirazko katuarengana. Eta badakar nik hatz batez eskatu diodan garagardoa. Kaferik ez.

Tabako paketeak espaziogabetzen duen patrikatik, bizpahiru txanpon utzi dizkiot. Bi euroko eta bi penike. Bi eurokoez garagardoa iritsiko da, baina beirazko katuak peniketan ordaindu beharrekoak dira. Nik ez dut penike gehiago, baina barmanak gizon ulerkorra dirudi.

Katu bat esku biluziz, gozoki sostengatzen dudan hone-tan, sartzean atzean ikusi ditudan mahaietara abiatu naiz. tabernariaren ondotik igarotzean, eskuaz agurtu dut; jatorra zirudien, bere ile urdin eta guzti. Bere katuak ere, jatorra zirudien. Korridore batetik igarota aurkituko ditut mahai zaharrak, gozoak. Nik tunelaren hasieratik so egiten diet. Izioturik dauden sabaiko bi bonbillek bertako hormetan marrazturik dauden marrazkiak erakutsi nahi dizkidatela sumatu dut. Eta nik, lurrera begiratu ostean, argi zurrunen desioa bete dut, begi aratzez bezala.

Emakumea pozik da; hala dirudi behintzat. Soineko gorriak jazza du gustuko. Nabari zaio, bai. Emakumeak ere gustura dirau, jazz erritmotan, irribarre baten ezpain marduletan posaturiko edalontzitik zerbeza gorriz elikatzen bere gibelak. Beste plano batean kokaturiko taberna ugerdu batean. Urtaroetatik bakartzen den taberna horretan ez dago negu zuririk, ezta gorririk ere. Ez dago udaberririk, non maiteminduek, kafearen existentzia ezagutu aurretik, bitxi-loreei petaloak erraitik kenduko dizkieten. Ez dago orbelez apainduriko udazkenik, ez eta termometroek berrogei gradu markatzen duten udarik. Ez. Baina badaude “Cutty Shark” botilak, jertse urdina janzten duen arrantzale zahar bat, txi-

meletak eta garagardo gorritz beteriko edalontzietan itotzen diren ilargiak.

Bigarren bonbillak, urdin izan nahi duten bi tanta erakusten dizkit. Bati, nabari zaio masailen batetik jausia dela. Zerbait galdu duela esango nuke nik. Edo zerbait hori, ez duela aurkitzen. Bestea, kafeak gehiegi belztuta, ugerduriko estrata batean akabatuta dagoela dirudi. Ez da urruti izango kalibrea.

Hirugarren bonbillarik ez da. Agian, korridorea amaitu delako.

Tabako paketea atera eta zerbezaren ondoan pausatu dut, mahai gozoan eratzen diren bi pitzadura paraleloren artean. Jesarri naizen bankuak ez du pitzadurarik. Eta ni pitzatuta nago, edo pitzatuta daukat. Zer?, galdera sakonegia da, eta pitzatuok ez dakit, flotatzen dugunean, begiak zabalik edo itxita edukitzen ditugun. Baina garagardotan ez da inor itotzen, ezta txakurrak ere. Trago bat eman zerbezari, eta aparrak hor dirau. Hori, bitsa da eta ez pitzatua. Horrexegatik dirau hor, zuri. Pitzatuok garelako desageritzen lehenak.

Berriro gogoan dut, narruzko eskularru beltzen soinua, atearen azala limurtzen. Oraingoan, gogoan dut, baita ere, nola igaro dudan semaforoa, berdea, kafe beltzaren biktima bat izaten.

Segundo hark labanaz ebaki zuen nire bizitzaren filmaren pelikula. Jazza zen egun hartan eguzkiari kantatzen zion maitalea. Eguzkiak ez zion erantzun eta leihoko kristalak malkoz busti ziren. Nik, logelaren izkina baten daukadan besaulki orlegitik behatzen nituen. Zigarroaren kea astiro aireratzen nuenean ikusten ziren ederren. Kearen

atzean labaintzen ziren soineko gorriak lez dantzatzuz, nolabait, jazza maitatuz. Hain ziren garden, goiz hartan, zigarroak ez nituela zimurtzen. Doblatsu egiten nituen; gehiengotan eskuinera.

Jazzak eragin bitxia du nigan, ezin nezake azaldu modu garbi batean. Inoiz zigarrorik amatatzen baduzue, doblatu, orduan soilik ulertuko duzue, norbaitek udazkena gorria dela esandakoan zer esan nahi duen. Gaur udazkenaz galde-tu didate, nik grisa izaten jarraitzen duela esan diet. Gorria dela esan banie, ez baitzuten ulertuko. Zoru bustiari jaurtitzeko zizkioten, momentuan itzali eta, denboraz, zigarro busti atzenduak izango direnak. Ez zeuden prest udazkena zergatik den gorria jakiteko. Jazzak eragin bitxia du nigan.

Tabakoa eralgi zitzaidan, malkoak ketan harrapatzeko sartu zitzaidan apeta harekin. Beste zerbait egiten entrete-nitu behar izan nuen, camel gehiago erostera kalera jaitsi nintzen arte. Betiko puta zikin berbera izaten jarraitzen zuen kaleak. Aterkirik ez nuen jaitsi, burua busti zitzaidan. Hala esaten zuen behintzat jendeak, “kaleak gero eta zikinago daude.” Beno, ez dakit zuzen zer esaten zuten, baina horren antzik bazuen. Putena nire ikuspuntua da. Nik kalea gero eta putagoa dela esaten dut. Zapaldua izaten da behin eta berriz, berriz. Bost pausotan zapaldu nuen kalea, estankora iritsi arte. Zapaltzean, nolabait, bortxatua sentitu behar du. Baina behar du. Behar du. Camel bat, mesedez. Txanponak mahai gainean utzi nizkion. Zapalduko ez bagenu, edo udazkenaren gorritasunaren berri ez dutenek zigarretak amatatzeko erabiliko ez balute, kalea izango al zen? Edo izango al zen kalerik?

Kaleak, zapaldu beharreko puta zikin bat izaten jarraitzen du.

Beste sei pausotan zapaldu nuen, etxeko eskaileretara iritsi aurretik.

Hiru solairu zein oinez hasi pentsatu aurretik, han nuen eskuina lehenengo eskaileran. Azkenekoan ere eskuina nuen. Giltzak atearen begia zirikatzeke prest zeudela, zerbaitek momentu hura atea zabaltzeko erabiltzea galarazten zidan. Bazen usain bat, barneraino sartzen den usain horietako bat. Begiak itxi behar izan nituen, usain ezagun hura baieztatu ahal izateko. Laket zait beltzaren sunda; orduan ere bai. Giltzez ate-begia zirikatu eta barrura sartu nintzen inolako inertziarik gabe. Camel paketea sakelan nuela ziurtaturik, logelara abiatu nintzen, kafe usainaren indarra kanpoan baino gehiago sumatzen nuelarik. Modu batean, barmana bezala, katua irudikatu ezinik eta irudikatu behar nuena katua ote zen jakin barik. Sekula itzaltzen ez dudan jazz melodia kexatiei jarraituz iritsi nintzen logelara. Pake-tean agertzen zen gameluari begira zigarro bat atera nuen, eta kixkeroaz berau piztean, gameluaren eraginez-edo, gaurmahaiko kaxoian nuen kosto zatiaz oroitu nintzen. Baina hori segundo bat besterik ez zen izan. Hurrengo segundoan, paketea han nonbait botata, sukaldera joan nintzen. Bidean ez nuen pentsatu sukaldean izango zenari zigarrorik eskaintzea, baina bai, ketan harrapatzen ditudan malkoak bezain garden ikusiko ote ninduen zigarro haren ostean.

Jada nahiko gertu ikusten nuen ate itxiari zorrotz begiratzen nion. Nire begiek atearen bestaldekoa ikusi nahi balute bezala. Bi pauso. Bat. Atea zabaldu egin zen. Baina ez nintzen ni izan. Barre txiki bat eginez, ezer esan gabe, laster bizian komunera joan zen neska hura baizik. Betiko niki berbera zuen jantzia. Arrosa eta minimizatua. Titiak baino zerbait beheragotik hasi eta titiak baino zerbait gorago amaitzen zitzaion. Ezer erakusteko asmorik gabe,

baina zerbait badela ziurtaraziz janzten zuen mahuka gabeko tela zati hartatik ihes egiten zuen tatuai berezia erakutsiz joan zen, eta nik kafearen bila jarraitu nuen. Sukaldean barneratu eta, bi pauso ezkererago, han aurkitu nuen beltza, bere usainaz sukaldea kolonizatzen. Eta ni, koloniza nintzala desiratzen. Ezin nezake azaldu tatuai nolakoa den. Esan dezakedan bakarra da nik berdinek ezin izango nukeela egin. Irudi bitxi bat eragiten duen orbain beltz bat dirudi. Beltza, nire eztarritik nabigatzen zihona ere. Eta orain berriz, horia; garagardotan ez naiz itoko, ez oraindik behintzat.

Orduan ere segundoak igarotzen ziren. Agian ez horren makal ordea. Segundo batetik bestera, lau segundo igarotzen dira. Hatzez kontatzeko astia izaten dut. Zerbezari trago bat kentzekoa eta zigarroa, azken tiro batez amatatzekoa. Gauza gehiegi dira segundo batean egiteko. Segundo luzee-nak ere segundo bat besterik ez luke izan behar; orduan bezala. Orduan, segundorik eternoena ere, segundo arruntak lez iristen zen minutura. Justu-justu izan nuen astia, kafeari trago bat emateko, niki arrosak bigarren agerraldia egin aurretik, atearen ostetik. Ez zuen hitz asko egin, baina egia esan, ez nintzen neu ere asko harritu. Hitz gutxiko neska zen hura. Baina bazekien hitzak euren lekuan jartzen. Berak esandakoaren lekuan beste zerbait esan ezker, errore bat izango balitz bezala.

Jada, eztarria kolonizatua neukan beltzez eta baldosak kontatzeko gogoia etorri zitzaidan. Kontatzen hasi nintzen, bada. Pauso bat eskuineratu nintzen, kafea eskuan, baldosak perspektiba hobea batean ikusi ahal izateko. Hirugarren baldosa, pitzatua dago eta zazpigarrenean burua altxatu nuen kafeari trago bat kentzeko. Ekintza hori gauzatzen nuen momentuaren iraupenean, behin ere ikusi ez nizkion

pijama batenak ziruditen galtza motz turkesak begirutzen nizkion; erakargarritasuna beraiekin daramaten izterrak agerian uzten zituen. Bazirudien berak ere baldosak kontatzea gogoko zuela. Ez zion begirik kentzen hogeita seigarrenari. Ez dakit zer zuen hain berezia, niri ez zidan ezer esan behintzat. Kafea koilaraz bi biratan nahastu eta berriro zenbatzen jarraitu nuen.

Ez nituen beste hamalau baino gehiago zenbatu, nire kondena erabaki zuen segundo hura saihestea lortu ez nuen arte.

Badirudi baldosa hark gauza larregi esan zizkiola, izan ere, neure gainera jausi baitzen, edo jauzi baitzuen. Berehala sumatu nuen bere mihia nire aho barneko geografia aztertzen. Eta nire mihia, nirea berean zen ohartu gabe, neu ere aztertzen. Eskuak, berei laguntzen nien, nire kamiseta galtzetatik ateratzen. Eta mihiak oraindik aztertzen. Eskuak bere bizkarra lastantzen jarri nituen. Azal hura ukitzen nuenan sortzen zidan zirrarareagotuz. Elektrizitateak lehen aldiz ezagutu zuen ene gorputza. Kortozirkuitu bako korrante elektriko bat sortu genuen. Eta han sumatzen nuen, bakoitzean, joaten eta etortzen, joaten eta etortzen. Eta mihiak oraindik aztertzen. Nire galtza bakeroek jada ez zeukaten gerrikorik sostengatzeko, beraz, beherantz zihoazen inolako laguntzarik gabe. Bost hatz sumatu nituen galtzetan barna. Ipurmasaila osoki bereganatu nahi balute bezala zen, ez zuen asmatzen nondik eutsi ordea, edo asko gustatzen zitzaion gorputzen geografiak aztertzea; eta niri ez zitzaidan axola aztertua izatea. Laster jaitsi zuen beste eskua lepotik, berau lastanduz. Eta mihiak oraindik aztertzen. Galtzak, jada lurrean nituen bost hatzen eraginez. Ni bere niki arrosa kentzeko intentzioak gauzatzen ari nintzela, maniobra azkar batez, bira erdi bat eman genuen, eta bera mostradorearen gainean eseri zen, kafearen ondoan. Kendu nion



arrosa, ez zeraman sostenik. Nire eskuak, erabateko azkartasunez, bular horietara zuzendu nituen; neuk ere ez nekien nondik eutsi, baina berdin zitzaidan, kontua, ukitzea zen; erabateko ukitzea. Gu bion artetik apenas igaroko zen airerik. Bere eskuak orain ez zeuden nire galtzontziloen “lycra” ukitzen, bere barnean aurkitzen ziren akoplaturik, jada nondik eutsi asmatua zuelarik. Modu trakets batean, bere pijama turkesa kendu nion bere kuleroak agerian utziz; minimizatuak hauek ere. Eta mihiak oraindik aztertzen. Neska berriro jaitsi egin zen, eta jada nire gorputza estaltzen zuen tela zati bakar hura kentzen hasi zen. Nik berdin erantzun nion. Larrugorritan, guztia desberdina izaten da; gure zirkuitua bizitu egin zen, gero eta azkarrago joaten eta etortzen zen. Ipurmasailetatik eutsi eta lehenago zen lekuan pausatu nuen. Kafearen ondoan. Nire zakila biziki gogortua zen, jarri berri zidan preserbatiboaren barruan ere. Eta segundo bat nahikoa izan zen, bai, segundo bat, besterik ez, elektризitatea baino zerbait gehiago izateko joaten eta etortzen zen hura. Eta mihiak oraindik aztertzen. Izerdiz bustitzen ariko ginen, gure erritmoaren azkartasunagatik-edo kafe kikara sukaldeko atearen aurka irten zenean. Ez nuen ikusi nola irten zuen airean, baina gogoan dut, nola ateari eman zion kolpearen soinuak begiak irekiarazi zizkidan. Ez ginen geratu, baina ni ateari begira nintzen. Kafea atean geratu zen orbain beltz bat zen, atean behera zabaltzen erreka txikietan. Eta mihiak oraindik aztertzen, eta gu joaten eta etortzen. Orbainak eskularru beltz baten itxura hartu zuen. Atearen azala limurtzen zuen narruzko eskularru beltz baten itxura. Zenbat eta gehiago so egin, gero eta garbiago ikusten nizkion hatzak eskularruari, gero eta errealago zen.

Kortozirkuitua gauzatu zen, azkenik. Eskularru hura ni nintzen. Eta erreka txiki haiek ez ziren erreka txikiak. Nire

bizitzak isurtzen dituen ibai beltz txikiak ziren. Eskularru horrekin tarauturiko bizien odol beltzezko ibaiak. Bat-batean nire burua sukalde hartatik aldendu egin zen. Nire izatearen beltza aztertzen hasi nintzen; beltz asko nabaritu nuen nire izatean. Gehiegi, leku aldendu hartan gehiago iraun ahal izateko.

Berriro sukaldean aurkitu nintzenean, ezin nion atean topatu nuen izateari begirik kendu, ezinezkoa zen. Korrontea, jada ez zen gogoz jarraitzen nuen zerbait; berak ninderraman, joan-etorri haietatik irteteko nuen inpotentzia aprobetxatuz. Luzeak izan ziren, nire izateak izutu ez ninduela adierazi nahi zuen aurpegiaz, korronteak bonbillarik piztu ezingo zuen momentu hura iritsi aurretiko segundoak.

Garagardoari azken trago bat eman eta zigarro bat isiotu ondoren, jaiki eta kanporantz abiatu naiz. Irteeran ez dut ikusi barmanik.

*“Pero la vida sigue igual”* esaten zuen hark. Baina nik ez. Eta ezingo nuke esan, ez baita bizitza propioa, engainatu daitekeen zerbait. Ez dira nire begiak berdinak. Beltz gehiegi ikusi dute. Berdina dute oraindik aurrean, beltza. Eta beltza ilunegia ote? Iluna behintzat bada. Beltza, munda gainera jaustean ikusi zenuen beltz hura. Burua bustitzen ari zait, eta zigarro busti bat dut berriro hatzen artean. Lehenago hasia neukan bidea jarraitu dut, taberna baino haratago dauden eskailera ia kamuflatueta.

Eskailerak banan-banan hasi naiz igotzen, eramango nauten destinoa inoiz desiratu ez dudana bezala desiratzen dudalarik. Baina, hala eta guztiz, lasaitasun osoz txandutzen ditut oinak gorantz egiteko. Behera begira noa, goian iluntasunak eskailerak jan baititu. Iluntasunak guztia jaten du, eta ni bere ahorantz noa, banan-banan. Eskailerak ilunaren

ahotik irteten zaizkit, igotzeko esanez bezala; igo egiten naiz, bada. Eta ahoa, beti, ni baino pauso bat haratago joaten da. Ez nau jan nahi, ez oraindik behintzat. Laster ez dut eskailerarik izango, zerua gertuago eduki ahal izateko, eta, ahoak, zer jango du orduan? Beheko eskailerak jaten hasiko da agian. Hirurogeita hamazazpigarren eskaileran ia entzun ezin dudan zerbait entzuten dut. Gero eta gorago, garbiago eta ozenago entzuten dut. Ez dira doinu zerutiarrak, ordea.

Jazza da. Sekula itzaltzen ez ditudan melodia kexati berberak. Zeinen ederra den, euripean zigarro busti baten konpainia soilean, jazz entzule bat izatea. Ilargia ere bertan da; niri so. Baina ez nau argitzen; argiak ere ez nau jan nahi. Tabernaren gainean aurkitzen naiz. Laugarren solairuko apartamentuen teilatu zapalaren gainean. Ostikoa emateko gogoa jartzen duen poste txiki horietako bat dago teilatua-ren gainean, baina postea baino tximinia dela diot nik. Ertz batera arrimatu naiz, pauso sosegatuz. Aurrean, lau solairuko beste edificzio bat daukat. Hirugarren solairuko apartamentuak pertsiana bako logela bat dirudi. Leihoak zabalik ditu, euri tantei kristalean dantza egitea galaraziz. Beraz, barrura sartzen dira, logelako zoruan dagoen “Camel” paketean dantzatu ahal izateko. Eta, beste behin, ezaguna zait leku honetan aurkituriko oro. Guztia erraietaraino jakingo banu lez. Iluna, ilargia, poste itxurako tximiniak eta nire logelako tabako pakete bustia; teilatu honen amildegian traizionatu nauen guztia.

Jazza ere traidorea da, eta nire katilua bertara hustu dut. Ez da urruti izango kalibrea.



## **Zurekin eta zu gabe**

Oihane Zelaia Markuerkiaga  
Ondarroa-Lekeitio institutua  
Ondarroa



Giltzari ezkererantz beharturiko bigarren biraketak egiaztatu dit kanpoan zinela. Ordu erdiren buruan bazkal-tzera etorriko zara etxera, betiko legez. Azkar ibili beharra daukat, horrelakoetan denbora inoiz baino azkarrago joaten baita. Zuzenean logelarantz gidatu naute oinek.

Ohea deseginda? Ez da ohikoa zugan, Hasier, txukuntasunari diozun errespetu maniatikoa kontuan izanda. Noski, gauean futbola ikusten gelditu zinen eta gero goizean arrapaladan ibili behar.

Armairua ireki eta urte erdi arinago mundua jan nahi genuen garaian erositako mendiko motxila, existitzen ez diren hainbat igandetako ibilalditxoen lekuko izan dena, bere lozorrotik atera dut. Motxilari ahoa ireki eta hiruzpalau kamiseta, bi praka pare, barruko arropa eta toaila batekin ase dut. Gainerakoak aurrealdean. Zerbait ahazten zaidan susmoa daukat... ai, bai, aterkia. Besterik? Ez, ez dut uste.

Beno, ekipaia behintzat prest. Orain dirua, telebistaren azpiko kaxoian oker ez banago.

Egongelarantz nindoala gau-mahaiko argazkiak begirada bereganatu dit. Matxitxakoko faroan gaude biok; zuk zure begirada berde iluna nirean iltzaturik daukazu eta nik gazte maiteminduaren liluraz begiratzen dizut. Zuri, Hasier, Antartika osoa urtzeko bezalako irri bero batek arratoi hortz ilara zuria agerian uzten dizu. Eta niri aurpegia argitzen didan irribarre garbi bat loratzen zait, erlea lorean baino zoriontsuago aurkitzen bainaiz zuri eskutik helduta, haurra banintz bezala.

Hasperen luze batean kanporatu dut, lipar batez bada ere, oroitzapen eder hura.

Madrilera joateko aurreztuta geneukan diruaren erdia hartzea iruditu zait bidezkoena.

Erlojuan eguerdiko ordu batetik aurrera doaz orratzak; jode, gehiegi luzatu naiz. Orain zurekin tupust egitea besterik ez zait falta. Urduri nago, bihotza larrituta daukat korrika saio bat egin izan banu bezala.

Zuregandik urruntzeko desirak, arnasa hartzeko nahiak, agian burua lausotzen dit eta, egia esan, nahiago dut horrela izatea, ez baitiot damuari lekurik utzi nahi. Ez, erabakia hartua dago jada, eta agian gero atzera buelta egitea zilegi izango zaidan arren, arriskatu beharra daukat gu bion hobe beharrez.

Ez dakit ihesaldiak zenbat iraungo didan, apika hiru egun, aste bete, hiru aste... bihotzak esango dit. Egunen batean barkatuko didazulakoan nago, ordea, gutxienez ulertuko didazula, eta itxaropen apur horri oratzea nahiko dut egin beharrekoaz jarraitzeko.

Guztia prest, begirada batekin agurtu dut etxea. Giltzen saskitxoari etxeko atearekin ezkontzen den giltza eta sorta horretakoak lapurtu eta ateari danbateko bat eman diot. Giltzari eskuinerantz bi dantzaldi eragin, eta han utzi dut etxea, gu bion etxea. Noiz arte? Batek daki.

Azkar ibili beharra daukat denbora ez baitzait zain geldituko. Eskailerak pauso bakoitzeko bi maila irabaziz jaitsi ditut, motxilak ez baitit horretarako inolako oztoporik eragiten.

Etxeko ataritik irten bezain pronto jaioberria den udazkeneko haize hotzak arropa gutxiegi hartu ditudala adierazi dit. Iparretik hodeiak ubeldurik datoz, zalantza izpirik gabe zeruak euri mehatxua dakar, primeran.



*Seat Ibiza*ren maleteroa ireki eta bertan giltzapetu dut motxila. Automobil barruan sartu eta irratia piztu dut, ozen, nire barneko ahotsa, zalantza eta galdera atergabearen hasi zaidana, entzun nahi ez dudalako. Ixo, orain utz nazazu bakean, mesedez.

Motorra martxan jarri eta atzerantz begira, ezkerreko eskua bolanteari helduta eta eskuina atzeko besaulkiari besarkatuta, autoa aparkalekutik atera eta bidaiari ekin diot; Bartzelona izango dut helmuga.

Lehena eta gorrian. Akaso oharpen bat izango da, egitera noana lelokeria hutsa dela aditzera emateko eta geldituko naiz, bai, baina soilik kolorez aldatu arte. Gero neure bideari jarraituko baitiot. Berdea.

Bermeotik zenbat eta urrunago orduan eta askeago sentitzen naiz. Bere kaiolatik ihes egindako txoriari hegan eta hegan indarrak ahitu arte aurrera eta aurrera askatasunaren bidean jarraitzen laguntzen dion desio berak bultzatzen nau ni neu ere aurrerantz. Nire kaiola, ordea, ez da herria, zu zeu baizik.

Telefonia hoska. Orain ez, Hasier, ezin diezaioket telefonoari erantzun, ez zenidake ulertuko eta are gutxiago barakatuko. Mozarten melodia goxoak nekatu arte iraun du.

Geldiune bakarra Zaragozako gasolindegian egin dut, autoari gasolina eta nik betiko *Winston* paketea erosi ahal izateko. Nekeak banku batean jesarrarazi nau. Zigarro bat isiotu eta gogo betez irentsi dut lehendabiziko kealdia, birkentzen azken txokoraino helarazi dudana. Zenbat bider esaten didazun zigarro madarikatuek, teniak bezala, barrena pixkanaka-pixkanaka jaten didatela... Hamaika errietaren pizgarri dugu gai hau, ezta, Hasier? Aitzitik, ondorioen gaintik jarria daukat plazera.

Euria izan dut zazpi ordu eta erdiko bidaiaren etsai.

Bartzelonaren atarian sakelako telefonoari soinua kendu behar izan diot, ez zara aspertzen, eta Mozarten melodia gero eta desatseginago egiten zait, zarata izatera heldu den arte.

Berdin zait non hartuko dudan ostatu, ez daukat herrian bueltaka ibiltzeko asmorik, nekatuegi nago horretarako. P hizkia ikusi dut etxe baten atarian eta han hurbil aparkatu dut autoa.

Trin-trin-trin, badirudi etxe honetan ez dela inor bizi. Ba, bai. Bizipozik gabeko begirada batek arakatu nau goi eta behe. Emakume lodikoteak ile zuriak beltzak baino gehiago orrazten dituen arren ez dirudi berrogei urtetik gora dituenik. Ahots zakarra dauka, gozotasunik gabea, bere irudiarekin bat datorrena. Baietz esan dit, baduela niretzat leku bat. Baldintzak azaldu, giltza eman eta etorritako bidetik desagertu da.

Pisua ez da batere abegikorra, niretzat diot, zomorroek gauetz jai pribatuak antolatzeke bikaina baita. Ohe bigunegi bat, sitsen bazkari izandako armairu zaharkitu bat, ispilu erdi hautsi bat, bonbilla ilaun bat eta ireki ezinezko leiho bat, besterik ez.

Dutxa bero bat hartu dut, bidaiaren ahulezia-arrastoak gutxienez azaletik kentzeko. Goizean edandako te huts batekin, gasolindegian erositako txorizo bokata batekin eta atzazalekin lortu dut sabela atzipetzea. Holako sentimendu ilun bat baitaukat urdailean, bihotzaren zokoren batetik haraino etorria, jateko gogoa lapurtzen didana.

Haria ebakitako txotxongiloa banintz bezala erori naiz ohe gainera. Loak minutu gutxitan harrapatu nau.

Goizeko hamaikak eta erdietan eman diot hasiera egun berriari. Zu izan zara nire lehen pentsamendua. Lehena,

bigarrena... eta momentu orotako pentsamendua. Nola ote zauden galdetzen diot neure buruari, behin eta berriz, imajinatu dezakedan arren. Ez daukat damurik ordea; horrela izan behar du, azken batean zuk zeuk bultzatu nauzu erabakia hartzera. Egunak dauzkat hara eta hona ibiltzeko, noraezean, haizeak naraman lekura, eta denbora horri zukua aterra beharra daukat.

Jantzi eta ispilu erdi hautsi hartan neure buruari azken orrazketak eman dizkiot. Duda-mudatan nago, sakelako telefonoa hartu bai hartu ez. Hobe aldean eramaten badut, gero amari deitzeko.

Kanpoan udazkeneko eguzki hotzaren mehetasuna sentitu dut aurpegian.

Kafetegi dotore batean sartu eta bertan gosaldut, bi magdalena kafesne berotan bustita.

Beno eta orain zer? Egia esan berdin zait norantz jo, nire helburua ez baita herrian zehar turismoa egitea, nire buruan eta bihotzean baizik. Autoan pentsatuko dut zer egin.

Autoranzko bidean emakumezkoen ezkontzako jantziak dauden denda baten aurrean gelditu naiz.

Laster, soineko zuri batekin, printzesak baino ederrago, zure eskua emango didazu eta orduan bai, nirea izango zara betiko, munduko gizonik zoriontsuena egingo nauzularik. Orain dela hilabete esan zenizkidan hitz horiek. Nik, konplizitatez beterikoa izatea nahiko nukeen irribarre batekin erantzun nizun, ongi nekien arren, irribarre hori koldarkeria ezkutatzeko erabili nuela.

Gazteegia naiz, hogeita hiru urte bete berriak ditut, nik maite zaitut, zuk maite nauzu, eta hain gazteak eta zoriontsuak izanik ezkontzea premiazkoa al dugu? Ezkondu beha-

rra ote dago zurea eta soilik zurea izango naizela ziurtatze-ko? Bi urte daramagu elkarrekin, hiru hilabete pisua konpartitzen eta akaso ez al dizut esaten gure maitasuna zementuz eraikia dagoela eta ez dagoela munduan, lurrikararik, uholderik ezta haize-erauntsirik ere hura hautsiko duenik? Tamalez, zuretzat hitz hauek eta beste asko maku-lu eskasak dira.

Malko gazi-goza bat epel eta lodi sentitu dut, masailetik behera. Nire saminak irentsi eta zartako batez xukatu dut lausoa. Bideari jarraitu diot.

Hamabiak dira dagoeneko? Gizon horrek katalan itxura dauka, agian jakingo du non dagoen turismo-bulego bat. Autoko leihatila jaitsi eta itaundu egin diot, gazteleraz noski. Hatz erakuslearekin lehendabizi bere burua seinatu eta ondoren parabisaren mugimendu beraz mugitu du; laburbilduz, senak huts egin didala.

Hainbat bueltaren ondoren aurkitu dut turismo-bulego bat. Autoa leku onean atsedean hartzen utzi dudala aprobe-txatuz, bertarainoko ibilalditxo oinez egitea pentsatu dut. Azkenean eskuratu dut ditzosozko gida-liburua.

Sakelako telefonoan, zure bederatzi dei galdu ditut, inondik inora ere ez duzu etsitzeko asmorik; beti izan zara kaskagor hutsa, astoa bera baino burugogorra.

- Bai?
- Ama? Naia naiz.
- Naia, baina non arraio sartu zara? Egun osoa igaro genuen Hasierrek eta biok zuri deika. Okerrena pentsatzen hasita geunden, emakumea. Baina, baina, non demontre igaro duzu gaua?

- Zera, ama, Bartzelonan nago.
- Bartzelonan? Jainko maitea, jakin liteke zer galdu duzun zuk Bartzelonan?
- Ama, orain ez nago azalpenetarako. Ongi nago, bale? Ez kezkatu.
- Ez kezkatzeko? Alaba bakarra hortik galduta eta ez kezkatzeko diozu? Zure aita ere atzean utziko duzu zuk!!
- Ez zaitetz horrela jarri, ama. Faborez, ez iezaiozu esan Hasierrri Bartzelonan nagoenik. Bila etorriko litzateke, ezagutzen duzu, eta ez dut nahi. Esaiozu ongi nagoela eta lasai egoteko, itzuliko naizela.
- Sinestezina da zurea! Hamaika entzuteko jaio gara gero! Senargaiari ezer esan gabe Bartzelonako puntarra alde egitea ere! Horrelakoak zuri bururatzen zaizkizu soilik! Hasier koitadua! noiz eta Madrilera joateko ilusioaz beteta zeundetela... Begira eh...
- Ama, ez naiz ume moko bat! Benetan, laster itzuliko naiz eta orduan hitz egingo dugu, patxadaz.
- Ez dakit zertan zabiltzan, baina ez zait batere gustatzen. Eta ez pentsa hau horrela geldituko denik!
- Beno, ama, orain utzi egin behar zaitut; mesedez, ez esan ezer Hasierrri.
- Naia, kontuz ibili gero, entzun?
- Bai, ama, nirea beteko dudala agintzen dizut eta berdina espero dut zugandik. Lasai egon, laster itzuliko naiz. Musu asko, agur.
- Naia...

Klik. Bere hitzak zintzilik gelditu dira airean. Orain hobeto sentitzen naiz, arindu txiki bat sumatzen dut bederen. Badakit amak nola edo hala zu lasaia egoatea lortuko duela eta horrek hobeto sentiarazten nau.

Ordu laurdeneko ibilalditxoa daukat autoraino. *Llobregat* jatetxea, menu polita, bazkaltzen geldituko naiz. Katalanek zikoitz eta diruzale ospea daukaten arren, bi lagun asetzeko beste janari gozo atera didate, eta prezio onean. Hala eta guztiz ere, eskupekoaren platera hutsik, diruarekin zuhur ibili beharra baitaukat, egonaldia espero baino gehiago luzatzen bada ere.

Arratsaldean portu alderantz jo dut. Inondik inora ez dauka Bermeoko kaiaren xarmarik, hango txalupa txikiak, hango arrantzale xumeak, hango usaina...

Moilako banku batean eseri naiz itsasoari aurpegia harro emanaz. Ia kresal-usainik gabeko Mediterraneoako haizeak, jostari, hara eta hona mugitzen dizkit ileak.

Eskuina txaketaren eskuineko poltsikoan hondoratu dut, betiko *Winston* paketea atera eta zigarro bat lapurtu diot. Sutu, atxiki luze bat eman eta modu etsian, indarrik gabe gelditu banintz bezala kanporatu dut kea, etsipenez, saminez...

Maitasunak besoak ireki eta beregana erakartzen zaitu, iman erraldoi bat balitz bezala; eta okerrena da ohartu gabe bere gatibu amaitzen duzula, armiarma sarean eroritako eulitxoak bezalaxe, preso, konturatu orduko ezinezkoa egiten zai-zularik ihes egitea... horrelakoa da maitasunaren indarra.

Sarri ito egiten nauzu, Hasier. Zure begien zama, momentu oro, gainean sentitzen dut, egiten dudan urrats bakoitza, mugimendu bakoitza... kontrolatu nahi izaten didazu, eta benetan, jasangaitza egiten zait oso.

Ez dakit konturatzen zaren baina burbuila batean bizitzera behartzen nauzu, besteengandik bereizita, zu eta ni, ni eta zu, eta ez beste inor. Ezagutu zintudanetik izan zara jeloskorra baina zurea, denboraren poderioz, nolabait esateko, obsesio bilakatzen ari da.

Gau batean, pisua erosi berri genuen garaian etxera heldu eta eskua igo zenidan, parrandan genbiltzala lagun nuen mutil bati musu eman niolako. Momentu hartan beldurrak goi eta behe astindu ninduen. Nire begien aurrean, jotzeko prest zegoen gizon hura zu zinen, Hasier, eta ez beste inor. Ez zinen jotzen ausartu, aitzitik, eskua igotzea nahikoa izan zen nire bihotzean zugarako beldurra pizteko. Gau hartakoa izozturik gelditu da nire buruan, amesgaizto askoren irudi bilakatu delarik. Ez nuen sekula uste izango horretara helduko zinenik. Ez dugu gertatu zenaz sekula hitz egin, bai zuk eta bai nik ondotxo dakigun arren hori hor dagoela. Eta berriz gertatzen bada? Sarri damua ikusten dut zure begi berdeetan, barkamen eske. Zorionez ez da berriz errepikatu; baina burbuilak hor jarraitzen du, alde batetik babesten eta bestetik itotzen nauen burbuila madarikatuak.

Ez dut horrela jarraitu nahi, ezin dut, gure maitasuna amilduz doala iruditzen zait eta horregatik ihes egin behar dut zugandik, nire sentimendu guztiei taxuzko ordena eman ahal izateko.

Zuk bihotzean piztu didazun maitasun-sua ez dago itzalita, Hasier, baina beldur naiz, asko gainera; maitasuna sarri, sua bezalaxe, itsua baita.

Eguneko bigarren zigarroari amaiera eman eta autorantz abiatu naiz.

Gida liburua lagun dudala, Bartzelonako txokorik ederrrenak bisitatuko ditut.

Arratsalde osoan hara eta hona ibili naiz, nora ezaren nora ezaz galduta, buruan pentsamendu bakarraz.

Erdi irekita daukadan autoko leihotik Bartzelonako gazteen larunbat gaua entzuten dut. Beti izan ditut gogoko jai giroak, zuk ez bezalaxe. Ai, Hasier, hain gara desberdinak biok... hotza eta beroa, eguna eta gaua.

Bokata bat afaldu eta pisurantz abiatu naiz.

Ohea inoiz baino gusturago hartu dut. Orain begiak itxi eta loaren zain gelditzen naiz. Alferrik, loa lapurtzen baitidazu.

Zure hutsunea sumatzen dut ohean, zure presentzia beharrezkoa zait. Zure gorputzaren epeltasuna, fereka leunak, zetazko ukitua duen eguneko azken musua... baina batez ere zure arnasa sentitzea zait premiazko lotarako orduan, han zaudela, nire ondoan eta ez beste inon, ni babesten, ni zaintzen, adierazten didan sehaska kanta.

*Bakarrik utzi nauzu mundu honetan, Naia, bakar-bakarrik.*

*Orain ez daukat bizitzen jarraitzeko adorerik, arrazoirik ere ez baitaukat, ihes egin didazulako, abandonatu egin nauzulako, zapata zaharrak uzten diren bezalaxe, hor botata...*

*Arnasa bezain beharrezkoa zintudan, zu zinen nire bizitzako euskarri eta niregandik alde egin duzu.*

*Itsaso haserreak aparra sortzen du nonahi.*

*Ez dizut errurik leporatu nahi ordea, egia esan banekien egunen batean egingo zenuela, arinago edo beranduago...*

*Barkatu, Naia, joder, barkatu. Badakit zer pairarazi dizudan, zinez diotsut badakidala, baina beldurrak, zu galtzeko beldurrak, horrela jokatzera behartzen ninduen eta orain*



*begira zer lortu dudan... Hain izan zara beti arina, pinpilin-pauxa bezala lorez lore ibiltzekoa, eta nik nirea, soilik nirea izatea nahi nuen. Eta hori ez nuen soilik zure hegoak ukituz lortuko, ez horixe... loreengandik aldendu araziz baino.*

*Haizeak gogor astintzen du nire alde.*

*Benetako infernua lurrean dago, ni lurrean ezagutzen ari naiz behintzat, orain zer datorren jada berdin zait.*

*Maite zaitut, Naia, inor ez bezala maite zaitut eta orain zu gabe, zurtoinik gabeko landare zapuztu bilakatu naiz.*

*Nik neuk hil dut gu bion maitasuna, nik neuk itzali sua, orain berandu da ordea damutzeko...*

*Noizbait barkatuko didazulakoan nago, maitea.*

*Pauso bat, azkena, eta dena bukatuko da. Adore pittin bat... kitto.*

Begiak ireki ditut, kolpetik. Arnasestuka, bihotzak bularretik irten beharrean, blai-blai aurkitzen naiz. Arnasa sakonki hartuz nola edo hala, estuasuna baretzea jadetsi dut.

Naia, zer egin duzu! Barkatu, laztana, koldar hutsa izate-agatik, arazoan aurrean egiten den gauzarik errazena egiteagatik: ihes. Sekula ez diot neure buruari barkatuko, zuk ez zenuen horrelakorik merezi. Nahiago dut zure mirabe egon, zure ondoan ito, zугandik urruti bizi baino. Bikote bat osatzen dugu eta elkarrekin egon behar gara bare eta ekaitz aldietan; harri berberean bi edo hiru edo hamaika aldiz erortzen bagara ere berriz zutituko gara aurrekoan baino kemen gehiagoz aurrera jarraitzeko, biok batera, elkarri lagunduz.

*Bermeoranzko itzulera amaigabea egin zait, bukaezina.*

Arratsaldea ez da urruti Bermeora heldu naizenean. Autoa aparkatu eta segundorik galdu gabe etxerantz jo dut.

Urduritasunak eskuan eragiten didan dardarak giltza sarrailaren ahoan sartzea zailtzen dit, badirudi mozkortuta nagoela.

Atea ireki dut. Arren... Ai ama! Zer gertatu da hemen? Guztia txikituta dago, birrinduta. Bertan gelditu naiz, mugitu ezinik, sustraiak bertan banitu bezala, nire izua etxe gutira hedatzen den bitartean, zu ikusi zaitudan arte. Nire poza azaldu ezina da, neurtu ezina. Negar egin gura nuke.

Harriduraz begiratzen didazu, zure irudimenaren proiektio banintz bezala, sinetsi ezinik. Ez, Hasier, neu naiz.

Negarrez elkar besarkatu dugu, estu-estu, amultsuki, isiltasun mortu honetan hitzak soberan gelditu direlarik.

# **Negar malkotan bihotza**

Olatz Mitxelena Larreta  
Hautzaro ikastola  
Oiartzun



Emozio iturri diren ene begi hauen fruitu dira nire masail leunak bi errekatxo baliran zeharkatzen dituzten kristalezko malkoak. Emozio tanta hauek dira une hunkigarri honen isla. Gaur 2003ko azaroaren 5ean, 9 hilabetez tripatxo barnean eduki dudan semetxoa, behingoz, eskuetan har dezaket, bere bihotz taupadak sumatu, nire besoez inguratu eta babestu... hau izugarria da! Ez nuen sekula pentsatuko, hainbeste maite litekeenik, ezagutu dudala hain denbora gutxi den norbait... Gainera, dohatasun hau partekatzeke, nire alboan daukat, momentu oro, nire senar Ekaitz, une hau ez litzateke hain perfektua izango bera nire ondoan ez banu. Hainbestekoa da beragatik sentitzen dudan maitasuna... eta orain, nire eskuetan dut, bion arteko maitasunaren fruitua. Pozaren ziegetan gati-bu, berak ere lanbroturik dauzka itsasoaren pare diren bi perla distiratsuak. Ez dago hitzen beharrik, memento honetan nahikoak dira laztanak, musuak, begiradak... gure maitasuna islatzeko, adierazteko. Eki, berriz, isil-isilik dago, Ekaitzi so, bere esku ñimiñoekin zerbait harrapatu nahi balu bezala, apika ez da ohartu oraindik, ez duela eskuekin harrapatu beharrik bereganako maitasuna, jada gure maitasun guztia bereganatua baitu. Bere esku ñimiñoetariko bat hartu eta musu eman diot kopetan, jarraian, beste bat Ekaitzi, zenbat maite dudan azaltzeko. Hamaikagarren aldiz, bere esku sendoez laztandu nau, berak ere maite nauela adierazteko eta, aldi berean, leunki laztandu du Ekiren musu goxoa. Bere negarra izan da, gelaren jabe zen isiltasuna zatitu duen ezpata, eta goseak egongo zela jabeturik eskaini diot nire bularra, bere gosea ase dezan. Segituan, ordea, loak hartu du, ametsen munduan murgilduz, bera ere pozik egongo da gurekin dago-elako, irribarretxo samur bat eskegi baitu bere aurpegi goxoan, lasaitasuna islatzen duen irribarrea.

Ekaitzen itzala dirudi, ile beltzaz gainera, irribarrea ere berak bezain samurra baitu, 25 urteko diferentziagatik izan ez balitz, bikiak direla esango nuke, bata edertasunaren geriza eta bestea haren errainua. Denbora kontrolatzerik banu, une honetan geldituko nuke denboraren orratza, une honetan betiko, ez dadin maitasunaz gain borborka dugun zoriontasun hau apurtuko duen ez ordu, ez minutu, ez segundo bakar bat gehiago ere igaro. Eta horrela, ez dezagun izan elkarrenganako babes, laztan... gabeziarik, neguko hotzaldi eta ekaitzetatik babesteko eguzki izpien beharrean aurkitzen diren historik gabeko zuhaitz biluzien antzera. Hala ere, ukitu bat falta zaio une honi guztiz perfektua izateko: etxean egotea. Etxeko goxotasuna da falta zaigun osagai bakarra. Baina etxera heltzeko, beste bi egunez egon beharko dugu ospitale honetan, motzak egingo ez zaizkigun arren, itxarongo dugu.

Azkenean! Azaroaren 7a, goizeko hamarrak laurden gutxi, mendiak izara marroi gorrixka batekin atonduak, ortzia, berriz, urdinez jantzia eta bazter guztiak miatzen, hego haizea. Ospitalearen atarirantz maitasunez zipriztindutako hirukotea, zoriontasunaren errege-erreginak, printze txiki-txoa besoetan daramagularik, etxeko goxotasunaren bila. Autoan sartu eta etxerantz abiatu gara. Lasaitasun keinua dugu aurpegian, etxera heltzeko gogoaren bidezidorra luzatzen da, berriz, begiradan...

– Gogoan al duzu duela sei udazken, elkar ezagutu genueneko? –galdegin diot, oroitzapenen kutxa zaharrean hautsak kentzen hasiaz.

– Bai, nola ahantzi, bada, horrelako momentuak... –oroitzapenez zipriztindutako irribarrea luzatu zaio aurpegian, bera ere une haietan zehar bidaiatzen hasi bailitzan.

– Bakarrik geunden itsasoaren kresal usainaz eta ilargi betearen argipean babesturik eta zure ezpain samurretatik munduko bi hitzik politenak belarri ondora xuxurlatu zenizkidan...

– Maite zaitut...

– Bai... gure errainuak bat egin ziren, begiak itxita, samurki, goxo-goxo musukatu ninduzun...

Elkarri begira geratu gara, eta berriz ere une hura oroi-tarazi digun musu goxo bat eman dit, lotura guztietatik aske sentitzen ginen une hura, itsasoaren kresal usainaren sekre-tupean maitatu ginen une hura...

– EKAITZ!!!!!!!!!! KONTUZ!!!!!!!!

Begiak zabaldu nahi ditut... baina, zer da hau? Lau pare-taz inguraturik, putzu sakon eta ilun batean kateaturik egon-go banintz bezala aurkitzen naiz, ospitaleko gela hotz baten erdian, bakardadeaz lagundurik ohean etzanda, zangoak, besoak... ezin mugituz, zer gertatzen da hemen? Bat-batean oroitzapen gozo bat datorkit gogora, Ekaitzen musua... eta segidan, horma handi bat parez pare...

– Eki!!!! Ekaitz!!!!

Ingurura begiratu eta erizain bat dago niri so, ume bat besoetan duela... Eki! Ene altzoan jarri dit erizainak, nire babesa izan dezan. Begiratu eta irribarre bat eskaini dit, bere aurpegi txikitik ateratako irribarre txikia. Begietatik irrista-tutako bi emozio malkoz busti dut ohartu barik Ekiren masaila, irribarrea sorraraziz.

–Baina, Ekaitz, non da Ekaitz?

Oraindik ere gertatzen denaz ongi jabetu barik, buruko nahas-mahas hau alde batera utziz, maitasunaren indarrak

bultzaturik, lagundurik, Eki besoetan dudala atera naiz pasillo ilun eta monotono hartara, Ekaitz topatu eta bere besoan sendotasunean babesteko, bere hatsaren berotasuna sentitzeko... Bera ere gela hauetakoren batean egongo baita. Zehazki ez dakit zenbat denbora igaro den bere babesetik aldendu naizenetik, beregandik urrundu naizenetik, baina bihotzean zulo handi bat edukiko banu bezala sentitzen naiz, bere hutsunea nabaritzen dut... Ekaitzekin topatu eta Eki ondo dagoela esan nahi diot... Ez dut inon aurkitzen, ez dut inon ikusten, ordea. Etengabe datozkit gogora bere oroitzapenak, bata bestearen atzetik, irribarreak, malkoak, musuak, laztanak... denak nahasturik, guztiak korapilaturik, hormetan gora zerbait aurkitu nahian elkar kiribiltzen diren huntz adaxkak legez. Hamaika pentsamolde, hamaika oroitzapen, hamaika... denak batera. Une batez, Ekaitzekin igarotako momentu guztiak, zorion momentuak, pasa zaizkit begien aurretik, amaierarik gabe luzaro jarraitzea nahiko nukeen maitasun istorio gozo bat osatuz, nahiz eta jakin istorio guztiek badutela beraien akabera. Segundo batez, bukaera hori zein latza, zein etsigarria izango litzatekeen pentsatzen jarri naiz, nire gorputzaz hozkirri batez lagundutako urduritasun izara bat jabetu den arte.

Momentu batez, nire buruko nahaspila pixka bat argitzeko asmoz, pasilloko leihotik haratago zuzendu ditut ene begi txikiak, jada egonezin, beldur, ezjakintasun, urduritasunezko malkoz bustiak. Aske dabilta txoriak hego haizearekin jolasean, aske zuhaitz biluzien soineko izan diren hostoak, haizearen melodietan galdurik, eta ni, pasillo ilun honetan nora jo ez dakidala, Ekaitz topatu eta Eki ondo dagoela esan nahian, bere besoetan galdu eta izugarri maite dudala adierazi guran... Txoria izan nahiko nuke, hego haizearekin jolas egiteko, edota orain zuhaitz biluzi direnen



soineko izandako hosto, haizearen melodietan galtzeko...  
Baina nire pentsamenduek aurrera jarraitu arren, nik Eki  
besoetan dudala jarraitzen dut, basamortu dirudien zelai  
zabalean lore bila ari den erle babesgabe ñimiñoa banintzan,  
noraezean, nahia eta ezinaren gudan itorik.

Pasilloaren alde batean zabalik dagoen atera hurbildu  
naiz, sufrimenduzko arnas hotsaren sorleku den gelarako  
bidea irekitzen duen atera, Ekaitz hemen egongo den itxaro-  
penaz. Inguratu eta ohartu naiz, ordea, agure zahar bat dela,  
adineko emakume baten presentziapean, bere azken hatsak  
ematen ari dena. Ekaitz topatzeko itxaropenen iturria agor-  
tzen ari zait jada. Laster geldituko da udako beroaldietan  
euriaren beharrea aurkitzen den lorearen gisan, tanta barik.  
Erabat agortu artean baina, ez dut etsiko, eta horregatik aurre-  
ra jo dut bidezidor ilunean zehar, urratsez urrats, nire nekea-  
ren, ezjakintasunaren, urduritasunaren... oinatzak utziz.

Gela batetik norbait daramate izara zuri batez estalirik,  
kamilan ezarrita... Gaixoa! Zorionean emango al zuen  
behintzat bere azken hatsa... Ondotik igarotzean apur bat  
altxaturik zegoen izara artetik begiratu dut. Esku bat ageri  
da, esku hotza, hila... behatz lodian eraztun distiratsu bat  
duela. Ekaitzi, ezkontza egunean, oparitu nion eraztuna.

– EKAITZ!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

*“Negar malkotan  
lehertu zitzaion bihotza,  
ezereza bihurturik  
bizi nahiaren hotsa.”*



# **Malko gaziak**

Garazi Ugalde Pikabea  
Lezo institutua  
Lezo



Orain idazten ari naizen lekuan bertan ireki nituen begiak lehenengoz. Zerua gorri-gorri zegoen egun hartan eta eguzkiak azken izpiak eskaini zizkion munduari, hala zioen behintzat amak. Eguzkia lotaratu eta ilargi betea jaiotzearekin batera jaio omen nintzen ni ere. Hartatik pasa dira urte batzuk, baina lehenengo aldiz begiak ireki nitueneko paisaia bera daukat aurrean, mugagabea.

Hautzaroko oroitzapen gutxi gordetzen ditudan arren, gogoan dut, artean mutiko txikia nintzela, aitari itsasoa nola sortu zen galdetu niola. Atzo bertan izan balitz bezala oroitzen dut bere erantzuna:

– Ama lurra sufritzen ari da gizakiak min egiten diolako eta bere malkoak banaka-banaka pilatuz joan dira gizaldiz gizaldi.

Nolatan ez zen ikusten itsasoaren beste alde? Nola zitekeen hainbeste negar egitea? Noiztik ziren malkoak gazi? Eta zergatik hartzen zuten kolore urdin berde edo grisa? Zergatik zegoen itsasoa batzuetan harro, besteetan otzan? Zergatik egiten zuten bat itsasoak eta zeruak, gero-ora ortzia zela jakin nuen marra galdu hartan? Aitaren magalean jasotako hitzek eman zidaten zer pentsaturik hurrengo egunetan.

Amak eta biok mastan markatzen genituen ilunabarrak, marra bat eguzkia ezkutatzen zen bakoitzeko. Iluntzeak joan, iluntzeak etorri, han ibiltzen nintzen arrantzan, korapiloak egiten, belak konpontzen... Aitak zekien guztia irakatsi zidan ordurako. Marinel bikaina eginda nengoela esaten zidan harro.

Ilargi betea zen gauetan, kostaldeko herriren batean lehorreratzen ginen gure arrantzaren truke beharrezko gau-

zak eskuratzeko. Gehienetan aita izaten zen ur eta janari bila joaten zena, gutxitan eramaten ninduen berarekin. Gaua kaian pasa eta berriro ere belak zabaltzen genituen gure egunerokora itzultzeko. 215 ilargialdi banituen, eta mundu ezezagun eta bitxi harekiko jakin-min handia piztu zen nire barruan.

Itsasoak ordura arte bezala jarraitzen zuen, batzuetan bare, besteetan haserre. Ama-lurrak malkoak isurtzen zituen lantzean behin, eta eguzkiak keinu egiten zuen tarteka kotoizko hodeien artetik.

Goiz batean, aita izerditan blai esnatu zen. Amak eskua jarri zion bekokian eta bizkor uretan bustitako zapi bat ekartzeko eskatu zidan.

Aitak ez zuen hobera egiten, ohean jarraitzen zuen mugitu ezinik, geroz eta aurpegi zurbilagoarekin. Amak orduak ematen zituen ohe ondoan, geldirik, aitari begira, honela lehenago sendatuko zelakoan edo. Egunetik egunera ahulago ikusten nuen, indarra galtzen ari balitz bezala. Sukar altuarekin jarraitzen zuen, eta onena mediku batek ikustea izango zela erabaki genuen.

Oihalak zabaldu nituen. Ni nintzen une hartan belauntziko kapitaina, aitaren lana bete behar zuena. Haizea lagun, gertuen zegoen kaian lehorreratu ginen. Untzitik jaistean zirrara batek zeharkatu zidan gorputza, baina denborarik galdu gabe lagunduko zigun norbaiten bila hasi nintzen, ama aitaren alboan utzita.

Herrixka txikia zen hura, harrizko etxetxo josirikoa. Alde guztietara begiratu, belarditxo batean amaitzen zen kale estu bat zeharkatu nuen. Erreka bazterrean neska gazte bat ikusi nuen makurturik arropa garbitzen. Soineko zuri

bat zeraman soinean, besoak bistan utzi eta hankak belau-  
netaraino estaltzen zizkiona. Ilunabarreko eguzkiaren  
koloreko ile kizkurra zuen, atzealdean bildurik. Liraina iru-  
ditu zitzaidan oso.

Beregana hurbildu eta herriko medikua non bizi zen gal-  
detu nion, aitaren egoera larriaren berri emanaz. Neskak  
arropak bertan behera utzi eta lagunduko ninduela esan  
zidan ahots ezti batez.

Herriko plazako etxe dotore batean bizi zen sendagilea.  
Teila gorritzko teilatua zuen etxeak, albo batean tximinia txi-  
ki bat zuena. Uso arre bat ikus nezakeen tximiniaren gaine-  
an. Bi leiho handi zituen aurrealdean, gortina zulodunez  
apaindurik. Neskak egurrezko ate sendoaren aldaba jo zuen  
lau bat aldiz.

Isilik egin genuen gizon hark eta biok porturako bidea.  
Izututa nengoela salatzen zuten nire bihotz taupada gero eta  
azkarragoek. Medikua aita oso gaixo zegoela esan zigun;  
hiriko ospitalera eraman behar genuela sendatuko bazen.

Trena hartu nuen lehen aldiz. Ez zuen gure belauntzia-  
ren antzik makina ikaragarri hark. Leiho zabalean islatuta  
ikusten nuen aitaren aurpegi indargabea.

Trenetik jaitsi eta zerurainoko etxeak ikusi nituen.  
Aurrerago lurra zulatzen ari ziren tresna erraldoi batzuekin.  
Zarata handia zegoen: autoak, kamioiak, lantegiak... Doto-  
re jantziriko jendez gainezka zegoen leku beldurgarri hura.

Ospitalean bere gaitzak sendabiderik ez zuela esan eta  
hiru egunera galdu genuen aita. Bere errautsak itsasora bota  
genituen amak eta biok. Maiteen zuen lekuan zoriontsu  
izango zen betiko. Momentu hartan, masailetik beherako  
malko iheslari batekin batera, bere hitzak etorri zitzaizkidan

gogora: “Ama-lurra sufritzen ari da gizakiak min egiten diolako eta bere malkoak banaka-banaka pilatuz joan dira gizaldiz gizaldi.”

Orduantxe ulertu nuen zer esan nahi zidan aitak hitz haiekin, eta baita itsasoan zergatik bizi nahi izan zuen ere. Nik ez nuen mundu hura atsegin, baina amak ez zuen lehengora itzuli nahi izan aita hil ondoren.

Arropa garbitzen ezagutu nuen neskari bihotza ukitu zion gure istorioak, eta etxean hartu gintuen denboraldi baterako. Maddi zuen izena. Neska atsegin eta sentibera zen; hitz gutxikoa, baina begirada batekin guztia adierazten zuena.

Ama ez zen lehengo bera izan aita joan zitzaigunetik, bere begiek ez zuten haurra nintzeneko distira bera. Gau batean lotara joan eta ez zen gehiago esnatu. Aitarekin elkartuko zela esan zidan Maddik, eta nik ere hori sinistara zi nahi izan nion neure buruari.

Askotan esaten nion egunen batean itsasora itzuli nahi nuela, ez nintzela lehorrean bizitzeko jaioa. Maddik gustura entzuten zituen nire nahiak, baita elkar ezagutu aurreko bizitzaz kontatzen nion guztia ere. Bere aita ere itsasgizona izan omen zen, Ameriketara eginiko bidaia batean ekaitz bortitz batek irentsi zuen arte.

Emeki-emeki maitasuna sortu zen gure artean, eta bihotza ireki genion elkarri. Pasiozko gau asko igaro genituen elkarrekin; atsegin nuen gauero bere burua nire bularrean sentitzea.

Itsasorako grinak bultzatuta, belauntzia hartu genuen, norabiderik gabe nabigatzeko. Amets bat zirudien hark guztiak, baina nire betiko bizilekura itzultzeak hamaika oroi-



tzapen berpiztu zizkidan. Jada ez nintzen nire familiarekin bizi eta hori ez zitzaidan batere samurra egin. Orain, ordea, maite nuen neskarekin nengoen eta zoriontsu ginen.

Gaur nire alabatxoak ikusi du itsasoa lehenengoz. Ilunabarra da eta zerua gorri-gorri dago. Eguzkiak azken printzak eskaini dizkigu oraintxe. Maddi daukat ondoan, burua nire sorbaldan, haur ttipi eta babesgabea besoetan duela. Orain familia bat gara, eta berak ere ontziaren kulunkarekin egingo du lo goxo gaur gauean.

Inoiz gure alabatxoak itsasoa nola sortu den galdetzen badit, zera erantzungo diot: “Ama lurra sufritzen ari da gizakiak min egiten diolako eta bere malkoak banaka-banaka pilatuz joan dira gizaldiz gizaldi.”



# **Soriako botijoa**

Raquel Moreiro Cantalapiedra  
Iparragirre institutua  
Urretxu



Zorabiatzen hasia naiz. Dena nire inguruan jiraka eta biraka daukat. Zer gertatzen da? Ni ari ote naiz bueltaka?

Goxo-goxo eta lasai nengoen tokitik ekarri nauten geroztik hau da atarramentua, busti eta orain hemen nago zoratu beharrean, heldu naute eta, plasta! hor non bota nauten bueltaka dagoen mahai baten gainean, hemen ez dago gauza onik.

Konturatu naiz norbait ari dela eragiten eta bat-batean esku busti batzuek estutzen naute, hau da estuasuna, zertan ari zarete, ezin dut arnasarik hartu, ito egingo nauzue! Buztin pila bat naizela badakit, baina horrek ez dio inori baime-nik ematen tratu hau emateko. Zergatik ekarri naute menditik hain gustura nengoen tokitik?

Badirudi nire kexak entzun dituela, eta orain suabeago hasi da igurtziak ematen, hau beste gauza bat da, zer gustua, horrela segitzen badu lo hartuko dut, puf!, eskuak berriro busti ditu, hau freskura, ez dago lo hartzerik inola, eta gainera hau da itxura hartzen ari naizena, mundiala, borobila, sudurra ere ipini didate, atzean mototsa ere badut eta orain, zer da hau? diadema dotorea gainean. Hau itxura! Eskuan duen soka horrekin zer egin behar ote du honek? Ras! Ipurditik ebaki nau eta orain nora narama? Ah, eguzkitara, oso ondo, nahiko ondo nabil, egoera hobetzen ari zait, lehenago goxo-goxo igurtzi eta orain epel-epel eguzkia hartzen.

– Kaixo, zer moduz hago?

– Zer, nirekin ari haiz?–, erantzuten dut aldamentetik norbait ari zaidala konturatzen naizenean.

– Bai, berria haiz ezta? Begira egon gaituk nola nagusiak forma ematen zian. Guztiak antzeko formarekin ateratzen gaitik, ez diat uste elkarren inbidiarik izango dugunik.

- Esadak, non gaudek?
  - Ezta ideiarik ere, ni hire aurretik etorri nauk eta ez diat galdetu. Itxaron pixka bat, hauei galdetuko zieat... Sorian gaudela ziotek.
  - Sorian, eta zer duk Soria?
  - Ba, egia esan behar badiat ez zeukaat arrastorik ere, bakarrik zekiat mendian ederki nengoela eta handik ekarri nauten ezkerro, errukirik gabe astindu, nahastu eta busti ondoren, potolo itxura hau eman didatela eta azkenik hi bezala eguzkia hartzen ipini nautela.
  - Eta hor dauden kutxa horiek zertarako dituk?
  - Nik ere galdera berdina egin diat ekarri nauenean eta esan didatenez gu azokara eramateko erabiltzen ditiztek.
  - Azoka, azoka, zer duk azoka?
  - Ez zekiat, baina diotenez harantz joandakoak ez omen dituk gehiago etortzen. Hi, aizak, berria izateko gehiegi galdetzen duk, erantzunak bukatzen ari zaizkidak!
- Ondoan zegoen gure antzeko batek, antzeko esan dut zeren eta zeharo bihurria eta pitzatua baitzegoen, honela zioen:
- Aspaldian hemen nagok eta zuek bezalako botijo asko ikusi dizkiat, harroak eta lardenak, baina labean sartu eta margotu ondoren hemendik desagertzen dituk betiko, ni nauk beti gelditzen naizena labe barruan istripu bat izan eta elbarria gelditu nintzelako, bazirudik nagusiari grazia egi-ten diola nire formak.
  - Nola deitu gaituk, bo-ti-jo-ak?
  - Bai, botijoak, eta labean egosiak izango zarete eta ondoren margotuenak, loreak, marrak edo “Recuerdo de

Soria” idatziz. Suertea baduzue bizitza luzea eta alaia izango duzue, auskalo nora joango zareten.

– Baina gu ez gaituk hi bezalakoak, kolorea argiago diagu eta ahotsa ere hirea baino sendoagoa, zeharo desberdinak gaituk.

– Ni ere zuek biok bezalakoak ninduan, labeko zuloan sartu eta ataka itxi zutenean hasi zituan kontuak aldatzen, kristoren beroa pasa nian eta nuen ahots sendoa eta kolore argia betiko galdu nizkian. Ikusiko duk zuei ere nola aldaturko zaizuen.

Zaharraren esanak benetan kezkatua utzi ninduen, baita ilusioz betea ere bai, hurrengo egunetan gertatuko zena-  
ren zain.

Labean sartu gintuztenean izerdi ederrak bota genituen, sauna batetik irtetea bezala atera ginen, pisua ondo galduta eta tenple ederrean, irteeran nagusiak ematen zigun kaskarrekoa, klok-klok, agoantatzeko moduan, eta ondoren margotzera eraman gintuzten. Esku onetan geunden, maitasunez tratatzen gintuzten, eta ontzi txiki baten bustitako makilatxo batekin margotuak izan ginen.

Ni harro nengoen “ Recuerdo de Soria” idatzi zidalako, besteek berriz ez zuten suerte hori izan, berezia sentitzen nintzen, izan ere besteak baino zertxobait garaiagoa nintzen eta behar bada horregatik izango zen.

Nagusiaren etxean, apal batean egin nituen hainbat egun, eta beti bezala ez nekien zertan nengoen, duda egiten nuen botijo zaharrak esandakoa egia ote zen, baina arratsalde batean mugimendua sumatu nuen geunden gelaren inguruan, eta nagusia, aurreko egunetan kezkatzen ninduten kutzak eskuetan zituela, sartu zenean poztu nintzen.

Poztu eta egia esateko urduritu ere bai. Zer gertatu behar zait pentsatu nuen.

Hurrengo egunean, egunsentian, artean ilun zegoela, nagusia nire ingurura etorri zen, lastoz betetako kutxa bat eskuan zuela eta nire lagunei agur esateko astirik eman gabe bertan sartu ninduen. Ez naiz gogoratzen zer pasatu zen ondoren, ilun zegoen eta ez nuen ezer ikusten eta egoera hartan lo egitea zela onena erabaki nuen, nire inguruan nuen lastoaren goxotasunean, pentsatu eta egin, lo gelditu nintzen, toki zaratatsu eta argi batera ailegatu arte.

Nagiak atera eta prestatu nintzen ondoren izango nuen egoerari frente egiteko, nahiz eta ezjakintasun guztia nirekin izan.

Derrepente, konturatu orduko, han nengoen mahai baten gainean, beste botijo ezezagun batzuen ondoan. Hainbeste jende nire ingurutik igarotzen ikusteak urduri jartzen ninduen. Begiratu eta alde egiten zuten ezer esan gabe. Zer gertatu behar zitzaidan? Halako batean jende zurrumbilo bat izan zen gure ondoan eta gure mahai astindu zuen, denok mugitu gintuena, eta zoritxarrez nire lehen laguna, ordura arte ikusi gabe neukana mahaitik erori eta, katakrok! Bertan txikituta gelditu zen. Akabo! Bakarrik gelditu nintzen, beste batzuk baziren nire aldamenean, baina ez zuten nire mailarik, ez ziren botijoak.

Poliki-poliki lasaitu nintzen, inguruan ziren besteak egoera berberean zeuden eta bat-batean gora begiratu eta kartel handi batean idatzia zegoena ikustea lortu nuen, “Recuerdos de Soria-Souvenirs” eta poztu egin nintzen niregatik zela pentsatuz. Baina, zein ote da Souvenirs?, ziur hauetako lepo handiren bat dela, pentsatu nuen.



Gure aurrean, zintzilik, “ I ♥ Soria ” idatzia zeukaten kamisetak salgai zeuden, eta inguruan beste saltzaile batzuk, baina botijo gehiago ez zen inon agertzen. Jendea hara eta hona zebilen eta zarata ikaragarria zen.

Noizbehinka gure nagusiak sekulako deiadarrak egiten zituen,

– Soriako botijoak!, eros ezazue zuen lagunentzako opari eder bat!–, aspertu zen arte. Orduan egunkaria hartu eta irakurtzen hasi zen:

“Erretzaileak gehitzen ari dira munduan.”

Hau irakurri zuenean errauts ontziak egiten hasi behar zuela esan zion aldameneko puestoan zegoenari, botijo bat bera ere ezin zuelako saldu. Berriketan ari zela, jende multzo zaratatsu bat inguratu zen, nagusiak bere lagunari jubilatuen txangoa zela esan zion eta aprobetxatu beharrean zegoela zer-bait saldu nahi bazuten eta taldetik emakume bat begira nuela ikusi nuen eta ondo aztertu ondoren eskuetan hartu ninduen.

– Botijo ederra daramazu, etxeko-andre, –zioen nagusiak– ur freskoa edateko moduan izango zara aurrerantzean.

– Ez dut uretan erabiltzeko nahi, nire semeak botijo bilduma dauka eta berari oparitzeko da. Zenbat balio du?

– Oso merkea da, duen kalitaterako, gainera zure semearen bilduman ederki emango du, berri-berria dago eta ez dauka inongo urraturik, labetik irten berria dago.

Nahiz eta asko ulertu ez, konturatu nintzen nitaz gauza politak esaten zituztela eta horrek harro sentiarazten ninduen, eta berriro sartu ninduten kutxa beltzeko lasto artean.

Egunak pasatu ziren eta halako batean iritsi zitzaidan kutxatik irteteko garaia, baina barruan nengoen artean entzun nuenak ez zidan grazia gehiegirik egin.

- Egun on, seme.
- Egun on, zer ekarri didazu oraingoan?
- Baaaa, oraingoan uste dut asmatu dudala, zure bildumarako botijoa.
- Zer ederki, non erosi duzu, zaharkin-denda batean?
- Eeeez, Sorian, ni bezalako jubilatuekin egindako bidai batean.
- Historikoa al da?
- Jontxo!, historiko-historikoa ez da izango, baina gustatu egin zitzaidan eta ekarri egin dizut. Orain ere ez al dut asmatu?
- Baina, ama, nik botijo bereziak biltzen ditut eta hau berriz turistentzat egindakoa da, besteen ondoan ez du ondo emango, jubilatuek edozer gauzarekin itsutzen zarete, baina ekarri duzunez gero egingo diot lekua, bestela haserretu egingo zara, eta gainera karteltxoia ere ipiniko diot:

“Soriako botijoa, amaren oparia.”

Eta konturatu gabe han jarri ninduten beste hiru botijo zaharren erdian. Hauek ez zeukaten nirekin zer eginik, bat zegoen atzeko mototsa erdi puskatuta zuela eta gainera pitzatua zegoen, bestea berriz azal gehienak harrotuta eta gaineko diadema eta sudurrak zartatuak zituen, hirugarrenak berriz, nahiko nahigabe pasatako itxura zeukan, baina tente eta harrokeria guztiarekin. Ni haien ondoan dotorea nintzen.

Laster konturatu nintzen ondoan zuten karteltxoez, batek zioen: “Manoleteren botijoa”, besteak, “Casa da Campo-ko botijoa” eta itxura kaskarrena zuenak, “Ventosa-

ko botijoa”; nik ez nuen izango historiarik baina edukitze-ko, hauen itxura eduki behar bazen, nahiago nuen ez izan.

– Kaixo, gazte.

– Zer, nirekin ari al zara?– erantzun nion harrotasun puntu batekin.

– Bai, hirekin ari nauk, zer berri dago munduan?

– Nik dakidala ez da berririk.

– Nola ez dela berririk, gu hemendik kanpo ginenean egunik ez zuan pasatzen zerbait gertatu gabe eta orain diok ez dela berririk? Hi nondik ekarri haute?

– Ni azokan erosi eta hemen nago, ez dakit besterik. Lokatza nintzen, moldatu, labean berotu ninduten eta besterik ez dut ikusi. Ba dago zerbait gehiago?

– Ene gizajoa, hik ez duk ezer ikusi oraindik, inoiz ez haute urez bete eta ez dakik zertarako egina izan haizen, horregatik hago hain berria, gu hirurok bizitza luze baten jabe gaituk. Ni ospe handiko toreatzaile baten botijoa ninduan eta berarekin munduan zehar ibili ninduan, egun batean zezen batek hil zuen arte. Autoaren gainean eramaten ninduen, haizea hartuaz eta bazterrak ikusiaz. Itsasoa ere ezagutu nian, hura bai ur pila! Munduko botijoa sentitzen ninduan. Geroztik esku askoren tartean ibili nauk hona etorri arte. Oraingo bizitzaz nazkatuta nagok, eta nahiago nian nire nagusi toreatzailearekin batera gelditu izan banintz hauts bihurtuta, hainbat alditan elkarrekin izan ginen bezala. Berak ni zaintzen ninduan eta nik berarentzako ur freskoa gordetzen nian. Hura bai zela bizitza!

– Eta hik, ez daukak ezer kontatzeko?– galdetu nion ondoan apal-apal eta isilik zegoen botijo zahar eta potoloari.

– Ba, ni, berriz, ez naiz munduan zehar ibili, beti herri txiki batean egon izan naiz– erantzun zidan Ventosako botijoak– baina ez nuke aldatuko nire bizitza. Beti urez beteta, lanean ari zirenen egarria asetzeko prest, ia beti umeen eskuetan eta noiz eroriko ote nintzen beldurrez. Lagun asko galdu nituen iturri ondoko askaren ertza jota edo sorora bidean gindoazela, umeen eskuetatik erorita. Hala ere, kas-karreko batzuk hartuak izanagatik hemen nago. Ezin ditut ahaztu beraien barreak eta garrasiak edo nigandik ura eda-terakoan, nola heltzen zidaten, ezpainekin, sudurra eta ama-ren titia banintz bezala nigandik asetzen ziren. Nik ere ez nuen hemen bukatzea espero, baina nire nagusiak hil egin ziren eta beraien semeak hi bezalako botijo berri batekin azaldu zen etxean, eta ni han gelditu nintzen bazter batean, oraingo nagusiak aurkitu eta hona ekarri ninduen arte.

– Ba, nik, hauen aldean jende ugari ikusi dut, –esan zuen “Casa de Campo-ko botijoak”, inork galdetu gabe, harrokeriaz betea–, desberdina, batzuk handiak, besteak txikiak, beltzak, horiak, hitz egiten zutenean tutik ere ulertzen ez nienak eta abar. Ni hiriburuko botijoa naiz, esku askotan erabilia, gizakiaz ilustratua, ni nengoen tokitik pasatzen ziren eta nire nagusiari dirua ordaindu ondoren, barruan neraman ura edaten uzten zien, baina ura edateko modua berezia zen, dena segidan, ni jaitsi gabe, bestela berriro ordaindu behar zuten edan nahi izanez gero. Karteltxo bat nuen ondoan: “Un trago, una peseta” jartzen zuena eta husten nintzen bakoitzean, iturrira eraman eta bertan betetzen ninduen. Gero nagusia galdu nuenean, “Rastro” deitzen den azoka handi batean erosi ninduen eta hemen nago, apaletik noiz erori zain betiko bukatzeko. Hau ez da ni bezalako botijo batentzako lekua! Zer suerte, urarekin daramatzate-nean erorita puskatzen diren botijoak!

Zorabiatzen hasia nago, uste nuen zerbait nintzela, ederra eta berria nintzelako, baina hutsik nago, hutsik barrutik eta hutsik bizitzaz, inoiz ez naute urez bete eta ez naiz egin nindutenerako erabilia izan. Nahiago nuke hauek bezala pitzatua egongo banintz eta bizitza betea izan banu. Ez ahal nau nagusi honek, nola ez nauen bere gustuko, lagunen bati oparituko, hemendik irten eta bizitzen hasteko. Zer sentitzen ote da ume baten ezpainak ukitzean? Amets egin behar dut.



# **POESIA. A maila**

Batxilergoak  
Erdi Mailako Heziketa Zikloak





# **Bihotz urdinak kale grisetan**

Josu Martinez Martinez  
Gabriel Aresti institutua  
Bilbao



## ZAZPI KALEETATIK

Zazpi Kaleetatik paseatzea gustatzen zait,

Gazte antiojodun batek  
bi turista holandar aurreratatu ditu bizikletaz  
ziztu bizian.

Ziutateko mapek hegaz egin dute  
paperezko abioiak baliran,  
eszenari so dagoen nigeriar inmigrantearen  
Top manta-ko diskoekin nahastatuz.

50 urteko emakumeak erosketa  
konpulsiboek ekinez  
ahaztu nahi du bere senar ohia.  
Zortzi poltsa bete ditu dagoeneko,  
bi esku dauzka.

Usoak ikaratzera jolasten zen haurra  
ikaratu egin da  
hiritxori harro bat mugitu ez  
eta ia eskuaz ukitu duenean.  
Begiak umeldu zaizkio.  
Besotan hartzeko eskatu dio amari,  
euskaraz.

Ile urdindun gizonari,  
ezkondu zenetik bertan bizi ondoren,  
gaur esan dio bere etxean dagoen plakak  
han Jose Antonio Agirre bizi izan zela

Bi gazte ari dira  
etsai politikoaren kartelak kentzen,

begi niniak herraz margoturik,  
hauteskunde usaina dagoelako.

Eskale bat hurreratu zaio  
bankuan egunkariarekin dagoen neskari.  
50 zentimo eskatu dizkio  
eta bizitza duinago bat.

Unamunoko yonkiak txirularen artean  
akordeoiaz Montiren Czardak  
jotzen dituen mutil poloniarra baino  
traketsagoak izanagatik,  
amama zimurtu batek  
2 euro bota dizkie katilura.  
Dosi baterako iristen ez zaienez  
bokata bat erosi dute,  
zakurrarentzat.

Zazpi kaleetatik paseatzea gustatzen zait

## BERANDU DARRAIE

*“Baina alferrik da berandu dabiliza eta ez dute ezer  
lortuko honezkeru” in Etiopia*

*Bernardo Atxaga*

Eguneroko bizitzak ikatza bezalako labezomorroak  
isurtzen jarraitzen zuen,

25 urte beranduago.

Bernardori SMS bat bidali zion bere osaba batek urte-  
betetzean, postalaren orde. Stop.

Kloroformo forma berri bat sortu zen kezka existentzia-  
laren gaitza sendatzeko: telebista.

Eta iraganari atzo deitzen hasi gintzaizkion lagunartean  
eta etorkizunari herenegun.

Eskale bik, zaborretan bila zebiltzala, topatu zuten kon-  
doi kaxa kadukatua.

Amaiak hiru hatz sartu zituen ahoan berriro potoloegi  
nago eta abar, ya te digo.

Bere lagun ikusezinak utzi egin zuten betiko betaurreko-  
dun ume marjinatua.

Eta lau uso hil ziren elektrokutatuta ziutateko kabletan  
pausatzean, snif snif.

Gure arreba txikia lagunekin lotu zen asteko paga den-  
daz denda xahutzeko, go shopping.

54 urteko andre deprimituaren ispiluak bere buruaz beste egiten zuen, errudun sentituz.

Amona zaharrak bere agonian eutanasia legezta zedin eskatu zion jainkoari, otoi erruki.

Eta bitartean etxeko koloretako arrainek kristal barrutik flipatu egiten zuten, koloretan.

Gazte iraultzaileenak paperik ezean Manifestu Komunistarekin garbitu zuen ipurdia.

Nerbioiko kaioak kereilatu egin ziren, derechos de imagen gora behera, PPren aurka.

Maitasunak gose greban jarraitu zuen nire buruak bere monopolioa onartu zuen arte.

Eta mendiak neguaren aitzakiapean limoizko izozki bilakatu ziren, acid rain badakizu.

12 sator berri sartu ziren Kaputxino, fraideak itsuak zirela aprobetxatuz, Jo eta Ke.

Zubipeco biztanleek gerra deklaratu zioten Genitiboaren botere faktikoari eta izenlagunei.

Ez zuen Ruperrengan pentsatzen “Ez da posible ” oihukatu zuenean bulegari estresatuak.

Eta lagunekin kaniketan jolasten zen, denborarekin bortxatzaile profesionala izango zen haurra.

Errutina gaingabetua maitasunez mozorrotu zen eta obsesioa maiteminez, love me more.

Leihoetan eskegitako soinekoek jabeena bezain hutsa sentitu zuten haien barrena.

Esperantza zoologikoan sartu zuten desagertzeko arriskuan dauden espezieen sekzioan.

Eta neguritarren alaba pinpirinak bikotea aurkeztu zien gurasoei: emakume nigeriar bat.

Biolin sentimentalak negar egin zuen Barrenkaleko kantoi zaharretik, Masseneten ahotsez.

Alkoholaren bertsio merke batek konortea lapurtu zion hazi gabeko nerabe lotsatiari, K.O.

Pintada bat agertu zen katedralean: “argitzen duen bakarra sutan dagoen eliza da.”

Eta prostitutek prentsurrekoa eman zuten puta seme guztiak ez zirela eurek erdituak aldarrikatuz.

EGAko tituluak banatu zituzten, lehenengo, zozketaz eta, ondoren, karameluak baliran.

Fatimak malkoak xukatu zituen zeraman bonba Kabuleko busean lehertu aurretik, boom bang.

Bihotz urdinak txistuka zebiltzan kale grisetatik noraezean, bihotz inkomunikatuak.

Eta eguneroko bizitzak ikatza bezalako labezomorroak isurtzen jarraitu zuen,

25 urte beranduago ere.





# **Heriotzari ongiatorria**

Jon Fernandez San Martin  
Ondarroa-Lekeitio institutua  
Ondarroa



## **Gizalarruzko maskara batek**

Teloia behera,  
Newtonek irabazi.  
Bukatu da antzerkia,  
antzeztea.  
Kamerinora noa,  
ispilura,  
ni neu izatera.

## **Gorbatadun maletatxo suizida batek**

Sargoriak bustita.  
Aurpegia izerdiz,  
eztarria egarriz.  
Izerdia gose zait  
gauerdia eguargi.  
Birikak gaita  
bihotza tinbal.  
Altzairuzko makarroia  
ahoa barrura,  
sabelean tanta bero batekin.  
Makarroi hotza  
mingain hezea.  
Atzaparrak laban  
Italiarra ahosabaiaren ferekan.  
Jaurti dit hazia,  
metalezko izerdi tanta.  
Lurrean naiz urtua.

## **Orbitatik kanpoko satellite batek**

Planeta urdin batean  
egunero-egunero ospatzen dute  
Heriotzaren solstizioa.

Txatarrazko satellite ezdeus bat,  
desorbitatik,  
so dago, pentsakor:

Hauen egutegian  
markatuko ote  
Bizitzaren solstizioa?

## **Ilargi maitemindu batek**

Itsasoa du retro-bisore  
ilargi lotsatiak.

(h)ura ispilu,  
ilargia ez da Nartziso.  
Ispilua lupatzat du  
bere maitaleari so.

Ilargi zuria  
islarekin ez da ase  
eta aurrez aurre  
behar du  
maitalea.

Zita itsua eskatu dio maitaleari.  
Gaur da eklipsea.

Suarekin oheratzen dena  
errautsez lurperatzen dutela  
itsasoa da lekuko.

## **Egurrezko beroki batek**

Egurrezkoa naiz  
eta ez harrizkoa!

Hilotz guztiak janzten ditut  
eta taxi-lana bete.  
Helmugaraino kargatu arren  
Neu ere lurperatu naute.

Egurrezkoa naiz  
eta ez harrizkoa!

Neuk ere bizi nahi dut, ze demontre!

## **Kalatzori autista batek**

Abere herabea  
erabat bakoi  
ur bare-barean.

Lazun zikin bat  
sartu zaio sabelean.

Hegoak gogoz  
go-gora gotor.

Haratagotik at,  
astronauta tankeran  
astro horirat.

## **Bizitzak, heriotzaren anaia batek**

Bikiak  
oso ondo molda daitezke.

Baina, hau,  
ez da kasua.

# **Barrutik itxitako ateak**

Josu Martinez Martinez  
Gabriel Aresti institutua  
Bilbao





Historiako irakaslea arbelera gerturatu zenean,  
klariona gorri bat eskuan hartu  
eta tonu epiko batez hasi zen hizketan.  
1936a urte latza izan zela idatzi zuen,  
letra larriz “Euzko Gudarostea ” gero,  
emozioak ihes egiten zion begietatik  
eta guk, liluraturik,  
imajinatu egiten genituen gudari haiek:  
ausartak behar zuten,  
gure borrokarako erantzunak  
arbela betetzen zuten letra gorrietan bilatzen genituen.  
Hamar minutu beranduago klasea bukatu zen.  
Atsedendialdiaren ondoren bueltatu ginenean  
arbela hutsik zegoen,  
ikasleek  
matematikan pentsatzen genuen zegoeneko.  
Ez zen ageri inon 1936,  
“Euzko gudarostea ” desagertua zen,  
klariona gorriak idatzitako hitz haiek  
galduak ziren betiko,  
ahantzuraren erresumara igorriak  
gudari zaharren odola bezala.

## OGI HANDI BAT

*Euskara, habil mundu guzira  
(Bernard Etxepare)*

Innsbrucken nengoen oporretan,  
edo Salzburgen bestela.  
Nire alemaneraren hedadura ez da  
("ja" eta "nein" barne)  
dozena bat hitzetara iristen.  
Hangotarren gaztelaniak  
("si" eta "no" barne)  
bi hitz konprenitzen ditu.  
Horregatik, Hermann okinari  
"ogi handi bat" eskatu nionean  
euskaraz zuzendu nintzaion;  
hitzok astiro ahoskatuz,  
keinuz lagunduz;  
beste behin esan nion.  
Irribarrez  
"ich verstehe jetzt" erantzun  
eta ogi handi bat atera zuen mostradoretik.  
Hurrengoan, ez nuen  
birritan esan behar izan  
"Ogi handi bat" eskatu  
eta Hermannek ulertu zuen.  
Hirugarrenean keinuak ahaztu nituen,  
hala ere Hermannek  
"ogi handi bat" eman zidan.  
20 egun egon nintzen Salzburgen,  
edo Innsbrucken,  
azkeneko egunetan Hermannek  
okindegira sartzen ikustean  
galdetu ohi zidan:  
"ogi handi bat??"

## 28 LERRO

Lotsaren errepublikan bizi gara.  
Gaur, Enekok eta Eiderrek  
Somera kalean ikusi dute  
logelako lau hormak betetzen dituen kantaria  
eta zerbait esan ordez  
elkarri ukondoka hasi dira.  
Bidebarrietaraino jarraitu diote,  
disimulu handiz.

Josebak amaren arropak jantzi ditu  
ispiluaren aurrean  
eta bere buruari “Miren” deitu,  
gurasoak etxera sartzen sumatu dituenean  
soineko guztiak armairuan sartu  
eta barrutik itxi du atea.

Leire, ordea,  
gaur zen kantatzekoa herriko plazan  
bere lehenengo bertsoa,  
ondo ikasia zeraman etxetik.  
Mikrofonora gerturatzean  
400 begi gosetik jan dute.  
Ihesi joan da handik,  
korrika,  
atzera begiratu gabe.

Nola diren gauzak,  
nik ere,  
maite zaitudala esan nahi nizun,  
“maite zaitut ” baino ez  
eta 28 lerro behar izan ditut.



# **Bakarrizketa**

Xabier Perez de Mendiola Etxezarraga  
Arratia institutua  
Igorre



Hondarreko hiltamuan  
Etsipenez miresten haut  
Ahalguztidun buruzalea

Zoriontasunaren arantza  
Golardorik ezagutzen ez dinan bahitzailea  
Maitatuenen lapurra  
Esperantzaren borrero

Ulertezinaren azalpen  
Kasualitatearen estatistika  
Oinaze pairaezinen askapen  
Kale egin dinanaren xede

Salbatzaile eta galmen  
Patuaren epaitza  
Ezagutzaren antitesi  
Plan biribilaren giltzarria haiz

Nire azken arnasan  
Ezintasunez behatzen haut  
Adingabetasunean murgildurik hagoen esku hotzetako dama

Fusilamenduaren atarian  
Distantziakidetasun amaigabea  
Gudariaren itxarote estuan  
Otoitz gogorapen damu

Labirinto seinalatuan barrena  
Hausnarketa bekaiztian naraman  
Amaierarik gabeko bukaerara  
Hire erretirora

Azkena naun  
Azkena  
Basamortuko azken harri-koskorra  
Antzua ene herentzia

Agortu dun bizitzaren iturria  
Mintasun atsekabe gutizia  
Ez zagon inor  
Ez zagon inozorik hi saihestu nahian

Ameslariak gintuan amesgaiztoen antzokian  
Handiusteak izaeraz  
Inperio hilezinean  
Utopia errerealaren aitzindariak

Irudipenen unibertsoan atzena  
Hilobi anonimoen letradu  
Gainerakoen eledun  
Nirea eginkizun prestua

Paradisu idealerako bidean  
Errukiz agurtzen haut  
Betiereko izaki dohakabea



Ezezagunari ikara al dion?  
Denboraren zamari?  
Etorkizunari?  
Abantaila zekenen ordain saria esperoan

Bizi hadi itxaropen kamutsen munduan  
Errauts hondakin lorratz artean  
Bakardadea lagun  
Isiltasunaren garrasi eta iluntasunaren begitazioekin

Bizitzaren pasabideetan soineko anitzez apainduta  
Buruharro lotsagabe henbilena  
Hire nagusitasunaren bukaera naun  
Baina lasai  
Ez haiz sekula hilko.



# **Zorionaren patua**

Amaia Gezala Ortiz  
Talaia institutua  
Hondarribia



## **Azken mintzoa**

–Begi-zulodun dama eder,  
baduzu ezer sakelan?

–Gosea.

–Begi-zulodun dama eder,  
baduzu ezer munduan?

–Nekea.

–Begi-zulodun dama eder,  
baduzu ezer gainean?

–Biluzia.

–Begi-zulodun dama eder,  
baduzu ezer zure barnean?

–Hildako bizia.

## Azken pausoa

Eri zoaz.

Bidean zehar

tristurak zauritua.

Kontrako norabidean

bidali zaituelako.

Arima gabe

gorputzik gabe

hotz,

huts,

hautsaren pareko

lurrean barreiatua.

Haizeak beste lurralde batera

noiz eramango zaituen,

zain;

han berpizteko,

berriz existitzen

hasteko,

bihotz berrituak ezagutzeko.

## Azken malkoa

Zoriz hilkor.  
Egun ilunen jabe  
gau argien ameslari.

Bihotza negarrez,  
amaren ipuin goxoak  
masailetan behera irristaka,  
malenkoniaren atsegin eztiz,  
izan nahiz baina  
ezin izanaren ezinaz.  
Ezin berriro loratu  
lokartutako lorategia.

Zoriona ezagutuagatik  
berriro zoriontsu izatea  
baztertzen.

Iribarre faltsuen mundua,  
aldagaitza zara zerez?  
Bekokia noiz jaitsiko  
zain,  
denbora luzez,  
itxaropen hutsez...  
Itxaropen hutsez biziz,  
askatasun egarriz,  
maitasunean sinetsiz.

Gorputza minez.  
Goserik ez,  
baina...  
gosea asetzeko  
besteak janez.

Urteak ihartu ahala  
ohiko legea nagusi:  
zaharrek berri  
eta berriak zahar.

Amaren ipuin goxoak irristatzen  
Ikusi ditut ikusi,  
zure masailetan behera.  
Oroitzapenak berregin nahian...  
oroitzapenak  
oroitzapen.

Zorionez hilkor.

### **Azken loa.**

Bihotza itxi eta  
Begiak isildu dituzu.



# **Hutsa**

Olatz Ibarluzea Santisteban  
Larramendi ikastola  
Mungia



Ezer ez da hutsetik hasten,  
Ezer ez da hutsean amaituko.

Soinuak,  
isiltasunaren oinazea jarraitzen du,  
melodia zahar batean  
hiltzen den arte.

Argiak,  
iluntasunaren oinazea jarraitzen du,  
Bonbilla zahar baten dardaran  
hiltzen den arte.

Ez da hutsetik hasten,  
Ez da hutsean amaituko;

Baina bizitza, zer?  
Hutsean hasi eta hutsean amaitzen al da?

Bizitzaren hasiera argi bat baldin bada,  
soinu bat baldin bada:  
ez da hutsetik hasten

Bizitzaren amaiera beraz dardara izango da,  
melodia tragikoa izango da,  
ez da hutsean amaituko.

\* \* \*

Argipean,  
Ahotsaren melodia goxoz  
norbaitek zera esan zuen:  
“Bizitza idiota batek asmatu-  
riko ipuina da.”  
Ez da hutsa...

Ipuin batek honakoa dio:  
basamortuko hondar aleak zenbatzen hasiz gero,  
bere infinitotasunean galduko zara.  
Erokeria, nonbait.

Beraz, erokeria ipuina bada  
eta bizitza ipuina:  
bizitza erokeria al da?

Beste ipuin batek zera dio:  
Sentimendu izeneko giltzaz  
bihotza izeneko kutxa irekiz gero,  
zerbait hegaka hasiko da:  
Maitasuna, nonbait;

beraz, maitasuna ipuina bada  
eta bizitza ipuina:  
bizitza maitasuna al da?

Azken ipuin batek hauxe dio:  
Bada kaiola bat  
non uxoa bat ezkututzen den  
Atea irekitzen baduzu  
hegaka hasiko da.  
Bakea, nonbait

beraz, bakea ipuina bada  
eta bizitza ipuina:  
bizitza bakea al da?

\* \* \*

Taberna batean esnatu naiz;  
Argi motelez islatzen den saxofoi zaharraren erruz;

nire pinta euliz beterik dago;  
Zenbatu eta ez naiz bere infinitotasunean galdu...  
Ez dago erokeriarik beraz.

Lurrean “Gorroto zaitut!”  
izkiriaturik duen  
maitasun gutuna aurkitu dut...  
Ez dago maitasunik beraz;

Egunkariaren lehen orrialdean  
“gerra ” irakurri dut.  
Bonba batek zauritutako uxoa  
ezin izango da usapal bihurtu.  
Ez dago bakerik beraz.

Ez badago erokeriarik,  
ezta maitasunik ere,  
ezta bakerik ere,  
Ez dago ipuinik.  
Bizitza hutsa da orduan.  
Dena al da hutsa?

Saxoa melodia tragiko bat bukatzen ari da,  
Bonbilla dardaraka hasi da.

Begiak itxi,  
honakoa pentsatu dut:  
Ezer ez da hutsean hasten,  
ezer ez da hutsean amaituko.



# **Huts, min, urrun...**

Julene Sagarna Mezo  
Kirikiño ikastola  
Bilbao





Huts sentitu, huts,  
mina sentitu, min,  
urrun zeu, urrun.

Barruan oinaze,  
kanpoan irribarre,  
noiz arte?

Egunak luze egiten dira  
zu barik, ene lagun,  
epeltasun goxo horri begira  
gutxitan maitale ta beti ezagun.

Ingurukoen begietan zakuskit  
euren amets eta nahietan.  
Zure beharra daukat,  
loreak eguzkia desio duen bezala,  
olatuak hondarrera jotzen duen legez,  
nik zugana zuzentzen dut ene bihotza.

Huts, min, urrun...

Bat egin dezagun,  
Elkarbana dezagun oro,  
bat egin dezagun,  
muxuka gaitezen goxokiro.

Zure ezpaineuk ukitu naute,  
artega naiz.  
Zure gorputza eskuetan izan dut,  
artega naiz.

Ene negar malkoak sentitu dituzu,  
negar malko gazi-gofoak,  
nahigabearen atsekabeak hartutakoak,  
artega naiz.

Huts, min, urrun...

Zure argiak nire belztasuna du ageri,  
zure irriak ene ezinegona.  
Esklabo naiz,  
gorrotatu nahi eta gozatu ezinaren  
esklabo,  
maitatu nahi eta koldartasunaren gatibu.  
Koldarra, bai,  
aurrera egiteko,  
sentimenez beterik,  
inori igorri ezinik.

Ekiaren izpi epelak nau erretzen,  
ilargiaren argi xamurrak itsutzen,  
belar gaztea latza da nire oinpean,  
txorien kantu alaia astrapala ene entzutean.

Huts, min, urrun...

Galdu egin naiz,  
noraezean dabilen belauntzia legez,  
itsasoan galdurik,  
olatuak lar zigortuko ez nauten itxaropenean,  
ene, barnean jarritako kateak  
noiz askatuko zain.

Kate irmo eta sendoak  
zenituen finkatu,  
giltzarriz loturik,  
ene askatasuna murrizturik.  
Arrosarik inozoena bazinan  
arantzatu ninduzun  
neu zeure pozoiaz hornituz.  
Pozoi mingor bezain epela,  
momentu hotzetan beroa,  
zure presentzian ziztatzen nauena,  
zirrara erotikoen igorle,  
ene inpultsoen erantzule.  
Elkarbana gabeko bultzadak  
bakardadean jasan beharrekoak.

Huts, min, urrun...

Itxaroan zigarroa dut lagun,  
emeki-emeki agortzen doana.  
Bere kearen eiteak nau liluratzen,  
aske,  
airean barrena hedatzen da,  
ezelako oztoporik gabe,  
noranahi.  
Zein da gure amodioak  
bide hori ez hartzearen ulerbide?

Bustitzen ez duen malkoa,  
berotzen ez nauen besoa,  
maita izan ginen,  
orain urrun zaitut zinez.



# **POESIA. B maila**

DBHko 3. eta 4. kurtsoak



# **Munduaren koadroa**

Olatz Mitxelena Larreta  
Hurtzaro ikastola  
Oiartzun





Arima hartuko dut pintzeltzat  
eta errealitatearen kolore argi zein ilunetan zipriztinduz  
margotuko dut munduaren koadroa,  
bizitza krudel hau  
kolore doi batez jantzeko,  
eta,  
une batez,  
bederen,  
jagoitik hiltzear daukadan arnasotsa  
berreskuratzeke.

Beharrean aurkitzen den behartsuaren oihuaz,  
oihu garbiaz, zuriaz,  
oihu bortitzez,  
estaliko dut koadroaren hondoa;  
sufrikario latzaren urmael bihurtuz.

Ordea,  
errealitatearen kolore argia utzi  
eta, iluna,  
ilunena hartuko dut  
aberatsaren apetaren ordezkari gisa,  
eta beronekin zapalduz,  
tapatuko dut behartsuaren oihua;  
berekokeria beltzaren zelaiak irudikatuz.

Zelairik handiengan,  
maitasunaz aberatsak diren  
lore gorri multzoa landatuko dut,  
mundu honetan,  
lore zimel,  
lore hutsalak baliran agertzen direnak.

Aurreraxeago,  
zelairik txikiengan,  
erraiak, bihotza  
usteldurik,  
herdoildurik duen,  
itxuraz,  
zuhaitz eder eta galanta margotuko dut,  
barneko kolore ilun guztiak gorde nahian,  
aurpegia hosto garesti eta koloretsuz atontzen duena.

Koadroko ortzi beltzean zehar,  
haizearekin nahasirik,  
zuhaitzetik jausitako hosto nabar galduak margotuko  
ditut,  
itsasoko uhinak baliran,  
noiz aurrera,  
noiz atzera,  
noraizean.

Errealitatearen margo arreak utzi barik,  
aske direla,  
besteen gainera hegoak astintzeagatik  
txorien izaera askearen jabe direla  
oihukatzen,  
sinestarazten duten saiak,  
maitasunez txiro,  
eta,  
bidegabekeriaz aberats diren saiak,  
dohakabetasunaren gatibuak,  
barreiatuko ditut airean,  
hostoekin tartekatuz.

Koloreen aniztasunaren erakusleihora hurbildu,  
eta,  
margo argiagotetan zipriztinduz ene arima,  
barnetik aberatsak diren xoriñoak  
tindatuko ditut;  
saien gatibuak,  
kaiioletako atalagen atzean  
euren errugabetasuna babesten dutenak.

Azken ukitua emanaz  
errealitatearen izenean sinatuko dut,  
errealitatearen koloreez;  
eta munduko  
txoko,  
izkina orotan eskegiko dut;  
ikusitako duenaren dastagarri.



# **Gasolindegirik baldin bada**

Alots Arregi Izagirre  
Ikasberri ikastola  
Azpeitia



Arazoak  
arazo gehiagoz  
beteak daude,  
eta petalo gabeko  
arrosak, arrosak direla  
esango dugu,  
euren arantzetako  
odol gabeziagatik.

Ilusio optikoak,  
bide bazterreko  
autostopistak badira,  
gasolindegia  
ez dira existitzen.  
Beraz, ez naiz  
autotik jaisten  
berrehungarren kilometroan  
igarotzen dudan  
gasolindegi horretan.  
Zertarako, autostopistak  
ilusio optiko badira.

Eta banoa.

Errepideak  
inon amaitzen al dira?  
Eta han amaitzen  
badira, nonbait  
hasiko ziren.  
Han ez ordea.  
Han amaitu  
egiten dira.  
Guztia amaitzen da.

Odolik gabeko  
arantzak,  
arantzak direla  
esango dugu,  
euren txortenetako  
petalo gabeziagatik,  
eta ezereza  
gasolindegiek eraturiko  
teoria bat da.

Neumatikoak,  
paperean liaturiko  
hitzak lez  
erretzen dira.  
Azkar eta  
ohartu gabe;  
baina nahita.  
Inoiz ez  
nahi gabe.  
Sunda  
jasangaitz bat  
sortzen dute.  
Baina sunda,  
sudurrak irekita dituztenen  
kontua besterik  
ez da.

Eta banator.

Hormen aurka  
etzan,  
hanka bat  
igo,



hatz erakuslez  
sudur punta  
ukitu  
neumatiko usaindun  
hitz liatuak  
erretzen,  
eta oraindik,  
zutik  
egongo zara.

Erortzeko  
aukera bakarra,  
zapaltzeak  
higuina ematen dizun  
lur zapaldu hori  
zanpatzen duen  
hanka jasotzean  
izango duzu.

Egin duzu  
Jausi zara.  
Lurrera jausi zara.

Bide bazterraren  
erdian,  
autostopista erori bat  
gehiago zara.  
Hitz liatuak, azpian  
harrapatu dituzu.  
Ez zara jaiki.

Autostopista erori bat  
gehiago,

hirurehugarren kilometroan.  
Nik jada  
igaro dut  
laurehugarreneko gasolindegia.

# **Itsas eraso gaiztoa**

Ainhoa Mendibil Artetxe  
Elgoibar ikastola  
Elgoibar



15 urtez, Lekeitioko  
itsas bazter inguruan;  
arrain freskoa alboan eta  
sare luze bat eskuan.  
Udaberrian malekoian ta  
kofradian abenduan  
urdin-urdinez goitik behera  
eguneroko moduan,  
neska gazteak, andre zaharrak  
denok lan eiten genduan! (bis)

Anaia, aita eta aitona  
arrantzale familia  
Lekeitioko ohitura zena,  
posible gendun bizia;  
hilabeteak etxetik kanpo  
bertoko nesken krisia...  
itsaso zakar ta zitalera  
irtenik itsasontzia;  
itzuli orduko, etorri ohi zen  
joandakoen erdia. (bis)

Orain ordea, hementxe nabil  
    amona zahar bakarra  
    jaiotteriko karriketarik  
    noizean behin tirri-tarra.  
Oraindik ere, begiratuan  
    itsaso zabal hortara,  
begi ximurtu pare hontatik  
    isuri ohi zait negarra  
ta piztu-oraindik martxan dagoen  
bihotz triste honen garra! (bis)

Betiko barku marroi haretan  
    gizon ta mutiko pila,  
    itsaso zakar eta latz hura  
    ez zegoen ez isila,  
ontzi apurtzen ematen denez  
    izan zen guztiz abila.  
Niretzat amets gaiztoa zena  
    errealitate hila  
    oraindik ere ibili ohi naiz  
ontzi galdu haren bila! (bis)

Kosta inguruko ia guztiak  
itsasoa du maitea  
ez dut ulertzen, nola liteke  
hori egia izatea?  
ni bezalako beste askotxok  
galdu du bertan jendea.  
Bizitzearren, lanera joan den  
buelatu ez den taldea...  
niri itsasoak egin dit soilik  
era guztiko kaltea. (bis)

Desagertua oraindik ere  
ume bat zen mutikoa,  
eta etxeko zaindari gendun  
seme, senar, gurasoa;  
igeri-egiten ere - ez zekien  
aitona gizarajoa  
etxeko hiru gizonak jaso  
zuten itsas erasoa...  
Hau biziz gero ezin begira  
begi onez itsasoa! (bis)

Amonak laster utzi gintuen  
jakinik notizi hura  
esan zigunez pasata zuen  
bere biziko helmuga.  
Gizonik gabe, semerik gabe,  
biloba beste mundura...  
Azken etapa ukitu zuen;  
iritsi bere ordura  
beste guztiez biltzeko asmoz  
han joan zitzaigun zerura! (bis)

Ama ta biok, etxe haretan  
itsasoari begira,  
goizero piztu izan zitzaion  
begi haietan dirdira.  
Esaten denez, emakumeak  
kemen handikoak gira  
hori egia izatea zen  
eguneroko desira...  
baina tamalez, hoiek esames  
hutsak besterik ez dira! (bis)



Eta gaur egun, hementxe nago  
Lekiton bertan oraindik  
paisaia guztiz gaizto bat daukat  
begi pare honetatik.  
Ikus dezaket maite nuena  
kendu zidana ondotik...  
egun guztia aulki zahar baten  
mantaz ongi estalirik,  
familikoez beteta egon zen  
etxean bakar-bakarrik! (bis)

*Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan.*



# **Zurekin, baina zu gabe**

Garazi Etxeberria Barandiaran  
Loinazpe institutua  
Beasain



Neguko paradisuaren ametsetan,  
Izarrik gabeko gauetan,  
Bakardadeak laguntzen nauenetan,  
Zuritu gabeko elurretan,  
Zure begiei so eginik  
Galtzen naiz zure barrenetan.  
Ihesak eraman ditzan zorigaitz eta negarrak  
Eta zurekin errotu,  
Ene barnean ditudan garrak.  
Zure besarkadaren babesean,  
Ortzia esnatzen den bakoitzean,  
Zimeltzen zaizkit ezpainak,  
Zure ahopean.  
Goxotasunaren oparotasunak  
Estaltzen dizkit beldurrak  
Eta zurekin ametsen desiran  
Bidaiatzen dut  
Gauerdia zeruratzean.  
Isiltasun oihuetan,  
Euriz bustiriko soinueta,  
Zure bila nabil  
Oztopoak ekiditen ditudalarik.  
Taupada isilen baladetan,  
Dantzatzen dute nire begiek  
Zuri begiratzean.

Malko lehorraren tantonetan  
Ia itorik,  
Zure izena oihukatzen  
Dihardut aitzinetik.  
Zurekin,  
Baina zu gabe,  
Segundo oro zutaz oroitzen,

Apenas lorik egiten.  
Zure berririk jakin gabe baina  
Beti nire ondoan zaude,  
Ez zaitut ikusten,  
Ez eta sentitzen.  
Zurekin,  
Ez dut beldurrik sentitzen,  
Baina bai zure hutsunea nabaritzen,  
Nirekin ez zaudelako.  
Zurekin,  
Baina zu gabe,  
Atxilotua sentiaraziz zure  
Zure sarraila giltzapetuan.  
Zurekin egotea  
Beste desiorik ez dudan  
Une honetan,  
Askerik naiz sentitzen  
Zure laztanetan.  
Zurekin,  
Baina zu gabe.

**URRZUNOTARRAK**

**1986-2004**





ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore Galdua	1998	115	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Burua tente mutilak!	1999	81	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Maiate duen orok...	2000	19	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	Gorrotorearen mendekua	2000	27	Prosa
Agirre Aranguren	Iraitz	La dolce vendetta	2001	19	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aizpuru Segurola	Kristina	Isiltasunaren oihartzuna	1999	65	Prosa
Alberdi Estibaritz	Antton	Ez dut ezer ulertzen	2002	75	Prosa
Aldabaldeireku Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Jon	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Margotu ninduten	1999	193	Poesia
Amondarain Ipiña	Gaizka	Urtaroen klandestinitatean, zu	2000	137	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amozarain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzalar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iniigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aziaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedeen isila	1989	171	Poesia
Aranzeta Zubeldia	Amaia	Iraultza	2003	167	Poesia
Arbelaitz Lekuona	Usua	Helmugara iristea, hori da kontua	2000	77	Prosa
Arbelaitz Sarasola	Olaia	Hantxe lokartu nintzen	2003	117	Prosa
Aristizabal Tolosa	Ekiñe	Pairatzeak ikaratu ala ikara pairatu?	2003	209	Poesia
Arozena Velez	Maite	Aita, zer gertatzen zaio munduari?	2001	73	Prosa
Arratibel Galartza	Enara	Begi dizitratuak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	Puntu ta komak garagardo aparretan	2003	79	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	Paperezko hegazkinak biribil ezabatuan	2003	183	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Arregi Izagirre	Alots	Belaunpe konprimutuetaiko autobus geltokiak	2003	187	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Hegoak ebaki banizkion zeruari, ez zen urdina izango	2003	215	Poesia
Arregi Izagirre	Alots	Gaur, berandu sartu zait beltza hartzeko gogoa	2004	113	Prosa
Arregi Izagirre	Alots	Gasolindegirik baldin bada	2004	223	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Itsasoaren besoetan	1999	169	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Amets gaiztoetatik ihesi	1999	175	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sentimentuetan galdurik	2000	177	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Aingeruen negarra	2000	183	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Argi amatuetaun itzal bat	2001	159	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Bizitzaren drogak	2001	165	Poesia
Arregi Izagirre	Odei	Sagar bihotzak sagar begietan	2002	107	Poesia
Arregi Lopez	Ane	Zuk uste ametsak bete daitezkeela?	2002	83	Prosa
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arriolabengoa Bengoa	Nagore	Hesiak gaunditzen	2001	211	Poesia
Arribalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arrebarrrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Arruti	Iñaki	Amaiterarik gabeko gutuna	2001	47	Prosa
Arruti Arruti	Iñaki	Balbea erreka bere bidea darrai	2001	61	Prosa
Arruti Errazkin	Idoia	Ametsen Bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaita	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Aimara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaita	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaita	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaita	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Atxutegi Sarrionandia	Juan	Idazle izan nahi dutenei	2003	109	Prosa
Atxutegi Sarrionandia	Juan	Herdoidutako izkinak ez dute sentipenik	2004	37	Prosa
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgarrako olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malloak ez badira?	1997	163	Poesia
Ayllón Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azpietola Martikorena	Maialen	Zerua negarrez denean	1999	19	Prosa
Azkarate Egana	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aziritia Etxeberria	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa
Azurmendi Lasa	Ane	Zaharrak berri	2000	83	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Babiano Lpz de Sabando	Mikel	Oroitzapenak	2001	105	Prosa
Barbantxo Galdos	Iñigo	Soinu izoztuak	1999	123	Poesia
Baroja Arrue	Miguel M <sup>a</sup>	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loimaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaidea imaginarioa	1987	29	Prosa
Bazarrrika Otegi	Unai	Etenaren trilogia	2000	157	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Benavides Osoa-Aizpurua	Jokin	Oroitzapenen garra	2002	91	Prosa
Bengoa Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorbizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Aizera begira	1997	199	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abendetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Amaraun Anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Beramendi Britt	Miren	Mundua	2002	155	Poesia
Beramendi Britt	Miren	Ezinenen malkoa edo ezjakintasunaren negarra?	2003	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auniamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Berasaluzte Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluzte Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Berzosa Irastorza	Manex	Puritanical Euphoric Misanthropia	2004	47	Prosa
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Farolpeko ixoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bilbao Bueno	Goiatz	Bihar arte lazтана	2002	149	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaitz	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Caminos Ikazuriaga	Haizea	Gazitasun gazi-gozoa	2002	135	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorritz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
De los Mozos Olazola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
De los Mozos Olaiizola	Izaskun	Hertotza	1988	155	Poesia
De Miguel Armaiz	Olatz	Amaren Heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau eurtsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Itziaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduainen Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esna! Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Garraisi mutuak	2000	149	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Egun arrunt bat gehiago	2001	53	Prosa
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau Hotza Eta Lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Aldanondo	Lierni	Mendian gora haritza	2003	93	Prosa
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estevez Fernandez	Monica	The beautiful life of the drugs: very-very beautiful life...	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren Bidea, Amaierarik Gabeko Kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats eurtsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitaia	1995	29	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxabe Iruretagoiena	Nagore	Bizitzaren mandamentuak	2001	171	Poesia
Etxaniz Iraola	Ainitze	Ametsa egi	2000	43	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Barandiaran	Garazi	Zurekin, baina zu gabe	2004	237	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Etxezarreta Etxari	Enekoitz	Nire baitakoa zara	1999	159	Poesia
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburua	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaita	Heriotz Andreak zuria du lakat	1990	39	Prosa
Fernandez Jauregi	Ander	Bakardadearen miseria	1999	53	Prosa
Fernandez San Martin	Jon	Fefe	2003	19	Prosa
Fernandez San Martin	Jon	Spaghetti bihurriak tomatetan	2004	19	Prosa
Fernandez San Martin	Jon	Heriotzari ongietorria	2004	179	Poesia
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Maita Bengoetxea begira zegoen	2000	61	Prosa
Franko Sudupe	Jatone	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Gabiria Mauleon	Maitane	Aitona	2003	175	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia



ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarrategi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
García Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
García Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
García de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
García de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei Puntako Izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren Kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Laztana	1999	37	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gezala Ortiz	Amaia	Zorionaren patua	2004	197	Poesia
Gil Munariz	Jorge	Izaren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munariz	Jorge	Heriotzak Ez Zekiena	1998	143	Poesia
Gil Munariz	Jorge	Metro	1999	137	Poesia
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren Ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Asko maite duenak asko sufritzen du	1999	187	Poesia
Goikoetxea Asurabarrena	Irati	Koloreak, bizitzaren arima	2000	167	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatikoko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goikoetxea Zabaleta	Idoia	Björkeport maldizioa	1999	101	Prosa
Gotia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
González Montero	Claudia	Betiko maitasuna	2000	107	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko Bluesik Ederrena	1998	69	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Baserritik	1999	29	Prosa
Gorrotategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Gurrutxaga Zubimendi	Iñaki	Espaloia	1999	43	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Ibarluzea Santisteban	Olatz	Gizarte mamia	2003	197	Poesia
Ibarluzea Santisteban	Olatz	Une aproposa	2003	203	Poesia
Ibarluzea Santisteban	Olatz	Hutsa	2004	203	Poesia
Idoaga Mondragon	Nahia	Amets gorriak	2003	65	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zenzu eta funts	1989	135	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Hertozaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iraola Goiburua	Jon	Isiltasunaren bakardadean	2004	89	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratu	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frontean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iurriaga Zugaza-Ataza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia
Iza Totonika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jaka Irizar	Oihane	Itsasoratutako malkoak. Hitz izoztua	2002	127	Poesia
Jauregi Aizpurua	Leire	Ez naiz ezer	2002	161	Poesia
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregiuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagaldunak deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Labandibar Arbelaitz	Goiatz	Ipar izarra	2002	49	Prosa
Laka Arozena	Amaia	Zuhaitza	2001	205	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misteriotzua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Olhana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Legarreta Gorroño	Jon Haitz	Gizateriaren urratsak	2001	33	Prosa
Leiaristi Guenaga	Amaita	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Lekuona Artola	Eneko	Askatasunaren bila	2001	87	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Lopetegi	Estibaliz	Galdutako denboren zertzeladak	2002	39	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidor	Zu eta ni zigurroa medio	1991	59	Prosa
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Lopetegi De la Granja	Ekhi	Garai bateko hondarrezko erloju goibela...	1999	181	Poesia
Madina Miliakua	Txomin	Farako zoroa	2000	35	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Maiztegi Landa	Haize	Bizitza txuri beltzean	2000	119	Prosa
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko Neska Txikia Eta Hegoak	1998	211	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Kolorezko bideak	1999	131	Poesia
Malagon Zaldua	Ana	Beleak kontatzen	1994	87	Prosa
Malagon Zaldua	Ana	Beti mugan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Mailagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Mañeru Igoa	Irati	Mundu hobe baten bila	2003	55	Prosa
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Martin Iriondo	Amaita	Txori bati begira	2000	143	Poesia
Martinez Martinez	Josu	Bihotz urdinak kale grisetan	2004	171	Poesia
Martinez Martinez	Josu	Barrutik itxitako atek	2004	185	Poesia
Martinez Zabalegi	David	Zerurako bide bi	1999	89	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendibil Artetxe	Ainhoa	Itsas eraso gaiztoa	2004	227	Poesia
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobelduritze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendikute Zulaika	Maitane	Itsu zulora	2000	91	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	Oficialdegui-k orhoitit ükhenen dii Santi Unzueta "vasco"-a	1991	37	Prosa
Mendizabal Alberdi	Maita	Ilberri gauetan...	2002	97	Prosa
Mixelena Albusu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mixelena Albusu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Mixelena Larreta	Olatz	Negar malkotan bihotza	2004	141	Prosa
Mixelena Larreta	Olatz	Munduaren koadroa	2004	217	Poesia
Moreiro Cantalapiedra	Raquel	Soriako botijoa	2004	157	Prosa
Muguruza Sarasua	Lorea	Musika baino pista hoberik non?	1999	73	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muñoa Errasti	Ion	Bizitza amets; eta zu?	2001	199	Poesia
Muñoa Errasti	Ion	Orainaren hitza da geroa	2003	149	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Oiarzabal Santiso	Izarne	Antipodetako bikia	2004	67	Prosa
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olaizola Gabirondo	Kati	Xabi eta Fermin	2001	141	Prosa
Olaizola Gabirondo	Kati	Merituak	2002	29	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Oronoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otiaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padron Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zahararen azken arnasa	1993	155	Poesia
Paia Ruiz	Alfredo	Oroitzapenak	1999	145	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek Jakingo Balute	1998	227	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Lau bekatu hilezkor	1999	151	Poesia
Panizo Sáez de Maturana	Amaita	Luis XIII.ari, xake	2000	53	Prosa
Paya Ruiz	Ixaso	Ez dut esnatu nahi	2003	191	Poesia
Paya Ruiz	Xabier	Agur laztana	2000	131	Poesia
Perez de Mendiola Etxezarraga	Xabier	Bakarrizketa	2004	191	Poesia
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzigabeko paktua	1986	91	Prosa
Quintana Martínez	Paloma	Beste mundua ezagutzen	2001	121	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rementería Larrucea	Jon	Bizitza gogorra da	2002	57	Prosa
Ríos Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Rubio Iturria	Miren	Azarkalak jan nitueneko bost hondar aleak	2002	113	Poesia
Rubio Iturria	Miren	Dr. Rose	2003	43	Prosa
Rubio Iturria	Miren	Kristalezko leihoak	2003	155	Poesia
Sagarna Mezo	Julene	Huts, min., Urrun...	2004	207	Poesia
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren Kaiera	1998	19	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Etermitatearen Memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elosgi	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosgi	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sanchez Rabadan	Sandra	Maitasuna eta fidelitatea; egon litekeen binomiorik arrisksuena	2003	33	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailtzan	1989	17	Prosa
Sarasua Oñiden	Maialen	Azken itsas bidaiak	2001	179	Poesia
Sarobe Txopetia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarrtegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarrtegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarrtegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sarrtegiarte Lasarte	Aingeru	Sineskeriaren egutegia	2000	99	Prosa
Sudupe Rodriguez	Maidor	Azken agurra	1995	65	Prosa
Telletxea Agirre	Olatz	Zer egin ez dakiela	2002	167	Poesia
Telletxea Martiarena	Leire	Ulertu ezinean	2004	81	Prosa
Timoteo Delgado	Ander	Urruneko oroitzapenak	2002	67	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari Kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugalde Pikabea	Garazi	Malko gaztiak	2004	149	Prosa
Ugalte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia



ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Ugarteburu Plazaola	Ainhoa	Askatasun taupada	2001	131	Prosa
Uranga Barro	Mikel	Nocte	2002	19	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uriarte Gil	Maite	Noraezean	2000	189	Poesia
Uriarte Gil	Maite	Sua sutan	2001	153	Poesia
Uriarte Gil	Maite	Ihesean	2002	121	Poesia
Uribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa
Urkia Azurmendi	Olatz	Saminaren gatibu	2004	57	Prosa
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horizatuenak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gupilean	1990	119	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Vieco Ramos	Nerea	Erantzumen ebasleak	2003	125	Prosa
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vivanco Ramirez	M Estibaliz	Miranderen itzalpean	2004	101	Prosa
Vives Urbiet	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogoa	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare Grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umerez	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zelaita Markuerkiaga	Oihane	Zurekin eta zu gabe	2004	127	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zuazo Uriarte	Jone	Ene auzoa	2003	137	Poesia
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa
Zubeldia Iturralde	Aintzane	Oroitzapenetan galduta	2003	101	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zubizarreta Iribecampus	Oihan	Udazkeneko ostera	2001	187	Poesia
Zubizarreta Iribekampus	Oihan	Etsipenezko negarra	2000	197	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Minbizia	2001	193	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Gerra beti da oinaze	2002	143	Poesia
Zurutuza Arin	Oier	Zuri begira	2003	143	Poesia